



Susana Perez
kimikariari
elkarrizketa

Immigrazioa:
inklusioa da
helburua

"GIZARTE JUSTUAGOA, LEHIAKORRAGOA, KOHESIONATUAGOA ETA GIZATIARRAGOA LORTZEKO LAN EGINGO DUGU"

Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiaz
dihardu Naiara Goia zuzendariak / 5



Naiara Goia,
Arantzazuko
Gizarte
Berrikuntza
Laborategian.

XABIER URZELAI



Zapatuan ostalariek egindako elkarretaratzea, Arrasaten. LARRAITZ ZEBERIO

**Ostalaritza ixteko agindua dela eta,
arduratuta taberna eta jatetxeetan** / 2

**Arropak ez duela
generorik
aldarrikatu dute,
institutura gona
jantzita joanda**

Oñatiko Zuazola-Larrañako ikasleek
elkartasuna adierazi diote
eskolara gonarekin joan
zen Bilboko mutiko bati / 34




Oñatiko Zuazola-Larraña institutuko hainbat neska-mutiko, gonekin. TXOMIN MADINA

Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA

14 EGUNEKO TASA 100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko
Arrasate	200	122	1.100	49,87
Bergara	125	149	702	46,79
Oñati	83	54	408	33,64
Aretxabaleta	31	29	237	33,39
Eskoriatza	15	20	106	100,37
Aramaio	11	7	37	24,57
Antzuola	8	25	125	56,79
Elgeta	2	4	28	24,58
Gatzaga	0	0	1	4,00
GUZTIRA	475	410	2.734	39,95

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Azken neurrien eraginaren esperoan, kutsatze-zifrek goia jo dute berriz ere

Mugikortasuna murriztu ostean, ostalaritza itxi eta etxeratze agindua 22:00etara aurreratu zuen Jaurlaritzak. Ostalariek protestak egin zituzten asteburuan, eta ostean heldu dira bakunari buruzko albisteak eta ostalarientzako dirulaguntzen iragarpena

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Jaurlaritzak neurri gehigarriak hartzen jarraitzen du, COVID-19aren bigarren uholdearen hedapena gelditu nahian. Baina hauen eragina ez da nahi beste igarri asteak utzitako kutsatze datuetan, eta Debagoiengan orain arteko daturik altuenak batu dira astean.

AZKEN COVID-19 DATUAK

AZKEN ASTEAN, INOIZ BAINO COVID-19 KUTSATZE GEHIAGO DEBAGOIENEAN

Joan den astean 410 kutsatze pilatu ostean, oraingo honetan 475 batu dira, ia %16 gehiago. Egunik okerrena martitzena izan zen, 89 kutsatzerekin –egun bakarrean pilatutako daturik handiena, orain arte–.

Arrasate berriz itzuli da kutsatze gehien dituen herria izatera, astebetean 200 kutsatze pilatu eta gero. Egunero izan ditu 23 kutsatze edo gehiago, eta orain arteko markarik altuena ezarri du 200eko langara helduz, aurreko astean baino %64 gehiago. Oñatin ere okerrera egin dute datuek azken zazpi egunetan; 83 kutsatze izan dituzte, aurreko astean baino %42 gehiago. Aretxabaletan eta Aramaion ere gora egin dute datuek: Aretxabaletan, aurreko astean baino bi gehiago –31 kasu, guztira–; eta Aramaion, lau gehiago –11 kasu, guztira–.

Badaude behera egin duten herriak ere. Bergaran, adibidez, kutsatzeek %16 egin dute behera; 149 kasutik 125era. Antzuolan herenera jaitsi dira kasuak –25etik 8era–, eta Eskoriatzan eta Elgetan ere behera egin dute datuek: Eskoriatzan, esaterako, 20tik

15era jaitsi dira; eta Elgetan, lautik bira. Leintz Gatzagan beste astebete egin dute kutsatu gabe, eta kolore gorrian ez dagoen bailarako herri bakarra izaten jarraitzen du.

Debagoieneko Ospitalean 25 paziente daude ingresatuta COVID-19agatik, gaur-gaurkoz; azken astean bederatzi paziente bideratu dituzte Txagorritxuko Ospitalera. Azken astean 2.926 proba egin dituzte eta horien %14,7k eman dute positibo.

NEURRI MURRIZTAILEAK

AITA MENNIN 29 EGOILIAR ETA BEDERATZI LANGILE KUTSATU DIRA

Koronabirusaren agerraldia hauteman da Aita Menni ospitalean. Zentroko Zuzendaritza-

ren arabera, hilaren 6an agertu ziren lehenengo kasuak, eta orain arte egin diren probek 29 egoiliar eta bederatzi langile kutsatu direla baieztatu dute. Egoiliar gehienak egonkor daudela adierazi du Aita Mennik, eta ospitaleko unitatean bi eremu ezarri dituztela: COVID eremua eta isolamendu-eremua. Oraindik emaitza batzuk jasotzeko zain daudela ere azaldu du Zuzendaritzak, eta, bitartean, pertsona guztiak isolatuta daudela beren etxeetan. ELA sindikatuak salatu duenez, kutsatu diren langileen unitatean ez ziren "legez egin beharreko" PCR probak egin oportetarik bueltan, eta langileei "ez zitzaien horren inguruko informaziorik eman". Hala, elkarretaratzea egin zuten atzo, eguena, Gosalibarko Ospitalearen kanpoaldean.

Zaharren egoitzetan, Debagoiengan ez dago kutsaturik. Azkenekoari atzo eman zioten alta Bergarako Mizpirualden.

NEURRI MURRIZTAILEAK

OSTALARITZA IXTEKO AGINDUAREN HARIRA PROTESTAK EGIN DITUZTE ASTEBURUAN

Kutsatze datuak "geroz eta kezagarriagoak zirela" aitortu ostean, Iñigo Urkulluk neurri murriztaile berriak iragarri zituen joan den egunean, eta horien artean zegoen tabernak

eta jatetxeak ixteko agindua. Neurria zapatuan jarri zen indarrean, eta, hiri handienetan bezala, Debagoieneko ostalari eta bezeroak kalera irten ziren, eta agerraldiak egin zituzten Arrasaten eta Antzuolan. Adierazi zuten, ez zuten ulertu egun batetik bestera halako "neurri gogorra" hartu izana, eta etorkizunera begira "etsita, nekatuta, kezkatuta, eta lur jota" daudela adierazi zuten. "Ixtera behartzen gaituzte bigarren aldiz, eta aurreko egunetako ordutegi eta neurri aldaketekin nahikoa sufritzen ari ginen dagoeneko".

Tabernarien beste kexetako bat eramateko edariak eta pintxoak saltzarekin lotutakoa da. Onartutako dekretuak dio derrigorrezkoa dela jakiak alde aurretik eskatzea tabernara edo jatetxera jasotzen joateko. Tabernen kasuan, debekatu egiten diete eramateko edariak saltzea; kafeak, adibidez. Soilik jakiak saltzeko eskariekin batera sal ditzakete eramateko edariak, gehigarri gisa. Tabernariak "haserre" azaldu dira, okindegiek eramateko kafeak sal ditzaketelako eta eurek ez. GOIENAREN edizio hau ixterako, Jaurlaritzak ez du egoera horiek arautzeko neurri berririk hartu.

DIRULAGUNTZAK OSTALARIENTZAT LANGILE KOPURUAREN ARABERA, 3.000 ETA 4.000 EURO ARTEKO LAGUNTZA ZUZENAK

Eusko Jaurlaritzak 30 milioi euroko dirulaguntza lerro berri bat iragarri zuen martitzenean, ostalaritzako profesionalen laguntza. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa aintzat hartuz sektore horretan lanean diharduten 12.219 enpresak eta mikro-enpresak jaso ahalko dute, eta langile kopuruaren arabera kopuru bat edo beste jasoko dute: hiru langile edo gutxiago dituztenek, 3.000 euro; lau eta hamar langile artean dituztenek, 3.500 euro; eta hamar langiletik gora dituztenek, 4.000 euro. "Enplegua mantentzeko helburuz", baldintza bat ezarri diete laguntza-eskatzailari: ostalaritza martxan jartzea baimentzen den unetik aurrera, aktibitatea mantentzea hurrengo lau hilabeteetan". GOIENAK kontsultatuko osta-



lari gehienek "ondo" hartu dute laguntzen berria, baina "motz" geratzen dela diote.

COVID-19AREN TXERTOIA

EUROPAKO BATASUNAK 300 MILIOI DOSI EROSI DIZKIO PFIZER-I

Kanpo ikerketa batek frogatu duenaren arabera, %90eko eraginkortasuna du Pfizer etxeak garatutako txertoak, eta maiatz aldera Euskal Herrira heltzea da aurreikuspena. "Zaila da jakitea noiz jasoko dugun, zehazki, baina konfiantza daukagu 2021eko apirilera edo maiatzerako lehen bakunak jartzeko moduan egon gaitzkeela. Lehenak txertatze kanpaina batera bideratuko dituzte, pertsona zaurgarrientzat; eta ostean helduko dira botiketara", adierazi du Gipuzkoako Botikarien Elkargoko zuzendari tekniko Estibaliz Goienetxek. Beste marka batzuen txertoak izango diren galdetuta: "Baietz uste dut; hiru edo lau enpresarenak izango ditugu, gripearen txertoekin bezala".

"Eskerrak turroiak egiten ditugula"

KOLDO LASA LASA JATETXEA (BERGARA)

"Nola edo hala, egoera salbatzen" ahalegintzen dabil. "Turroiak egiten ari naiz. Eskariak izaten ditugu urtero, eta orain horretan zentratuta nago". Erakundeen laguntzak handitzea ezinbestekotzat jo du: "Orain arte igarritakoak ez dira nahikoa; ostalaritza oso-oso gaizki dago".



Lasa, turroiak erakusten. X.G.

"Gazteek eredugarri jokatu dute"

MIKEL PEREIRO AÑAI ETA ANBOTO TABERNAK (ARAMAIO)

Sorpresaz hartu zuen ostalaritza ixtearena. "Ordutegia murriztuko zutela uste nuen". Hala definitu du ekainetik hona bizitakoa: "Tabernari gisa unerik txarrenak bizi izan ditut: polizia lanak, bezeroekin eztabaidak... Asko estigmatizatu dituzte gazteak, baina Aramaion, behintzat, eredugarri jokatu dute".




Pereiro, Añai tabernako barran. X.G.

"Gure kasuan, pribilegiatuak gara"

BAKARNE URRUTIA BASABE JATETXEA (ARETXABAETA)

Egunean 100-110 bazkari ematen dituzte, jatetxe alboan dituzten bi kooperatibari esker. "Coprecira 80 bazkari eramaten ditugu eta Mondragon Assemblyra, aldiz, 20 edo 30. Zentzu horretan, pribilegiatu hutsak gara, bazkari kopuru duina ziurtatzen dugulako egunero-egunero".



Urrutia, lapiko artean. X.G.

"Eramateko jakienak ez du merezi"

JESUS ARSUAGA TXOPEKUA JATETXEA (OÑATI)

ERTEra joango dira, eramateko jakien aukera baztertuta: "Jakiak eramatearena legea betez egiteko, alta eman behar duzu epigrafe batean, jakiak garraiatzeko edukiontzi berezi batzuk behar dituzu... Zenbakiak aterata, eta jakinda epe mugatu baterako dela, ez digu merezi hor sartzea".



Arsuaga, sukaldean. X.G.

CITROËN BERLINGO URBAN CAMPER

DAGOENEO EZ DIOZU UKO EGINGO TURISMO BATI
ZURE CAMPER ESPERIENTZIAK GEHITZEKO!

- Sabai altxagarria ohearekin
- Sabai altxagarriari esker, barruan zutik egoteko adinako altuera
- Lo egiteko gehienez 4 pertsona
- Berlingo M eta XL kanperizatze aukera
- Zure Berlingo ere kanperizatzen dugu

CHAPIME TAILERRETAN IKUSGAI, ZATOK EZAGUTZERA! HITZORDUA HARTZEKO 943 79 45 22



CHAPIME TAILERRAK

Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5, Arrasate Tel.: 943 79 45 22

EUSKARALDIA

Dena prest bailaran ariketa sozialari ekiteko

Maialen Santos ARRASATE

Datorren egubakoitzetik, azaroaren 20tik, abenduaren 4ra egingo dute bigarren Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskarari bultzada ematea izanik helburu nagusietako bi. Debagoieneko herrietako batzordeak azken txanpan murgilduta daude, ariketa ate-joka dagoen honetan.

7.500 debagoiendarretik gora

Atzora arte, 7.500 debagoiendarrek baino gehiagok zuten Euskaraldian izena emanda; eta horietatik ia gehienek *ahobizi* rola aukeratu dute ariketa egiteko: 6.400 inguru. *Belarriprest*-ak, aldiz, gutxiengoa izango dira, 1.100 inguru. Herrietako batzordeetako koordinatzaileak azaldu dute azken egun hauetan jende asko ari dela izena ematen, baina zeregin hori azken ordura arte ez uzteko gomendioa eman diete herritarrei.

Izena eman duen jendearen profilari buruz galdetuta, Asier Kortabarria Bergarako koordinatzaileak azaldu du aurten badagoela jende berria; lehen edizioan parte hartu ez zuena. "Gainera, esaterako, 16 edota 17 urteko gazteak ere aurten arituko dira, estreinakoz", zehaztu du. Bajak ere izango dira aurten; izan ere, osasun krisiaren ondorioz "kezkatuta" dagoenik ere badago, "eta arrazoi horregatik posible da askok izenik ez ematea". Kortabarriak adierazi du osasun krisiaren testuinguruan euskarak bizi duen egoera "zaugarria" dela, itxialdiak kaltea eragiten diolako hizkuntzari. Horregatik, "momentu zail honetan garrantzitsua da euskararen aldeko

Datorren egubakoitzean hasiko da bigarren Euskaraldia. Debagoieneko herrietako batzordeak buru-belarri ari dira lanean ariketari ekin aurretik. Norbanako gisa izena emateko epea zabalik dago oraindik; azken unerako ez uzteko eskatu dute



Euskaltzaleen Topaguneko Amonarri eta Euskaraldiko koordinatzaile Illaro, Bergarako Seminarixoko ekitaldian. XABI URZELAI

apustua egitea, eta Euskaraldian parte hartzea".

Horretaz gain, batzordekideek gogora ekarri dute izena emateko orduan aukeratzen den rolak ariketa egiteko hartzen den "jokabidea" adierazten dela, "eta ez euskaraz egiteko gaitasuna". Euskaraldian parte hartzeko baldintza da gutxienez euskara ulertzeko gai izatea.

Ariguneak, kaltetuta

400ndik gora entitate edo entitatetako egoitza arituko dira, bestalde, Debagoienean. Barne eta kanpo ariguneak sortu dituzte entitateek, baina osasun krisiaren eraginez jarritako azken neurri murriztaileen eraginez arigune asko "desagertu" egin direla azaldu du Rosa Mondragonek, Aramaioko koordinatzaileak. "Entitateek izuga-

rrizko inplikazioa erakutsi dute, hasieran animo askorekin ikusi genituen, baina egoera honetan asko bertan behera geratuko dira", aitortu du. Itxita dauden ostalaritza-establezimenduetan, esaterako, ezingo dute ariketa aurrera eramane. Halere, azaldu du ariguneetan aritzekoak ziren pertsona horiek norbanako gisa parte hartu ahal izango dutela Euskaraldian.

Egun hauetan ekintza ugari

Euskaraldiaren bueltako ekintza ugari antolatu dituzte datozen egunetara begira. Bergaran, esaterako, Euskaraldiak irauten duen bitartean Hikaldia ere eramango dute aurrera. Hala, hikalagunak bultzatuko dituzte Bergaran; hots, hitanoarekiko prestutasuna erakutsiko duen jendearen figura. "Horrek esan gurako du zenbaitek hitanoa praktikatu dutela", zehaztu du koordinatzaileak. Horretarako, txapa hartzeaz bat *h* letra daraman itsasgarri bat hartu ahal izango dute bergararrek.

Aramaion, bestalde, Euskaraldian parte hartuko duten komertzioei itsasgarriak banatuko dizkiete erakuslehoan jartzeko. Itsasgarri pertsonalizatuak izango direla zehaztu du Mondragonek, "jendeak jakin dezan ariketan parte hartzen ari direla".

Arrasaten ere antzeko zerbait egingo dute. Ibai-arteko saltokietako erakuslehoetan Euskaraldiko logotipoak jarriko dituzte, eta egun bakoitzean, abenduaren 3ra bitartean, erakusleho horietan dragoia ere aurkitu ahal izango da. Logotipoa eta dragoia, biak dituzten erakuslehoei argazkia atera behar zaie eta 688 73 41 49 zenbakira Whatsappez bidali. Argazki gehien bidaltzen dituzten hiru parte-hartzaileek 100 euro jasoko dituzte Ibai-arte-ko erosketa-bonuetan, eta beste 100 euro zozketatuko dituzte parte-hartzaile guztien artean.

IZEN-EMATEA AZKEN UNERAKO EZ UZTEA ESKATU DUTE EUSKARALDIKO BATZORDEKIDEEK

Zaintza alorrean greba deialdia egin dute martitzenerako

11:30ean elkarretaratzea izango da Arrasaten; pandemiak zaintzaren "gabeziak" agerian utzi dituela adierazi dute

M.S. ARRASATE

Greba deitzeko egindako agerraldian, ELA sindikatuak azaldu du pandemiak "agerian" utzi dituela "zaintzaren sistemak gaur egun bizi dituen gabezia" guztiak. "Argi dago pribatiza-

zioaren eta negozioaren mesedetan eraikitako sistema dela, emakumeon bizkar gainean are eta gehiago jartzen duena zaintza lanaren ardura guztia", salatu du Janire Diazek, ELAko ordezkariak.

Horretaz gain, azaldu dute diru publikoarekin finantzatzen dela zaintza, "langileak gero eta gehiago prekarizatuz". Salatu dute langileak nekatuta daudela, adinekoen egoitzetan egoiliar eta langile ugari kutsatu direla eta egoeraren zama langileek dutela: "Aldundiak inprobisatu egin du, ez ditu beharrezko neurriak hartu". Hori horrela, hilaren 17an 11:30ean Arrasateko plazan egingo duten elkarretaratzera deitu dituzte langile zein bailarako herritarrek.



ELAko ordezkariak eta bailarako zenbait langile, atzo goizean. TXOMIN MADINA



Naiara Goia, Arantzazun, laborategiaren egoitza den Gandiaga Topagunearen inguruan. XABI URZELAI

"Esperimentazio aktiboa da gure laborategiaren jardun nagusia"

NAIARA GOIA ARANTZAZUKO GIZARTE BERRIKUNTZA LABORATEGIKO ZUZENDARIA
Lehen pausoak ematen ari da Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategia. Elkarlanaren bitartez, gizartearen etorkizuneko erronkei erantzuna eman nahi die

Karme Uribesalgo OÑATI

Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendari lanetan dihardu Naiara Goiak urriaren 2az geroztik. Ingurumena eta gizartegintza ardatz ditu Arantzazu Gaur fundazioaren patronatuak martxan jarri berri duen proiektuak. Beste hainbat erakundek ere hauspotu dute laborategia.

Zer moduzkoa izan da lehenengo hilabetea?

Hasiera guztiak bezala, intentsua izan da, lan handikoa. Indartsu

eta ilusio handiz hartu ditut lehenengo egunak.

Zer da, zehazki, laborategi hori?

Gizarte berrikuntza laborategiak elkarguneak dira erronka global konplexuen inguruan ikertzeko eta esperimentatzeko. Hainbat

"AUKERA EMANGO DIGU EUSKAL GIZARTEAK DITUEN ERRONKEN INGURUAN HAUSNARTZEKO"

eragileren arteko elkarlana ahalbidetzen du, eta formakuntzak bideratzeko, gizartegintzako eta sozializaziorako topaguneak dira. Gure kasuan, azken helburua da erreferentziako nodo bihurtzea gizarte justuagoa, lehiakorragoa, kohesionatuagoa eta gizatiarragoa lortzeko. Dena Arantzazuren tradizioari helduta. Aukera emango digu euskal gizarteak dituen erronken inguruan hausnartzeko eta esperimentatzeko. Horregatik dauka zentroak izen hori: esperimentazio

tazio aktiboa da gure laborategiaren jardun nagusia.

Etorkizuneko erronkak aipatu dituzu. Zeintzuk dira?

Lau lan ildo hartu ditugu: ongizatea, elkarbizitza, lana eta trantsizio ekologikoa. Denonak dira erronka horiek; edozein erakunde, eragile edo enpresarenak. Erronka globalak dira, baina uste dugu tokian tokiko dimentsio soziala eta ekonomikoa kontuan izanda eman behar zaiela erantzuna.

Zelan egingo duzue hori?

Gure helburuetako bat da herritarren parte hartzea eta inplikazioa bermatzea. Horretarako, parte hartze prozesuak bideratuko ditugu. Kongresuak antolatuko ditugu, baita ideiak partekatze ere. Horrekin oso lotuta dago gure bigarren helburua: saretzea. Elkarlana sortu behar dugu, besteak beste, erakundeen, gizarte eragileen eta enpresa pribatuen artean. Hala ere, gu ez gatoz inor ordezkatzera. Gure lana da ikustea non ditugun sinergiak eta nola eman dezakegun erantzun bateratua.

Nazioartekotzeari ere garrantzi berezia emango diozue.

Kanpotik ekarri nahi dugu ezagutza, eta egiten ari diren dinamikak eta esperientzia aurreratuak ezagutu nahi ditugu. Modu horretara, guretzat erreferentziakoak izan daitezkeen beste laborategi edo zentro batzuekin konektatuko gara. Hemengoak ere izango ditugu kontuan, baina gure eredu kanpora eramateko ere balioko du nazioartekotze horrek. Beste lan ildo garrantzitsu bat ikerketarena da. Horretarako, unibertsitateek eginkizun garrantzitsuak izango dute. Ikerketa ausartak, sendoak eta berritzaileak behar ditugu erronka konplexuen aurrean.

Ezjakintasun handiko garaia da. Eragina du zuen lanean, ezta?

Ziurgabetasun handiko momentuak bizi ditugu. Pandemiak azaleratu egin du erantzun azkarrak eman beharra. Erronkak tamaina handikoak eta konplexuak dira. Horri gehitu behar zaio ez dakigula nola aurre egin.

"GURE BAILARAN OSO EKOSISTEMA ABERATSA DAUKAGU; IA BAKARRA MUNDUAN"

Ezjakintasun horretatik lankidetzatza da oinarriko elementu bat; lan individualarekin ezin diegu bakarrik erronka horiei aurre egin.

Arantzazun egotea berezia izango da, ezta? Eta bere garrantzia ere izango du.

Espazioak indarra dauka, baita balio sinboliko handia ere. Pertsona erdigunean jartzen du. Badauka patxada, badauka bilaketaren zentzu bat. Pandemiak espazioaren kontua erabat erlatibizatu du. Oreka bati eutsi behar diogu: gauza batzuetarako ez dago Arantzazun egoteko beharrik, baina beste batzuetarako espazioak badu garrantzia. Adibidez, jende anitza bildu nahi duzunean elkarrekin sortzeko, fisikoki egoteak badauka bere garrantzia. Jendea erakartzeko ere interesgarria da, eta Arantzazuk beti erakarri du sentimenduzko ezberdinetako jendea.

Zein da Debagoienaren egoera berrikuntzari dagokionez?

Gure bailaran oso ekosistema aberatsa daukagu; ia bakarra munduan. Kooperatiba sare handia daukagu. Horrez gain, puntakoak diren enpresak ditugu, lehiakorrak mundu mailan, eta unibertsitatea ere badaukagu. Gizarte berrikuntzari dagokionez, martxan jarri da aitzindaria den ekimen bat: Debagoiena 2030. Orain arte komentatu duguna bilatzen du: etorkizuneko erronka konplexuei erantzun kolektiboa ematea.

Nola ikusten dituzu datozen hilabeteak?

Lehenengo hilabetea izan den bezala, oso intentsuak izango dira datozenak ere. Erronka ugari garaia izango dela uste dut, lan karga handikoa, baina ilusioz eta motibazioz egingo diot aurre.

Aho batez onartua

Arantzazu Gaur Fundazioaren patronatuak adostasun zabalarekin onartu du laborategia sortzea. Horren parte dira Gipuzkoako Fundazioa, Oñatiko Udala, Mondragon Corporation, Kutxa Fundazioa eta Arantzazuko Frantziskotar Probintzia.



ZABALIK

RAFA MUNGIA

'Datastrofearen' atarian

Hitz jokoak asmatzen abila da urteetan errepedeak laranja kolorez tindatu dituen telefono konpainia; nik, ordea, gertuago ditut Patxiren garaiak –Patxi!!!–. Nabardura hau aipatuta, gatozen, labor bada ere, datuen inguruan solas egitera, edo datuok aztertzer esan beharko nuke? Aspaldian dudak sentsazioa areagotu egin zait azken hilabeteetan bizi dugun egoerarekin; datu, zenbaki, estatistika, grafiko, tasa eta enparauekin. Datuak argigarriak direnean, edozein zalantza edo interpretazio saihesteko modurik egokiena dirudite; zenbakiak gordinak direnean, jai daukate asmo txarretan gustura dabilzanak. Hala beharko luke, behintzat, hainbeste jokatzeko dugun gaitasun guztiok helburu bera bagenu, hor dago eztabaidaren mamia.

Azaletik bada ere, azter dezagun martxotik gaur arte daramagun datu

ESTOLDAK DENA IRENSTEKO ARAZOAK DITUENEAN BEZALA EGIN DU GAINEZKA GIZARTEAK

mozkorraldia eta nola jarri dizkiguten mahai gainean, egunero, Eguberrietako menu oparo bat izango balitz bezala, kutsatuen tasak, R0 indizea, ZIUen okupazio maila, eta abar.

Estoldak dena

irensteko arazoak dituen bezala egin du gainezka gizarteak; nola ez du egingo, ba, erakunde ezberdinetatik, eta nahiz eta iturri beretik edan, datu kontraesankorrek zabaldu direnean? Asko dugu ikasteko pandemia amaitzen denerako, amaituko delako berandu baino lehen. Zalantza sortzen dizkit, ordea, utziko dizkigun ikasgaietatik informazioa bahetzeko –ze zaila den ahoskatzea– erremintak gizarteratuko ote ditugun, eta, haratago joanda, komeni zaien askori ulergarriago egitea datuok.

Tamalez, gertatukoak sinesgaitzak hauspotu ditu, bide eman diegu konspirazio teoriei eta nahasmena eta mesfidantza zabaldu dugu gizartearen.

Merke dago negazionista izatea, eta gure esku argudioak kentzea. Ni, aukeran, *megazionista* –mega gehiago–, datu-entsalada mokadu batez jateko.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Hitzarmen kolektiboaren garrantzia

F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Berriki sinatu dute Gipuzkoan metaleko hitzarmen kolektiboa. Akordio historikotzat jo da berau. Ez da gutxiagorako. Ia hamar urte igaro dira esparru horretan azken hitzarmen kolektiboa sinatu zenetik. Hark bezala, oraingoak ere eragingarritasun orokorra izango du; hots, sektore horretan diharduten langile eta enpresaburu guztiei aplikatuko zaie.

Sindikatuak eta enpresaburuaren erakundeek badute funtsezko eginkizuna

halako hitzarmenak negoziatu eta adostean. Areago, gizarteak galdatu behar die akordioetara heldzea. Bada, hitzarmen kolektiboek balio dute autogestiotik lan-harremanen arauketa uenean uneko errealitateara egokitzeko. Agian, horregatik ezarri zen 2012ko lan-erreformaren erregela nagusi gisa, urtebeteko epea, behin hitzarmen kolektiboa salatuta, hitzarmen berria adosteko. Agian, horregatik ezarri zen orduan zenbait gaitan, ekonomia- teknika-, antolaketa- eta ekoizpen- arazoietan oinarrituta, indarreko hitzarmen kolektiboa ez aplikatzeko aukera. Antza, sindikatuen eta

enpresaburuaren erakundearen ardura gehiegi konfiatu zen. Baina, tamalez, errealitateak erakusten digu sarri ez direla gai gizarteari begira duten ardura gauzatzeko. Egin-eginean ere, bi-biek botere publikoekin batera jardun behar dute estatu sozial eta demokratikoaren elkarrekintzan.

Azken buruan, enpresek euren baitan biltzen badituzte kapital ekonomikoa eta giza kapitala, bi-bien arteko orekari eutsiz, helburua izan behar da enpresak eta lan-kontratuak irauaraztea. Horixe politika sozialik onena.

Post gehiago 9. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkarteak
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Gazteak dira etorkizuna eta euskara gordetzeko gakoa"

RENEE HARBUSTAN ZUBEROAKO IKASTOLEN LAGUNTZAILEA

Jone Olabarria ARRASATE
Zuberoako ikastolei lagundu eta bertako ekoizpenak ezagutzera emateko asmoz, eskuragarri daude, beste behin, Zuberoako produktuekin egindako otarreak. Ekimenak aurten duen "garrantzi berezia" azpimarratu eta euskarak bertan bizi duen egoeraren berri eman du Arrasaten bizi den Renee Harbustan barkoxtarrak.

2003an hasi zenuten ekimen hau zein asmorekin abiatu zen?
Iparraldeko kasuan, euskarak eta ikastolek ez dute babes ofizialik, irakasleen lana baino ez du ordaintzen. Gobernuak, beste guztia gurasoen kontura doa. Finantzaketa-iturri garrantzitsua dira, materiala erosi edo ikastolako zerbitzuei aurre egin ahal izateko.

Aurten, diru-iturri bereziki garrantzitsua izango da otarreetatik lortutakoa...
Larria da egoera aurten diru kontuei dagokionez Zuberoako



Renee Harbustan, Arrasaten bizi den zuberotarra. J.O.

ikastoletan. Otarreetatik lortutako laguntza izango da, hain zuzen ere, diru iturri bakarra. Aurreko urteetan, pastoralak, maskaradak eta bestelako iturri batzuk ere izan dira.

Zein da une honetan euskarak bizi duen egoera Zuberoan?
Euskararen erabileraren datuak ez dira batere onak, bizirik irauteko nahiko zailtasun ditu. Gazteek ez dute askorik erabiltzen

egunerokoan, eta ikastolek egiten duten lana funtsezkoa da. Gazteak dira etorkizuna eta euskara Zuberoan gordetzeko gakoa.

Euskararen erabilerari dagokionez, azken urteetako tendentzia zein izan da?
Nahiz eta askok euskaraz jakin, gazteek, orokorrean, frantsesez egiten dute. Asko galdu da gure belaunalditik gaur egungo gazteengana; lehen, dena euskaraz egiten genuen. Gazteak ikusten ditut eta pentsatzen dut: "Zerbait ari zarete galtzen, ez al zarete konturatzen altxor bat galtzen ari zaretela?". Hizkuntza bat galtzerik ezin dugu onartu.

Nolako lana egiten da Zuberoako ikastolen bueltan?
Lan izugarria egiten dute; lehen hemene ikastolek funtzionatzen zuten bezala egiten da lan oraindik ere Zuberoan, militantzia handikoa da. Ezin da hango eta hemengo egoera alderatu, hango lanak meritu izugarria du. Zuberoan 14.000 biztanle baino gutxiago dira egun, eta, azken ikerketen arabera, 3.000 inguruk egiten dute egunerokoan euskaraz; gehienak adineko pertsonak, gainera, nahiz eta gazte gehiagok euskara ulertzen duten. Egoera horretan, funtsezkoa da euskara

gordetzea. Zorionez, azken urteetan gero eta ume gehiago daude ikastoletan Zuberoan.

COVID-19ak baldintzatuta, baina hasiak zarete salmentarekin...
Abenduaren 10ean eta 11n aurreikusten dugu banaketa egitea, baina COVID-19ak eragozten badu aldaketaren bat egon daiteke. Hala balitz, zuzenean produktuak erosi dituen pertsonarekin harremanetan jarriko dira antolakuntzatik.

Zer aukera dago aurten?
Hiru saski ezberdin daude: Ahizki, Irati eta Orhi saskiak; 40, 55 eta 70 euroko prezioa dute, hurrenez hurren. Guztiak Zuberoako produktuekin egindakoak dira, ikastolei laguntza eman soilik ez, bertako produktu eta ekoizpenak ezagutzera emateko. Iaz, 1.600 saski saldu eta 17.000 euroko dirulaguntza eskuratu zuten ikastolek.

Nola egin daiteke eskaera eta Debagoienean non jaso daiteke?
Eskaerak Ikaskoli.eus webgunearen bitartez egin daitezke eta bailaran ere badira hainbat banaketa puntu: Arrasateren kasuan, AEDren lokalean eta Ereindajan dendan jaso daitezke saskiak; Bergaran, Jardun euskara elkartearen egoitzan; eta Oñatin, Txantxiku ikastolan.

ITURRI ONETIK

Ez kirol saririk, ezta San Silvestre probarik ere

Kirol hitzordu bi izaten dira abenduaren amaieran Oñatin: herriko kirol sarien ekitaldia, udaletxean, eta San Silvestre herri lasterketa, herrigunean. Aurten, gauzak asko aldatzen ez badira, ez da ez bata ez bestea egingo. Batean, herriko kirolarien eta kirol taldeen artean urteroko kirol sariak banatzen dituzte, Gabonen atarian. Bestean, herri barruan izaten den zazpi bat kilometroko ibilbideari ematen diote itzulia herriarrek, urte zaharrari agur eta berriari kaixo esateko.

ALBISTE IZAN ZEN



2010-11-07

Joxepa Arregiri omenaldia Etxerategen

Etxerat presoaren aldeko elkarteak Batzar Nazionala egin zuen, 10. urteurrenean, Arrasateko Amaia antzokian. 700 bat lagun elkartu ziren eta aretoa goraino bete zen. Ondoren, plazan elkartu ziren ehunka lagun. Euskal presoaren eskubideak aldarrikatu zituzten eta omenaldia egin zioten Joxepa Arregi mondragoetarrari, hilabete batzuk lehenago hil zen Etxerategen presidente ohi eta Jesus Mari Zabarte ETako preso izandakoaren amari.

HAU BE BADOGU!

Memoriaren Eguna 'trending topic' izan da

Twitterreko erabiltzaile euskaldunen artean berbagai izan da Memoriaren Eguna:

@ajuriagera: "Bere Historia ezagutzen ez duen herria huraxe errepikatzen kondanatuta dago".

@iaberasturi: "Gaurkoan aldarrikapen garbia: biktima guztiei zor diegun ezinbesteko memoria, eraiki nahi dugun etorkizuneko berme onena".

@MJauregiLasa: "Gaur, biktima guztien memoriaren eguna. Giza eskubideak, denontzat. Begiratu dezagun atzera jakiteko, ezagutzeko, eta horrek balio dezala ez ahazteko, baina nagusiki, ez errepikatze".



D2030: IRITZIA

IÑAKI ETXEBESTE ETA MARKEL ARRIOLABENGOA / ERREZ KOOPERATIBA

'Basojakintsuak' eta basogintza akademikoa Euskal Herrian

Udazkenak protagonismo berezia ematen die basoei. Izan negu gorria hasi baino lehen, kolore gorritz apaintzen direlako inguruak, izan onddo eta perretxikozaleek otzarak betetzeko aukera aparta izaten dutelako, edo izan hego haizeak xaxatuta hosto zaharrak erantziz zuhaitzak izaki metaforiko bikainak bilakatzen direlako.

Badirudi, baina, aurtengo udazkenean basoa aparteko protagonismoa hartzen ari dela, Euskal Herri atlantikoaren azalera handi bat estaltzen duten baso landaketak bihurtu direlako mintzagai. Alde batetik, pinuen gaitzaz, kudeaketa-zailtasunez edota espezie jakin batzuk ekoiztearen hautuak dakarren ingurumen gainkargaz hitz egiten da. Horren aurrean, kudeaketa bateratua edo bestelako basogintza kudeaketa eredu baterako trantsizioa ere izan da mintzagai. Ezin zitekeen beste modu batera izan, eta aspaldiko hautsak beste behin ere harrotu dira. Oldartzetako horietako baten, inguruan *basojakintsu* gehiegi ez ote dagoen aldarrikatu zuen politikari batek... Hala ote da?

Etorkizunari aurre hartuz

Gustuko izan ala ez, esperientzia gutxietsi gabe, basogintzan ere jakintza neurtu eta batzeko modu orokortuena argitalpen zientifikoena da, eta horrek akademiara begira jartzen gaitu, ezinbestean.

Beste hainbat lan eta jakintza eremutan bezala, basogintzak ere ikerketa ezinbesteko oinarri duela iritzi dugu, eta aldiro berrikusi behar izaten ditugu ikerketa lanak, gure zerbitzuak modurik onenean eskaini ahal izateko. Horrela iritsi gara bestelako basogintza eredu baten aldeko apustua egitera. Izan ere,

nekez aurki daiteke ikerketarik edo ikerketa talderik, gaur egun Euskal Herri atlantikoaren antzeko eremu baten gailentzen den basogintza eredu jasangarria dela bermatzen duenik. Are gehiago, kontuan hartuta egungo testuinguru globalak ziurgabetasunez betetzen duela etorkizunik hurbilena ere, eta, zer esanik ez, epe ertain edo luzera begira jarriz gero. Klima larrialdiari bakarrik erreparatu, datozen 40 urteetan jasango dugun berokuntzak nekez aurreikusitu daitezkeen eraginak izango ditu gure basoetan. Ikerketa desberdinek oso ziurtzat iragartzen dituzte haizete larriak, izurrite edo gaixotasun berriak, edo muturreko eguraldia jasateko aukerak. Egokitzapen basogintza edo basogintza adaptatiboa sustatu beharra dagoela aho batez onartu du basogintzari lotutako akademiak. Aniztasunik ez duten ustiaketa ereduak nekez egokitu daitezke beren kabuz, eta, hala, baso ekosistemetan zer-nolako esku-hartze maila izan behar dugun da gai garrantzitsuenetarikoa bat. Bai, behintzat, etorkizunean gaur egun ekosistema hauetatik jasotzen ditugun onura eta zerbitzuak modu bertsuan jasotzen jarraitu nahi baldin badugu.

Intsinis pinu landaketak nagusi dira oraindik ere Gipuzkoako eta Bizkaiko paisaian, azken urteetan gainbehera handia izan duen arren. Hala, azken 20 urteetan pinuak jasan izan dituen krisialdi desberdinek, azkena banden gaitzak sortutakoa,

NEKEZ AURKI DAITEKE IKERKETARIK GURE BASOGINTZA EREDUA JASANGARRIA DELA BERMATZEN DUENIK



GOIENA

ekoizpen eredu honek duen zaugarritasunaren eredu oso garbia azaltzen digute. Berezko aniztasun genetikorik gabe, ikerlarien esku geratu da erronka desberdinen aurrean pinuen egokitzeko ahalmena. Erraz ulertu daiteke, adibidez, banden gaitzari erresistenteak diren landareak ekoiztea prozesu luzea dela. Luzeegia. Horrelako krisialdien aurrean basogintzaren establishmentak ordezeko espezieen aldeko apustua egin izan du globalki, kudeaketa eredu zalantzan jarri gabe.

Kudeaketa da giltza

Izan ere, kudeaketa eredu dago giltza. Egurra edo zelulosa ekoizteko ezagutzen dugun modu hau nekazaritzari oso lotuta dago. Sistema osoa sinplifikatuz, adin eta espezie bakarrek landaketek efizientzia eta errentagarritasuna lehenesten

PINUAK JASANDAKO KRISIALDIEK EKOIZPEN EREDUAREN ZAUGARRITASUNA AZALERATU DUTE

dute, esku-hartze maila muturreraino eramanaz. Landatu, ongarritu, kompetentzia ezabatu, dena soilduz uzta batu eta lurra prestatu. Nekazaritza intentsiboarekin gertatzen den antzera, lan hauek sortzen dituzten desoreken zerrenda oso luzea da. Gainera, hilabetetan edo astetan neurtzen diren nekazaritza zikloekin alderatuz, hazkuntza azkarreneko zuhaitz landaketek ere denbora asko behar dute hazteko. Eta, beraz, aurreikusita ez dagoen zerbait gertatzeko aukera ere asko handitzen da. Eskala espaziala ere nabarmen handitzen da basoetara begira jartzen garenean. Ezaugarri hauek kontuan hartuta, baso landatu bat denboran egonkor eta ekoizpen jasangarria bermatuz mantentzea oso zaila da. Beste modu batera esanda, geroz eta argiago dugu baso ekosistemak sistema

BESTELAKO BASOGINTZA EREDU PROPIO BAT GARATZEN HASI BEHAR DUGU

komplexuak direla. Horrela, espezieen arteko sare eta prozesuek modu sinplean aurreikusitu ezin daitezkeen jokabideak azalarazi ahal dituzte egoeraren arabera. Adibide bat: temperaturak igo ahala, pagoak garaieran gora dauden eremuetara zabaltzen ari dira Europako eremu menditsu askotan. Ereku horiek kolonizatzerakoan, beste zuhaitz espezie batzuekin topo egiten badu pagoak, bere hazkuntza asko hobetzen du. Honek aurreikusituz ez zen jokabide bat azaleratu du, ikerlarietako espero zutena irauliz.

Konplexutasun hau kudeatzeko basojakintzarik ez da garatu Euskal Herrian basogintzari lotutako ikerketa taldeetan. Nahiz eta bertan ekoiztu diren lanek asko laguntzen diguten etorkizunera begira erabakiak hartzen, argitaratutako lanek nagusiki isurialde atlantikoko baso landatuen inguruko ikerketak jorratu izan dituzte. Ez daukagu eskura, beraz, nahikoa ikerketa lan gure eremuan beste kudeaketa eredurik aztertzen duenik, nahiz eta beste basogintza eredu hauek lantzen diren. Euskal Herritik kanpo, aldiz, lan handia egin da norabide honetan, eta argitalpen zein esperientzia horiek guztiak bidelagun ezin hobekak ditugu, ez bairrik gabe, bestelako basogintza eredu propio bat garatzen hasteko.

Hasierako metaforari eutsiz, badirudi basogintza eredu hau ere bere udazkenean iritsi dela. Orain, negua dugu aurretik, hemen eta hango hostoetan jasotakoa asimilatuz zuhaitzen sustrai berriak ongarritu eta errotzeko garaia. Espero dezagun naturak, ikerketak eta esperientziak erakutsi digun guztiak udaberri oparoago bat sortzen lagunduko digula; bestelako udaberri bat.

GUTUNAK

Tabernariak eta ostalariak, momentu hauetan ere, Euskaraldian presente**JOKIN ETXEBARRIA**

ARRASATEKO EUSKARALDIKO HERRI
BATZORDEAREN IZENEAN
ARRASATE

Hemezortzi taberna eta jatetxeak erakutsi zuten Arrasaten arigunereren bat sortzeko konpromisoa.

Ixtera behartuak, arigune hauek funtzionatzea zaila dela badakigu, baina, hala ere, herriko Euskaraldian oso presente izango ditugula adierazi nahi dugu letra hauen bitartez.

COVID-19ak bizitza aztoratu digu guztiz, eta gure egunerokotasuna hankaz gora jarri. Oso ohikoa izan dugu, orain arte, taberna bateko mahai batean edo terrazan

batekin eta besterekin elkartu eta txor-txor ibiltzea kafe baten edo garagardo baten bueltan. Oso ohikoa izan da ere, lanean jo eta su ibili eta gero, jatetxera bazkari goxo bat jatera joatea, berriz ere lanera bueltatu aurretik. Pandemiak, baina, ez du indarra galtzeko asmorik erakutsi, eta, egoerari aurre egiteko hartu diren azken neurriak direla eta, egunerokoan ohikotzat jotzen genituen gauza asko eta asko, egun batetik bestera, gure errutinetatik kanpo gelditu dira. Ohiturei bakarrik eragingo balie... Okerrena da familia askoren diru-iturriak ere kolokan gelditu direla, tamalez.

Arrasaten, hemezortzi taberna eta jatetxe dira euskararen alde egin nahi,

hizkuntza ohiturei astindu bat eman gura, eta Euskaraldiaren bigarren edizio honetan ariguneak sortzeko konpromisoa hartu zutenak. Orain, baina, egoera honetan, oso zaila izango da beraiantzat azaroaren 20tik abenduaren 4ra egin beharreko ariketa taxuz burutzea.

Arrasateko Euskaralditik gure babes osoa eskaini nahi diegu herriko tabernari eta ostalari guztiei, jakin badakigulako momentu gogor hauetan ere euskara *gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan* egiteko prest egongo direla. Ekaitzaren ondoren etorri ohi da barealdia, eta orduan ere Euskaraldia bertan izango da zuekin batera, euskara ere gure eguneroko ohitura bihurtzen saiatzeko.

HANDIK ETA HEMENDIK

Lodiak**ONINTZA ENBEITA**

HTTPS://LABUR.EUS/XSIA7
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Jaten dugunak egiten gaituela esaten da.

Kontua da jaten dugun horretatik zerk eta zer egiten gaituen.

Izan ere, esaldi hori loditasunaz hitz egiteko erabiltzen da askotan, baina jaten dugunak ez gaitu loditu bakarrik egiten.

Zerk eta nolako egiten gaituen esaten hasita, esan dezagun jaten ez dugunak ere egiten gaituela; baina jaten duguna erosten dugun lekuak ere.

Janaria jan beharrean, haren ordezkotzat bitaminak eta proteinak pastilletan edo zukuetan hartzeak asko esaten du guri buruz.

Azukrea, uhaza biologikoa, haragia, tomate botikadunak, munduko beste puntatik ekarritako soja ekologikoa, arraina, piper hidrophonikoak,

hanburgesa prefabrikatuak, gominolak...

Aukera zabala dago tripa betetzeko, eta guztiak esaten du zerbait guri buruz.

Kontua da gure gizarteak mezu bakarria hartzen duela: argal bazaude, osasuntsu zaude; lodi bazaude, Donutsak jatea gustatzen zaizu.

Eta hori azterketa sinpleegia da.

Loditasuna beti ez da egoten asko eta edozelan jateari lotuta, eta argaltasuna beti ez da osasuntsua.

Gaur, obesitatearen kontrako nazioarteko eguna da.

Komunikabideek esango dituzten zenbait gauza ez entzutearren, ez nintzateke ohetik atera ere egingo.

Baina denok daukagu munduan leku bat okupatzeko eskubidea; baina arauak dioen baino zentimetro gehiago okupatzen ditugunok ere.

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna • Eskertza-gutuna • Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna • Aldarrikapen-gutuna • Kexa-gutuna

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA



Ferixalekuko aparkalekua doakoa izango da ordenantza indarrean jarritakoan, eta Araba etorbidekoa ere bai. XABI GOROSTIDI

TAOren tarifak eta ordenantza onartu dituzte, oposizioaren babes barik

Aurreko eguenean egindako osoko bilkuran, TAO sistema arautzen duen ordenantza eta dagozkion tarifak onartu zituen udalbatzak, Udal Gobernuaren aldeko botoekin eta EH Bilduren eta Elkarrekin Arrasateren aurkakoeekin. Aldaketa batzuk egongo dira

Eneko Azurmendi ARRASATE

Osoko bilkuran onartu ostean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute ordenantza, hilabetez interesdunek bidezkoztat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten, eta, halakorik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da. Hala, ondo bidean, 2021ko uztailean lein jarriko da martxan TAO sistema berria (OTA), Udal Gobernuak azaldu duenez.

Lau tarifa mota egongo dira

Gelmako biribilgunetik hasi eta San Andreserainoko aparkalekuetan ezarriko dute TAO sistema berria, ospitalean eta Zalduspe gunean izan ezik. Hala, Aldain, Txaetan eta Zerrajeran, esaterako, TAO jarriko dute. Era berean, herrigunetik kanpo dauden Musakola, Erguin, Oberreka, Makatzena, Santa Ma-

rina eta Santa Teresa, besteak beste, salbuetsita geratuko dira.

Eguenean onartutako ordenantzaren arabera, hasiera batean planteatutakoak baino merkeagoak izango dira TAO sistemaren tarifak, eta lau tarifa ezberdin egongo dira.

Lehenik, TAO Express izeneko, "gestio azkarrak" egiteko erabili ahal izango da; prezioari dagokionez, hamabost minutu 0,20 euro ordaindu beharko da eta 30 minutu, 0,40 euro. Arrasaten erroldatuta daudeneantzat merkeagoa izango da; hain zuzen, hamabost minutu doan eta 30 minutu 0,20 euro.

Bigarrenik, TAO Merke tarifa doakoa izango da ordu eta erdiz eta bi gunetan aplikatuko da tarifa hori: Ferixalekuko aparkalekuan -Amaia antzokiaren albokoa- eta Araba etorbideko aparkalekuetan.

TAO Arrunta izango da beste tarifetako bat. Kasu horretan, hamabost minutuz aparkatu ahal izango da, gutxienez, eta hiru orduz, gehienez. Ordubete aparkatuta, esaterako, 0,80 euro ordaindu beharko da eta Arrasaten erroldatuta daudenez, 0,60 euro. Erroldatuek, gainera, hamabost minutu doan aparkatu ahal izango dute (Alboko orriko taulan daude tarifak zehaztuta).

Azkenik, TAO Luzea egongo da, eta "Arrasaten denbora luzez aparkatu nahi dutenentzat". Hala, goiz osoa aparkatuta edukitzeagatik, 09:00etatik 13:00etara, 1,50 euro ordaindu beharko da; 16:00etatik 20:00etara aparkatzeagatik, 1,50 euro; egun osoko tarifa 3 euro izango da.

Denbora mugak ez errespetatzeagatik, halaber, isunak jarriko dituzte: arau-hauste bakoitza, 10,20 euro, hain zuzen. Era be-

rean, jarraian jar daitezkeen isun kopuru maximoa lauokoa izango da.

Egoiliarrendako txartela

Egoiliar txartela ere egongo da, eta bi txartel atera ahal izango dituzte egoiliarrek. Lehen ibilgailuarentzako prezioa urteko 35 euro izango da eta bigarren ibilgailuarentzako, aldiz, urteko 75 euro. "Alde zaharrean bizi direnentzat, bertara sartzeko dituzten eragozpenak kontuan hartuta, lehen ibilgailuarentzat prezioa 30 euro izango da eta bigarrenarentzat, 60 euro".

Periferiako aparkalekuak

Bestalde, Arrasate kanpoaldean aparkatzeko Arruena egokituko duela aurreratu du Udal Gobernuak, eta hirugarren bus linea zuzen bat jarriko duela, "tarifa merke batekin, zentrorra autobus publikoan sartu ahal izateko". Lotura-autobus horiek zuzenak izango direla azaldu du Udalak, eta "etengabe" ibilbidea egiten ibiliko direla.

Horrez gain, "bizikletaren erabilera sustatzeko", bidegorri sarea osatzen jarraituko duela dio Udal Gobernuak. "Urtarrilean hasiko dira *Ekobulebar*-aren obrak, zeinak Araba etorbideko bidegorriari jarraipena emango dion Etxe Txikien esparruraino".

490 ekarpen inguru jaso dituzte

Sistema berriari forma eman ahal izateko parte-hartze prozesuan 490 ekarpen inguru jaso ditu Udalak, eta hainbat elementu hartu dituzte kontuan, Udal Gobernuaren esanetan; besteak beste, egungo auto trafikoen fluxua jaisteko ekimenak bultzatzea; mugikortasun ohitura berriak sustatzea; herriko sarreteran parking-guneak ezartzea; bus linea berriak jartzea, zuzenak eta barne tarifa baxuarekin; bidegorrien sarea osatzea; eta bizikletaren ohitura sustatzea eta TAO herri osoan ez ezartzea.

Horretarako, alderdi politikoekin lanketa bideratu duela gaineratu du.

Proposamenak aintzat hartuta

Bestalde, Udal Gobernuak nabarmendu duenez, EH Bilduren hiru proposamen barneratu dituzte ordenantzaren: isun kopuru maximoa jaistea; alkateak TAO aplikatzen den eremua handitu edo txikitzeo edukiko duen eskumena %10etik %5era

murriztea eta tarifetan bigarren ibilgailuarentzat bertakoentzako txartela ez merkatzea.

EH Bilduk azpimarratu du, ordea, onartutakoak ez direla aipatutako hiru horiek bakarrik: "Eremua Gelma eta Aldaira handitzea eskatu genuen. Herriko bi muturretan disuasio-aparkalekuak ezartzea eskatu genuen, San Josepe harrobia baliatzea aztertuz. Eta autobus azkarrari dagokionez, linea berri eta zuzena eskatu genuen".

Azaldu du, gainera, beste batzuk bidean gelditu direla: "Bidegorri sarea atontzea; hasieran, behintzat, sistema doan izatea; baserri auzoetako bizilagunentzat irtenbide bat topatzea; eta piboteen orduak berraztertzea".

"Bidegorriak TAOren aurretik"

Koalizio abertzaleak nabarmendu du TAO sistemaren eremua handitzearen aldekoak direla, "oinez edo bizikletan egindako desplazamendu aktiboak sustatzen eta kutsadura jaisten lagunduko duelako". Aldarrikatu du, halaber, eurak hasi zirela sistema ezartzen, duela sei urte. "Baina TAO plan handiago baten atal bat da, Mugikortasun Planaren atal bat, hain zuzen, eta beste ekintza sorta batekin batera landu behar zela uste dugu. Guretako onartezina da TAO ezarri gura izatea herritarrendako ganorazko bidegorri sare bat atundurik izan gabe edota, gutxienez, horretarako plangintza bat aurkeztu gabe".

Modu berean, perspektiba eta anbizio falta egotzi dio Udal Gobernuari. "Etorrizuneko Mondragoe marrazten lagunduko ligukeen Mugikortasun Plan bati buruz hitz egitea gustatuko litzaiguke, udal agintaldi bakarreko ikuspegitik harago argi luzeak isiotuta behingoz".

Zera erantzun du Gobernuak: "Herritarrei proposamena helarazi diegu, postontzietara, bileran informatiboen bitartez, eta abar. Ostean, prozesu parte-hartzaile bat egin dugu, eta, herritarren eskariak ikusita, hasierako proposamena birmoldatu dugu. Ostean, berriz entzun

**LAU TARIFA MOTA
EDUKIKO DITU TAO
SISTEMAK: EXPRESS,
MERKEA, ARRUNTA
ETA LUZEA**

Lau tarifa edukiko ditu TAO sistema berriak

APARKALDIEN TARIFAK

1 Tarifa EXPRESS			2 Tarifa ARRUNTA		3 Tarifa ALDI LUZEKOA			
	LEHEN	ORAIN	LEHEN	ORAIN	LEHEN	ORAIN		
15 min.	0,20 €	0,20 €	15 min.	0,20 €	0,20 €	Goiza 9:00-13:30:	2,00 €	1,50 €
30 min.	0,40 €	0,40 €	30 min.	0,40 €	0,40 €	Arratsaldea 16:00-20:00:	2,00 €	1,50 €
			60 min.	0,90 €	0,80 €	Eguna 9:00-20:00:	4,00 €	3,00 €
			90 min.	1,35 €	1,20 €			
			120 min.	1,95 €	1,60 €			
			150 min.	2,75 €	2,00 €			
			180 min.	4,45 €	2,40 €			

EGOILIAR TXARTELAK

	ARRUNTA		BEREZIA Gune historikoko egoiliarrentzat hobaria	
	LEHEN	ORAIN	LEHEN	ORAIN
Lehena	50,00 €/urteko	35,00 €/urteko	40,00 €/urteko	30,00 €/urteko
Bigarrena	75,00 €/urteko	75,00 €/urteko	60,00 €/urteko	60,00 €/urteko

OHARRA: LAUGARREN TARIFA MERKE IZENEOA DA, ORDU ETA ERDIRA ARTE DOAKOA ETA HORTIK AUERRERA ORDAINPEKOA. ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

ditugu herritarrek, eta baita zuen proposamenak ere. EH Bilduk egindako hiru eskari onartu ditugu".

Zerbitzu publikoaren alde

EH Bilduk azpimarratu du zerbitzua "azpikontratatzearren" aurka daudela. "Ziurrenik, zerbitzu publikoa izanda, Udalak ez luke askorik aurreztuko, baina langileen lan baldintzak nabarmen hobetuko lirateke, eta hori izan beharko litzateke garrantzizkoena", diote. "Guk, duela sei urte, martxan jarri genuen TAOren proba pilotuan, argi uzten genuen publikoak izango zirela aurrera begira sortuko ziren lanpostuak. Eta ez hori bakarrik: TAO sistema guztiz desberdin bat irudikatzen genuen. Ez zen diru-biltzailea, tarifa bigunak zituen, eta askotariko kolektiboekin partekatu eta kontrastatu genuen".

Elkarrekin Arrasate ere kontra

Hiru arrazoi nabarmendu ditu Elkarrekin Arrasatek ordenantzari aurka egiteko. "Batetik, pandemia egoera honetan, euskal gizartea osasun, ekonomia eta krisi sozialean murgildurik dagoela, ez da testuinguru apro-

posa horrelako aldaketak herritarrei inposatzeko. Askok lehentasun larriagoak daude. Bestetik, TAO zerbitzua enpresa pribatuek kudeatzea erabaki du Udal Gobernuak, ondasun publikoa are gehiago pribatizatuz. Eta, azkenik, Biteri eta Laubide aparkalekuentzako erabilera ikuspegi bat ez duen mugikortasun politikak beti izango ditu hanka motzak".

Bestalde, tasak ezberdinak izatea "atzerakoia" dela diote. "Herritarren gaitasun ekonomiko ezberdinak, klase soziala,

kontuan hartzen ez duen eredu fiskal bat eredu atzerakoia da. Gehien dutenei mesede egiten die gutxien dutenen kontura. Hau kontuan hartu gabe ezin da sozialki justua den finantzaketa bat lortu, eta guk trinkotasunez egingo dugu sozialki bideazkoa den eredu baten alde eta proposatutako eredu atzerakoien aurka".

Azkenik, "herriko aparkamendu arazoak" ikusita, Laubide eta Biteriko aparkaleku "erraldioak alferrik galduta egotea guztiz zentzugabea" dela diote.

Emakume Txokoa ere eztabaidagai

Osoko bilkurako azken puntua EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek azaroaren 25aren harira jarritako mozioa izan zen, baina ez zuen aurrera egin, Gobernuak aurka botatuta. Oposizioko bi alderdiek 21 puntuko mozioa aurkeztu zuten, eta, nagusiki, pandemia garaian emakumeen aurkako erasoek okerrera egin dutela azaltzen zuten mozioan. Hainbat eskaera egin zizkieten Gobernuari; besteak beste, COVID-19aren eraginak aztertzea eta horren aurkako neurriak hartzea; 2021eko aurrekontuetan berdintasun Sailean murrizketarik ez egotea eta genero ikuspegia aintzat hartzea; indarkeriaren behatoki bat eratzea; gizonei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak; eta Emakume Txokoaren lekualdatzea (*Goiena.eus* webgunean dago mozioa osorik).

Joana Sanchez sozialistak adierazi zuen Eudelen testu bat eraman zuela batzordera, azaroaren 25erako denon onarpena izango zuen adierazpen instituzional bat lantzeko. Emakume Txokoaren lekualdatzeari buruz, bestalde, kokaleku berriak aztertzen dabilzala azpimarratu zuen, eta Uarkape, Monterron eta Elmako eraikina aipatu zituen aukera moduan.

Azkenik, Gipuzkoako Taxilarien Elkartearen eskaerari erantzunez, 2021erako taxi zerbitzuaren hiri tarifak ez igotzea onartu zuen udalbatzak, aho batez. Hala, 2020koak mantenduko dira.

ONDO BIDEAN, 2021EKO BIGARREN SEIHILEKOAN JARRIKO DUTE MARTXAN TAO SISTEMA BERRIA



Arrasateko Biteri plazako hamahiru argi-puntu aldatuko dituzte. GOIENA

LED argiteria sistema jarriko die Udalak Biteri plazako farolei

Hamahiru argi-puntutan egingo dute aldaketa brigadako langileek, eta inbertsioa 6.549,81 eurokoa izango da

E.A. ARRASATE

Udalaren esanetan, argiztapen-sistema berrien instalazioek energia-eraginkortasuna hobetzea dute helburu, "lehendik dauden ordez energia-kontsumo murriztagoa eta ingurumenarekiko begirunea dakarten beste batzuk jarri eta jasangarritasun-ereduan sakonduz".

Jasangarriagoa eta merkeagoa

Udalaren esanetan, Energia Jasangarriaren eta Efizientzia Energetikoa Hobetzeko Ekintza Planarekin, 2.500 luminaria baino gehiago LED teknologiar

aldatzea lortu dute azken urteetan. "2016a eta 2020a alderatuz, azken hau urtariletik abuztura bitarte, diru aurrezpena 42.164 eurokoa izan da; 2016an, 171.388 euroko kostua izan zuen argi-kontsumoak; 2019an, 158.528 eurokoa; eta 2020an, 129.224 eurokoa", azaldu du Udalak.

Kontsumoari dagokionez, Udalak nabarmendu du 462.569 kilowatt ordu (Kwh) egin duela duela azken lau urteetan: 2016an, orduko 1.338.696 kilowatt kontsumitu ziren; 2019an, 1.094.026 kilowatt; eta 2020an, 876.127 kilowatt.



ARRASATEKO SORTU

Jaurlaritzaren gestioaren aurka

Sortu deituta, aurreko zapatuan Herriko Plazan elkarretaratzea egin zuten eta salatu zuten pandemiak eragindako krisiaren ardura osoa Eusko Jaurlaritzarena dela. "Ardura nagusia etxeko-lanak egin ez dituzten gobernuena da. Ez dituzte beharrezko inbertsio publikoak egin osasun arloan, hezkuntzan eta laguntza sozialetan", azpimarratu zuten.

Alde Zaharraren Birgaitze Plan berria, 2022rako

Herritarren 24 proposamen jaso ostean, banan-banan aztertuko ditu Hirigintzako Aholku Kontseiluak; urte amaierarako aurkeztu nahi dio azken diagnosis batzorde horrek Udalari. Helburua da urteak pasa ahala alde zaharra erakargarriago egitea

Hasier Larrea ARRASATE

Arrasateko herrigune historikoa etorkizunean jende gaztea bizitzeko moduko gunea izatea nahi du Udal Gobernuak, eta duela 20 urtetik bere horretan dirauen Alde Zaharraren Birgaitze Plan Berezian aldaketak egitea jo du helburu hori erdiesteko zutabetzat.

Gauzak horrela, prozesu parte hartzailea ireki zuen udalbatzak, herritarrek eta eragileek euren ekarpenak proposatu ahal izateko. 24 iradokizunez osatutako txostena da prozesu horren emaitza, eta orain, Hirigintza Aholku Kontseiluaren eskuetan dago, puntu bakoitza aztertu eta Udalari azken diagnosi bat aurkeztu diezaion. Kontseiluak abendu amaieran entregatu nahi dio diagnosis Udalari. "Bide luze baten lehen pausoak eman nahi ditugu horrela, 2022ko bigarren seihilekorako Birgaitze Plan berria eduki dezagun", adierazi du Ibon Arrupek, Udaleko Hirigintza Saileko zinegotziak.

Izan ere, Udalak diagnosi horretatik onartzen dituen proposamenek Eusko Jaurlaritzako teknikarien oniritzia jaso behar dute, egungo legeekin bat egiten duten edo ez aztertuko baitute haiek. Behin hartu-eman hori gaintuta, erakusketa publikoan jarriko da balizko aldaketak jasotzen dituen plana, eta osoko bilkuran onartu behar dira aldaketak. Hain zuzen, prozesu horrek bi urte iraungo duela kalkulatu du Hirigintzako arduradunak.

Proposatutako aldaketak

Aldaketa posibleen artean, alde zaharra bitan banatzea proposatu da, ondare babestua den *almendra* gainontzeko zatitik bereizteko.

Azpisolairuetan sotoak eraikitze iradokizuna ere aipatu dute herritarrek, toki horietan



Arrasateko alde zaharreko Iturriotz kalea. H.L.

KOMERTZIOEK BEHERA EGIN DUTE ALDE ZAHARREAN, ETA BIZTANLERIAK, BERRIZ, GORA

garaje erabilera baimendu ahal izateko.

Mahai gaineratu den beste gai bat balkoietan toloak jartzeko aukera izan da, baita begiratoki berriak eraikitze zentzuzko irizpide kontuan hartzea ere.

Komertzioen aldetik, urteetan eskatu dutena berretsi dute saltzaileek: erakusleihen azalera areagotzea, alegia. Egungo legeak ez du dendetako leihoak handitzea uzten, eta onartu nahi duten planean erakusleihok okupatzen duten tokiaren bikoitza hartzea aurreikusten da.

Alai zinema zaharrean ere egokitzapenak egin nahi dira. Konkretuki, ekipamendu izaera etxebizitza erabilera izaerarekin aldatu nahi dute, zinemaren jabe partikularrari etxebizitzak eraikitzea ahalbidetzeko.

Bestalde, jabetza pribatua diren zenbait espazio libre, tartean

Arotzen plazako eta Biteri plazako berdeguneak, eskuratu nahi ditu Udalak, espazio publiko handitzeko asmoz.

Karkabak liberatzeko prozesuari lehentasuna ematea ere proposatu da, eta irisgarritasunaren aldetik zenbait aldaketa eskatu dituzte eragileek, aldapan gelditzen diren behe solairuen kasuan, batez ere.

Zuntz optikoaren instalazioa

Udaletik jakinarazi dute alde zaharreko zenbait eraikinetan zuntz optikoa txertatzeko prozesua abian dela. Gestel telekomunikazio enpresa arduratuko da instalazioaz, eta dagoeneko 30 eskaera inguru jaso ditu.

Azterketa soziourbanistikoa

Udalak alde zaharraren gaineko ikerketa egiteko eskatu zion Siadeco enpresari, eta datu "balkorrak" atera dituela azpimarratu du Arrupek. Txostenaren arabera, gune historikoan lehen baino jende gehiago bizi da orain, "beste herri batzuetan gertatzen ez den bezala". Hala ere, komertzioak beherakada jasan duela onartu du, eta horri irtenbidea emateko borondatea erakutsi.

EUSKARALDIA

Zenbait ohar eta gomendio, ariketarako astebete faltan

Arrasateko Euskaraldiaren antolatzaileek azken orduko zalantzak saihesteko zehaztasun batzuk eman dituzte

H.L. ARRASATE

"Eskerrik beroenak" emanez zuzendu zaizkie arrasatearrei herri mailan Euskaraldia antolatzen ari diren boluntarioak, "herritarroi euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan aritzeko bidea errazteagatik". Aurtengo leloa egikaritzeko bidean, herrian 157 entitatek izena eman dutela eta 550 arigunetik gora sortu direla azpimarratu dute sustatzaileek.

Era berean, Euskaraldian parte hartu nahi duten norbanakoei laguntzeko asmoz, zenbait ohar plazaratu dituzte. Alde batetik, gogoratu dute entitate modura izena eman badute ere, norbanako gisa ere egin behar dela, *belarriprest* edo *ahobizi* rola aukeratuz. Mezu berbera helarazi diete 2018ko edizioan parte hartu zutenei, berritua izena eman behar dutela jakinarazita.

Ariketa sozialean apuntatzeko bi bide daude: online bidez, batetik, *Izenematea.euskaraldia.eus* lotura erabiliz, eta modu presentzialean, bestetik, 11:00etatik 13:30era eta 15:30etik 19:00era, hain zuzen ere.

Bestalde, ariguneak identifikatzeko ikurrak eta entitateetako kideentzako txapak eskuragai daude BAZEN jadanik. Euskaralditik abisatu dute ikurrak lortzeko zailtasunak izanez gero beraiekin jartzeko harremanetan, *arrasate@euskaraldia.eus*-era mezua bidaliz edo AEDko 943 77 12 28 telefonora deituz.

Datozen ekintzak

Antolatzaileek adierazi dute Euskaraldiari ongietorria egiteko bando bat jarriko dutela auzoetako atarteetan. Herria girotzen ere ibiliko dira, furgoneta batekin musika eta iragarriak lau haizetara zabalduz.

Ibai-arteak ere bat egingo du ekimenarekin, argazki-lehiaketa bat abiarazita: Euskaraldiko logotipoak eta dragoiak jarriko dituzte saltokietako erakusleihotan, eta berauei argazkiak ateratzea izango da erronka, 688 73 41 49 zenbakira Whatsapp bidez bidaltzeko. Argazki gehien bidaltzen dituztenek 100 euro jasoko dituzte erosketa-bonuetan, eta beste 100 euro ere zozketatuko dira partaideen artean.

NIRE USTEZ



OIANA SANCHEZ

Kultura basura(ra)

Egoera deseroso honen etsaitzat ostalaritza hartu dela agerikoa da. Kultura da gure gobernatzaileen bigarren biktima. Gure? Asko esatea litzateke. Lanak, berriz, duintasuna eskaintzen du.

Aurreko astean gurean aurkeztu zen antzezlan bat ikustera joan nintzen bi lagun minekin. Aspaldi egiten ez nuen plana izan zen, baina horren errua ez da bakarrik birusa izan. Antzokitik beste mundu batera transportatu ninduen, gaur egun pasatzen ari direnak ahazteko aitzakiarik goxoena izan zen, eta gogoz barre egin nuen!

Izan ere, antzezlanak bukatutakoan, barrutik amildegia ertzeko sentsazioa sumatu nuen. Beste sentimendu batek, ordea, beldur gehiago eman zidan: tristurak. Antzokia bere %50an egoteagatik, txaloak ez ziren behar bezala entzuten, eta eman genituenak ez ziren nahikoak izan lau aktoreek merezi zuteneko, nahiz eta norbanako bakoitzak ozen eta gogotsu ahaleginak egin.

Zoritzarrez, hori da egungo egoeraren isla. Bizitzari inoiz ozen entzungo ez diren txaloak jotzen ari gatzazkio. Animo, eutsi!



Hainbat egoiliar gune hesituan pasean, laguntzaileekin, eguaztenean. MAIALEN SANTOS

Kanpoko giroaz gozatzen dihardute gune hesituan

Urri amaieraz geroztik, Iturbide egoitzako egoiliarrek gune hesituta irteteko aukera dute; hasieran, probak egin zituzten, irteerak nola antolatu erabakitzeko, baina jada martxan dira txandak; bisitez gain, senideek haiekin egoteko aukera dute, kanpotik

Eneko Azurmendi ARRASATE

Egoitzako zuzendari Olatz Etxabek dioenez, urteak dira ideia hau buruan darabilte. "Egia da, pandemia iritsi aurretik, egoiliarrek gura zutenean jaisten zirela. Ateak zabalik egoten ziren eta edozein ordutan ateratzen ziren".


Pandemia hasi zenean, ordea, pentsatu zuten egoera luzatuz

gero eskaera egingo zutela gune hesitu bat jartzeko. "Hala izan denez, Udalarari eskaera egin genion, eta segidan eman ziguten baiezkoa. Gainera, egoiliarren senide batzuek ere esan izan digute aukera ona izango zela", azaldu du Etxabek.

Probak egin ostean, dagoeneko egunero ateratzen dira, eguraldiak lagunduz gero. "Solairu


ezberdinetako egoiliarrak ezin direnez elkarren artean nahastu, guk ordubete daukagu gurtzat, 11:00etatik 12:00etara, eta ordu horretan solairuko egoiliar guztiak ateratzen dira", azaldu du Nieves Altunak, hirugarren solairuko arduradunak. Izan ere, solairu horretakoa da talde handiena. "Besteek egun guztian ateratzeko aukera daukate".

Kanpora irteteko aukerari buruz




NIEVES ALTUNA
3. SOLAIRUKO ARDURADUNA

"Egun guztirako bizipoza ematen die irteerak; izan ere, gero gora igotzen direnean, kanpoan bizi izandakoa komentatzen dute: auzoko bat etorri dela bisitan, ilobarekin egon dela berbetan edota etxeko txakurra ikusi duela aspaldiko partez. Azken batean, kaleko giroaz disfrutatzea da haientzat".




MARI JOSE ATXA
AMA ITURBIDEN DAUKA

"Orain arte barruan egon behar izaten ziren eta abandonatuta moduan sentitzen ziren. Orain, berriz, eguraldi onaz gozatzeko aukera daukate, eta oso pozik ikusten zaie, egia esan. Amari ere nabaritzen zaio umore onez dagoela. Normalean, gainera, egunero etortzen zaio senideren bat bisitan, eta hori eskertzen du berak ere".



KARLOS OLABE
ITURBIDEN EGOILIARRA

"Arnasa hartzeko baliatzen dugu irteera eta kanpoan gertatzen ari dena ikusteko aukera ere badugu, lehen ez ginen-eta ezertaz enteratzen. Gainera, lagun batzuk etortzen zaizkigu hesiaren kanpoaldera, eta hori eskertzen dugu. Honekin ez dut esan gura barruan gaizki egoten garenik, baina luze egiten da".



SATURNINO EZKURRA
ITURBIDEN EGOILIARRA

"Gustura gaude kanpora irteteko aukerarekin. Eguraldiak laguntzen badu, egunero irtetzen gara, goizetan, ordubete inguru. Gorputza mugitzeko eta oinez ibiltzeko aprobetxatzen dugu. Bisitak murriztuta ditugun arren, hesiaren beste aldetik egon gaitezke senide eta lagunekin, eta kontu-kontari ibili".

Itxitura Larragainen

Udala auzora oinez igotzen den bide zaharraren ondoan dagoen Besaideko Espeleologia Taldeak markatutako Larragainen 1(ID-210) leizezuloan itxitura jarri du Besaide Mendizale Elkarteak.

Hemezortzi metroko sakonera dauka, eta herritarrendako arriskutsua izan zitekeelako itxi dute. Lur eremuaren jabearekin adostutako lana izan da.



BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

Tabernen eta jatetxeen produktuak etxera eramatea helburu

Jatetxeak ixteko Jaurlaritzak hartutako neurriaren aurrean, alternatiba aproposa izaten ari da produktuak etxera eramatea helburu duten enpresena ere, taberna eta jatetxeekin elkarlanean. Plataforma horietako bi dira, esaterako, Eroso eta B-lokal arrasatearrak. "Lehenik, afariekin hasi ginen; gero, bazkariak ere sartu genituen; eta

datorren astean, erosketak egin ahal izango dituzte gure bezeroek, ostalariei bakarrik ez, herriko komertzioei ere aukera hori eman ahal izateko", azaldu du Erosoko kide Jokin Mujikak.

B-lokalek duela astebete jarri du martxan zerbitzua. "Salmenta kanal berri bat eskaintzen diegu gure kolaboratzaileei, haien produktuen salmenta erraztuz. Pozik gaude tokiko merkataritza laguntzen ari garelako. Kontsumitu dezagun bertakoa", azaldu du B-lokaleko Itziar Artamendik.

"Sasoia hartu genuenean galarazi ziguten lehia"

CARLOS SANCHEZ SAIOA KARATE KLUBEKO ENTRENATZAILEA

Urri amaieran Euskadiko txapelketa prestatzen ari zirela atera zen lehiaketak bertan behera lagatzen zituen legea. Aurten, entrenatzera mugatu beharko dute, beraz

Hasier Larrea ARRASATE

Gipuzkoako txapelketan zazpi domina lortu zituzten Saioa Karate Klubean entrenatzen diren gazteek, urriaren 11n Hondarribian izandako hitzorduan. Urri amaieran jokatu behar zen Euskadiko txapelketarako sailkatzea lortu zuten horrela; baina lehiaketa "ilusioz gainezka" prestatzen zihardutela jakinarazi zieten 2020ko lehia guztiak suspentutuko zirela. Beraz, urtarrilera arte itxaron beharko dute, gutxienez, tatami gainean mailarik onena erakusteko.

Zenbat lehiatan parte hartu duzue denboraldi honetan?

Hiru txapelketatara joan gara urrian zehar, Guadalajarara birritan, klub arteko liga nazionala jokatzera, eta Hondarribira behin, Gipuzkoako txapelketan lehiatzen.

Ze zapora utzi zizueten norgehiagoka horiek?

Guadalajarako lehen hitzorduan, kadete eta 21 urtez azpikoen kategorietan lehiatu ginen Danel Izurrategi eta Iosu Madinabeitiarekin. Handik bi astera berriz itzuli ginen, orduan junior eta senior mailetan aritzeko, Aitor Lasagabasterrekin eta Iosu Madinabeitiarekin. Borroka haietan maila txukuna eman zuten gure karatekek, kontuan hartuta dagokiena baino kategoria bat zaharragoekin aritu zirela. Hondarribiko hitzordura bost karatekarekin joan ginen, eta zazpi domina lortu genituen, guztira. Aitor Lasagabasterrek, gainera, bi urrezko domina lortu zituen, kata eta kumite mailetan. Egia esan, sorpresa izan zen halako emaitza onak eskuratzeko.

Nolako urtea izan da aurtengoa?

Gutziz gorabeheratsua. Martxotik maiatzera xialdian etxean egiteko ariketak bidali genizkien gazteei, jarraikotasun batekin egin zitzaten. Norberak etxean daukan espaziora moldatzeko moduko ariketak ziren, pasillo



Carlos Sanchez, Guadalajarako lehen hitzorduan. CARLOS SANCHEZ

"HAMAR NESKAMUTILEK EMAN DUTE IZENA IRAILEAN; BENETAN POZGARRIA IZAN DA GURETZAT"

bakoitzean egiteko moduko hiruzpalau teknika. Gimnasioan 20 teknika inguru egiten ditugu, hortik atera kontuak zenbat eragozpen izan ditugun.

Eta ekainean, gimnasia berriz.

Bai, hala da. Itzuleran jendeak karatea praktikatzeko gogoak zeukala frogatu genuen, sasoiak heldu ziren ikasleak, oro har. Hala eta guztiz ere, zenbaitek klaseak uztea erabaki zuten, gune itxiak ekiditeko eta musukoarekin entrenatzeko eragozpenak zituztelako.

Kopurutan, zer-nolako beherakada izan duzue?

Momentu honetan 35 inguru gara, guztira, kategoria txiki, ertain eta nagusietan banatuta. Martxoan 55 inguru ginen; beraz, %30eko jaitsiera izan dugula esan genezake.

Animatu al da jende berria karatea probatzera?

Bai; benetan albiste pozgarria izan da hori. Irailean kategoria txikiko 10 ikasle inguru eman zuten izena. Harrigarria izan zen, aurten, beste urte batzuetan ez bezala, ez dugulako inongo publikitate kanpainarik egin.

Urteetan lana ondo egin duzuen seinale izango da hori...

Izan liteke, bai. Ahoz ahokoak asko egiten du, herri txikia baina. Gustatuko litzaiguke genero aldetik kopuru berdintsuetara iristea, nahiz eta orain daukagunak ez diren hain makalak: nagusietan 12tik 4 dira neskek, ertainetan bakarra dago, eta txikietan lauzpabost. Emakumeak %30 direla esan genezake, beraz.

Nola ohitu dira karatekak errealtate berrira?

Gazteak musukoarekin entrenatzera ohitu dira, eta jada naturaltasunez hartzen dute. Munduko txapeladuna den Sandra Sanchez karatekaren gomendioak jarraitu ditugu. Hasieran, musuko barik entrenatzen zen, baina, araudiak musukoarekin lehiatzera behartzen zuenez, lan-saioak ere musukoarekin egiten hasi zen, eta guk eredu hori jarraitu genuen.



Igerilekuko beiratea apurtuta, urriaren 20ko haizeteen ondorioz. H.L.

Kirol zerbitzuak egokitu ditu Udalak, neurri berriak direla eta

COVID-19ari aurre egiteko, 30 minutuz aurreratu da Musakolako kiroldegia itxiera, aste barruan zehar

H.L. ARRASATE

Azaroaren 6an argitaratutako Eusko Jaurlaritzaren 38/2020 Dekretuan zehaztutakoa jarraituz, Arrasateko Udalak egoera berrira egokitu ditu kirol zerbitzuak, bereziki, Musakolako eta Uarkapeko kirolguneetan.

Ondorioz, 22:00etan beharrean, 21:30ean itxiko da Musakolako kiroldegia asteen zeharreko egunetan. Uarkapeko gimnasioko ordutegiak, ordea, ez du aldatarik jasango.

Horretaz aparte, jarduera fisikoa eta kirola bakarka baino ezin da egin. Horrek eragina dauka frontoien, tenis pisten, padel pisten eta squash pisten alokairuan.

Kiroldegian garatzen den jarduera fisiko oro maskararekin egin behar da orain. Beraz, gimnasioko makinak edota boulderreko erabiltzaileek beti maskara jarrita izan beharko dute.

Taldeko kirol jarduerak eten egin dira, bai entrenamendu zein lehiaketetan. Txapelketa profesionaletan eta erdi-profesionaletan daudenak dira salbuespena; errugbiko taldeen kasuan, adibidez.

Haizeteek eragindako obrak

Udalak adierazi duenez, 75.000 eurotan kontabilizatu ditu kiroldegiko aseguru-agentziak igerilekuko eta Antoñako instalazioetako konponketak. Birgaitze-lanak egingo dituen enpresak ez du zehaztu noizko egongo diren kirolguneok erabilgarri, baina, Udalaren esanetan, "hilabeteko epea beharko dute, gutxi gorabehera".

Urriaren 20ko haize-erantsiek gogor astindu zituzten Musakolako kiroldegiko instalazioak. Denboraleak igerilekuko beiratea txikitu zuen, besteak beste, eta kalte materialak sorrarazi.

AUSORTU eta Jostailu Truke Merkatua, prestaketa bidean

Txatxilipurdik bi ekimen horien aldeko apustua egingo du aurten ere. AUSORTU sormen laborategian izena eman daiteke dagoeneko. Ttak-ekin antolatutako jardunaldi horrek 15 eta 25 urte arteko gazteak "diziplina artistiko ezberdinetara hurbiltzeko, horietan trebatzeko eta sormena lantzeko" helburua dauka. Aurtengoa Eñaut Elorrieta musika-

riak dinamizatuko du, modu telematikoa. Saioak azaroaren 28an eta 29an egingo dira, 10:00etatik 12:00etara bitartean.

Jostailuak trukatzeko azoka, berriz, abenduaren 12rako antolatuko dute. Jostailuek "osorik eta egoera onean" egon beharko dute, eta debekatuta egongo dira "indarkeria eta sexu bereizketa" sustatzen dutenak. Txatxilipurdiko kideak datorren astean hasiko dira jostailuak biltzen, eta horien trukean azokarako txartelak banatuko dituzte.

Indarrez betetako debut abesti aldarrikatzailea

'Atxilotutako arimak' izena duen abestia egin du Femme Fatalè talde sortu berriak. Emakumeek bizi duten "indarkeriari" letrak eta irudiak jarri dizkiote musikari gazteek, mezu indartsu bat helaraziz; aurrerantzean kantu gehiago egitea dute buruan

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Ohikotasunean agintzen zaigun zaintza / emakumeak baino gehiago sentitzen diren gizonak / bide guztian boterearen esklabo izan direnak / euskarri gisa memorian ditugu, sorginen arimak / gorde itzazu zure hitzak zuretzako, nik ez ditut behar. Femme Fatalè taldeko neska gazteek sortu duten *Atxilotutako arimak* abestitik ateratako estrofa batzuk dira, kantuaren izaera aldarrikatzailea ondo erakusten dutenak.

Nere Onandiak, Iraia Nietok, Maria Murillok, Nagore Sasiainek eta Carmen Murillok osatzen dute taldea, eta Asier Sala musikari arrasatearraren laguntzarekin grabatu dute kantua. "Batxilergoko ikasleak gara Arrasateko Institutuan, eta Ikus-entzunezko ikasgairako abesti bat eta bideoklip bat grabatzea erabaki genuen, ostean Emakunde antolatzen duen *Beldur barik* lehiaketara aurkezteko. Gure ustez, pandemia garaian emakumeen aurkako indarkeria egoerek igoera kezagarria izan dute, eta klaseko proiektua aitzakia bezala hartu genuen aspalditik arduratzen gaituen ideia hori abesti batean plasmatzeko".

Ikasgelako momentu hilak baliatu zituzten kantuaren letrak



Maria Murillo, Nagore Sasiain, Carmen Murillo eta Nere Onandia –Nieto falta da–. F.F.

denen artean osatzeko: "Lehenik eta behin, indarkeria matxista islatzen duten hainbat egoera identifikatzen ahalegindu ginen, horiei letrak eta irudiak jartzeko. Emakumearen edertasun estereotipoa da horietako bat. Konfinamenduan meme pila bat azaldu dira loditasunarekin lotuta, mundu guztia hasi zen kirola zoroen pare egiten, sare sozialetan norbere irudia perfektua igotzen tematzen direnen gorakada... Irudi perfektu horretatik aldentzen diren emakumeekiko presioa asko handi-

tu da", azaldu du taldeko kide Maria Murillok.

Jarraitzeko asmo

Aurrerantzean abestiak sortzen jarraitzeko asmoa dute. "Lehen kanta honek harrera ona izan du, eta ikusi dugu musika oso modu egokia dela barnean sentitzen dugun hori plazaratzeko. Mezu ugari jaso ditugu, kanta entzun eta mezua sentitu dute-nak, eta horrek pozik jarri gaitu. Abestiak sortzen jarraitu nahi dugu; agian, kanpora begira ez, baina guretzako".



Gaztetxeko hirugarren solairuan dauden entsegu lokalak. DEPOS-GAZ

Entseztzera joateko eskubidea aldarrikatu dute musika taldeek

Kultura-jarduerak eta ikuskizunak arautzeko Jaurlaritzak hartutako azken neurriek jarraiki ezarri diete debekua

X.G. ARRASATE

Lokal publiko horien erabileraz arduratzen den Gazteria Sailak helarazi zien debekua, kultura-jarduerak eta ikuskizunak arautzeko Jaurlaritzak onartutako azken neurriak aintzat hartuz: "Bertan behera geratzen dira ahots-izaerako edo dantza-izaerako entsegu eta emanaldi kolektibo ez-profesionalak".

Arrasateko gaztetxeko eta Deposituak lokaletan entseztzen duten musikariak batzen dituen Depos-gaz elkarteak oharra plazaratu zuen astelehenean, bi egun lehenago debekua jaso

ostean. Entseztzeko eskubidea aldarrikatzeaz gain, gogoeta hau plazaratu zuten debekuarekin lotuta: "Ez dauka zentzurik fabrika batean 8.000 pertsona elkartzea edota tren batean hamar zentimetroko distantzian 200 pertsonak bidaiatzea, eta entsegu lokal batean lau lagunek musika sortzea ezinezko izatea. Eta alde batera utziz jada profesionaltasunaren edo ez profesionaltasunaren arteko eztabaida, segurtasun neurriak betetzen dituen talde arduratsu bat gara eta hala egin izan dugu orain arte ere".

OHARRAK

'Bookface' lehiaketa, 12-16 urtekoentzat

Udal Bibliotekak antolatu du eta helburua da aurpegia edo gorputzko beste edozein atal liburu baten azalean agertzen den irudiarekin bat etortzea eta liburua norbere gorputzaren parte dela simulatzen duen efektu optiko hori lortzea. Argazkiak eta parte-hartze fitxak kultura@arrasate.eus helbidera bidali behar dira abenduaren 15a baino lehen, eta irabazleak 150 euro jasoko ditu Elkar liburu dendan erabiltzeko.

Imanol Ituño magoak bi saio egingo ditu

Azaroaren 19an, 18:00etan, Kulturaten, eta azaroaren 25ean, ordu berean, Santa Marinako auzo bibliotekan. 6 urtetik aurrerakoentzako emanaldia da eta bi ekitaldietarako sarrerak aurrez jaso beharko dira Bibliotekan.

Ordutegi aldaketa Amaia antzokiko zinean

Etixeratzeko agindua 22:00etara aurreratu ostean, asteleheneak eta astearteko zine emanaldietako ordutegiak aldatu egin dira, oro har, 19:00etara, pelikula luzea denean izan ezik –18:30–. Asteburuan azken zine emanaldiak 20:00etara aurreratu dira eta haurren emanaldiak ere 30 minutu aurreratu dira: hain zuzen, 16:00etan hasiko dira, 16:30ean beharrean.

1.500 ikustaldi sei egunean

Letrak irudiz jantzi ostean, bideoklipa Youtuben dago ikusgai. Txuri beltzean grabatu dute, eta protagonistak aurpegia estalita agertzen dira, besteak beste, loditasunaren aurkako mezuak, emakumei zoroak direla sentitu arazteko joera, zaintza lanak emakumeen ardura izatea, eta kalean bakarrik joanda sentitzen dituzten beldur egoerak antzetzuz.



Bideokliparen une bat. FEMME FATALÉ



Bi herritar Aramaioko anbulatorioko sarreran. A.E.

Mediku titularra lanaldi osora itzuli da Aramaiora

Osasuneko lehen arreta zerbitzuak azken hilabeteetan izan duen egoeraz kezkatuta azaldu dira bai Udala eta baita herritarrak ere. Bada, azken berria da medikua lanaldi osora itzuli dela anbulatoriora. Eguaztenean hasi zen lanean medikua

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Azken asteetan kezkatuta egon dira bai udal ordezkariak eta baita herritarrak ere Aramaio-ko osasuneko lehen arreta zerbitzuarekin. Konfinamendu garaian mediku titularrak baja hartu zuenetik ez da medikurik egon Aramaion lanaldi osoan.

Egoera horrek ezinegon handia sortu du herrian. "Osakidetzak kontsulta telefonikoak egiten ditu, eta hori atzerapausoa da, ez bakarrik Aramaion, herri guztietan", azaldu du Lierni Altuna alkateak. "Aramaio-ko kasuan, gainera, lanaldi osotik hiru ordura pasa zuten medikuaren jarduna: horrek arazoak sortu ditu, eta baita ezinegon herritarren artean ere".

Azken berria da Aitor Montes mediku titularra itzuli egin dela: "Lanaldi osora izango dugu medikua. Lehentasunezko gauza asko atzeratuta daude, eta berri ona da mediku titularra itzultzea". Dagoeneko anbulatorioan lanean dago.

Udalbatzak egindako eskaera

Orain dela bi aste udalbatzak aho batez onartu zuen Debagoieneko OSiri eta Jaurlaritzako Osasun Sailari eskaera egitea. Legez Aramaiori dagokion lanaldi osoko medikua eta erizaina eskatzeaz gain, egon daitezkeen aldaketen berri udal ordezkariak jakinaraztea eskatu zuten. "Eskaera bideratuta dago eta erantzuna ere jaso dugu: baja asko dituztela, medikurik ez dagoela... erantzun digute", dio Altunak.

"Gertatu izan da asko kostatu ondoren aurrez aurreko hitzordua lortzea medikuarekin; eta pazienteak kontsultara etorri denean medikurik ez zegoela ikustea. Uste dut badaudela gu-

txieneko batzuk, eta hori izango litzateke, adibidez, jendea informatuta izatea", gaineratu du Altunak.

Aurrerantzean horrelakorik ez gertatzeko esperantza du Altunak; eta baita atzeratuta gertatu diren hainbat gairi irtenbidea emateko ere: "Dependentziako azterketak atzeratuta daude, medikuaren presentzia eskatzen dutenak. Ea horiei irtenbidea ematen diegun lehenbailehen".

Herritarrak ere kezkatuta

Mertxe Nafarrete herritarrak azaldu du kezkatuta egon direla egoerarekin: "Koronabirusa badago, baina badirudi hori aitzakia moduan erabili dutela. Telefono bidez ezin da eman zerbitzu onik; izan ere, medikuak ikustea ezinbestekoa izaten da diagnostikoa egiteko orduan". Jesus Mari Elejalde ere iritzi berekoa da: "Eskatzen digute gure egoeraren balorazioa egiteko, baina gu ez gara medikuak".

**ATZERATUTA DAUDEN
DEPENDENTZIAKO
AZTERKETAK EGIN
AHAL IZANGO DIRA
AURRERANTZEAN**



Garabia kultura etxean. A.E.

Kultura etxeko teilatua konpontzen dabilta egunotan

San Martin eskolan ere laster hasiko dituzte lanak: bi gela batu egingo dituzte musika gela handiagoa izateko

A.E. ARAMAIO

Aramaio-ko Udalak hainbat lan egingo ditu kultura etxean eta San Martin eskolan. Dagoeneko hasi dira kultura etxean egin beharreko lanekin: garabi bat jarri dute horretarako.

Kultura etxean teilatua konpontuko dute, eta baita barruko eskaileraren hormak ere. "Liburutegi aldean hezetasun arazoak zeuden, eta horiek izango dira konponduko dituztenak", azaldu du Lierni Altuna alkateak. Lan horiek egiteko 34.426,88 euroko aurrekontua dauka Udalak. Arabako Dipu-

taziotik obra txikien lerrotik jasoko du dirulaguntza Udalak; 22.574,78 eurokoa izango da laguntza, hain zuzen.

Escolako lanak

Escolako lanak, aldiz, laster hasiko dituzte. Musika gela eta ondoko bildegia batu egingo dituzte, eta gela bakarra osatuko dute. Horrez gain, kanpoko aldean gela berria egokituko da garbiketarako materiala gorde ahal izateko. 26.263,98 euroko aurrekontua dute lanek; Jaurlaritzatik 16.370,51 euroko laguntza jasoko du Udalak.



SAN MARTIN ESKOLA

Elkartasuna, gonak jantzita

San Martin eskolako neska-mutikoak gonarekin joan ziren eguenean eskolara. Modu horretan, elkartasuna adierazi diote 15 urteko Bilboko mutil bati: eskolara gonarekin joateagatik irakasleak psikologoarenera bidali zuen mutila. "LHko 6. mailako ekimena izan da", azaldu du Saioa Uriartek, eskolako zuzendariak.

EUSKARALDIA



Herritarrak txapak jasotzen Aramaioko udaletxean. A.E.

Dagoeneko jaso daitezke Euskaraldiko txapak

Udaletxean edo kultura etxean hartu beharko dira. Dagoeneko 160 bat lagunek eman dute izena hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozialean. Euskaraldia berotze aldera, zenbait ekintza antolatu dituzte aste bukaerarako: bertso saioa eta dantza ekitaldia

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Euskaraldiko prestaketa lanak azken astean sartu dira. Azaroaren 20an, egubakoitza, hasiko da Euskaraldia eta dena prest izateko, dagoeneko zabaldu dute txapak jasotzeko aukera. Udaletxean edo liburutegian jaso daitezke. Nabarmendu dute aurrez izena eman behar dela horretarako *-Euskaraldia.-eus*

atarian eman daiteke izena, eguenera arte.

Eguna gerturatu ahala jendea animatzen hasi dela azaldu du Euskaraldiko koordinatzaile Rosa Mondragonek: "Girotzen hasi dira herritarrak, izen-ematean ikusi dugu hori. Azken astean 25 bat lagunek eman dute izena". Hori horrela, eta aurrez 136 lagunek izena emanda zute-

la kontuan hartuta, 160tik gora izango dira Euskaraldian parte hartuko duten aramaiorarrak.

Txapak jaso ahal izateko, udaletxe ordutegia izango da: goizetan 09:00etatik 14:00etara eta eguaztenetan baita 16:30etik 18:30era. Liburutegiko ordutegia, aldiz, 17:00etik 19:30era da.

Txapez gain, Aramaioko Euskaraldiko taldeak maskarak

erosi ditu *-ahobizi edo belarri-prest irudiarekin-*, eta eraikin publikoetako langileei eta Euskaraldian parte hartuko duten merkatariei banatu dizkiete: "Kalean Euskaraldiaren presentzia handitzeko asmoz".

Bikoizketa lehiaketa

Ariketa soziala girotze aldera, hainbat ekintza antolatu dituzte. Horietako bat azken urteetan arrakasta handiz egin den bikoizketa lehiaketa izango da. "Aurten, hirugarren urtez antolatuko dugu", azaldu du Mondragonek. Gaineratu du San Martin eskolan antzerkigintzako saioak eskaintzen dituztela, eta, horrez gain, lehiaketari begira bikoizketa tailerra egiteko asmoa dutela, Jurgi Etxeberria irakaslearekin.

Bikoizketa lehiaketa azaroaren 27an izango da, barikua, eta izena emateko epea azaroaren 24ra arte izango da. Antolatzaileek dagoeneko aukeratu dituzte hainbat pelikulatoko pasarteak; parte-hartzaile bakoitzak erabaki beharko du ze pasarte bikoiztu gura duen, eta aurrez gertatuta eraman ahal izango du saioa. "Hala ere, momentuan, zuzenean egin beharko da bikoizketa", azaldu du Mondragonek. Eszenaratzek euskaraz izan beharko dira, batuan edo euskalkian; parte-hartzaileak Aramaion jaio, bizi edo lan egiten dutenak izan beharko dira; eta taldeak bi eta lau pertsona artekoak izan beharko dira.

Hiru kategoria bereiziko dituzte: 8-12 urte bitartekoak; 12-20 urte bitartekoak; eta 20 urtetik gorakoak. Taldeetan adin nahasketak onartuko dituzte. Sariak izango dira: txikitxo-

mentzat, Hontza Extremeko sarrerak; gaztetxoentzat, 75 euroko txartel bat; eta nagusientzat, 80 euro Aramaioko jatetxe batean gastatzeko.

Bikoizketa tailerra *online* izango da, Zoom bidez, azaroaren 16an. Aurrez eman behar da izena. Eszenaratzeko egunean edukiera mugatua izango denez, izena eman beharko da kultura etxean.

Aste bukaerako egitaraua

Gaur, barikua, bertso saioa egingo dute, kultura etxean, 19:00etan. Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Ane Zuazubiskar eta Manex Agirre ibiliko dira bertsoetan; eta gai jartzaile lanetan, Lierni Altuna eta Oihana Ameskoa.

Sarrera doan izango den arren, txartelak aurrez hartu beharko dira, *Entradium.com* atarian.

Bihar, zapatua, Aguraingo Jeiki dantza taldeak *Iluntasunean argi* dantza eta magia ikuskizuna eskainiko du. 17:30ean izango da, kultura etxean, 3 euroren truke. Leihatilan erosi behar dira sarrerak, edo 687 58 65 56 zenbakian erreserbatu.

'Egunean behin': sariak

Egunean behin jokoaren *Aramaioko euskeraz* taldeko irabazleei Euskararen Egunean, abenduaren 3an, banatuko dizkiete sariak. Irabazleez gainera, zozketa bidezko saridunak ere egongo dira.

GAURKO BERTSO SAIOKO SARRERA DOAN IZANGO DA, BAINA TXARTELAK HARTU BEHAR DIRA

Omenaldia nagusiei

Carmen Zurbanok -97 urte- eta Fermin Etxeberriak -92 urte- udal ordezkarien bisita jaso dute. Herriko emakume eta gizon nagusienak dira; nahiz eta aurten Erretiratuen Egunik ez ospatu, herriko nagusienak omentzen izan dira Lierni Altuna eta Cristina Etxenausia. Ollerias museoko erretiluak eta katiluak jaso dituzte.



Futbol zelaiko argiteria sistema berritzea, aurrera

Aho batez onartu du erabakia udalbatzak, eguaztenean egindako osoko bilkuran, eta LED sistema jarriko dute hango fokuetan. Azaroaren 25erako adierazpen instituzionala ere onartu dute, eta, bestetik, EAJko zinegotzi Pili Leanizbarrutiak kargua utzi du

Mirari Altube ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak eguaztenean, oraingoan online, segurtasun neurriak betetze aldera.

Pandemiaren eraginez sortutako egoera ekonomikoaren ondorioz 2020rako zehaztutako aurrekontua berrikusi beharrean izan zen Udala ekainean, eta hainbat partida gelditu egin zuten orduan. Horien artean zegoen Ibarra futbol zelaiko argiterian hobekuntzak egitea, baina orain, horri heltzea erabaki dute: "Egoera kaskarrean dago, gero eta foku gehiago daude hondatuta eta konpondu beharrekoa da kirol jardunari berretik diotenerako", zioen Unai Elkoro alkateak osoko bilkuran.

Ibarrako argiteria sistema 19 metroko lau farolek osatzen dute eta bakoitzak sei foku ditu. Hain zuzen, foku horiek aldatu egingo dituzte, eta LED erakoak jarri; 24 foku horiek 92.500 euroko kostua dute. Hamalau astean egingo dituzte lanak, behin horiek esleituta. Energia aurreztea da aldaketaren helburuetako bat, baita Ibarrako ekipamenduaren kostua murriztea eta fokuek luzaroago irautea ere.

Alkateak adierazi zuen udalei emango dieten zorpetzako gaitasuna erabilita egin gura diela aurre lan horiei, eta baita beste batzuei ere: "Aurtengo aurrekontuaren kontura exekutatuta ahal izango ditugu beste proiektu batzuk ere, aztertuko dugu". EH Bildu bat etorri zen erabakiarekin eta gaineratu zuen zein proiekturi eman lehentasuna hausnartuko dutela.

Emakumeen aurkako indarkeria

Azaroaren 25ari begira ere jarri zen udalbatza, eta adierazpen instituzional bat –Eudelek proposatutako testua– onartu zuen, aho batez. Pandemiak sortutako egoeran arreta jarri behar dela indarkeriari aurre egiten ari



Ibarra futbol zelaiko fokua. IMANOL BELOKI

UDALAK HAINBAT KONPROMISO HARTU DITU EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO

diren emakumeengan adierazi zuen Karmele Uribarrik, Ongizate zinegotziak: "Isolamendua, babesgabetasuna eta ikusezintasuna saihesteko baldintza egokiak sortzeko lanean jarraitu behar dugu Aretxabaletan ere".

Horren aurrean Udalak hartutako konpromisoen berri eman zuen: indarkeria matxistaren biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jartzea eta eskubide horiek bermatuko dituzten politika berriak diseinatzea; behaketa hobetzea, indarkeria-egoeretan dauden emakumeen profil berriak atzemateko; emakumeentzako arreta eta laguntza-zerbitzuak mantentzea, hobetzea eta egokitzea; emakumeen ahalduntzeari eta gazteen artean indarkeriaren prebentzioari laguntzeko programak bultzatzea; berdintasun-programak zaintzea; COVID-

19aren krisiak emakumeen pobretzean duen eragina aztertzea; genero-ikuspegia txertatzea krisiaren eragin negatiboak arintzeko neurrietan; eta erakundeen arteko lankidetzak eskatzea.

"Mugimendu Feministak deitutako mobilizazioei atxikitze deitzen diegu herritarrei", gaineratu zuen Uribarrik, baita azaldu ere Berdintasun batzordean lantzen dihardutela indarkeria matxistaren aurrean erakundeek izan beharko luketen erantzun publikoa.

Leanizbarrutiaren ordez Javier Mar Bukatzeko, EAJko Pili Leanizbarrutia zinegotzia agurtu zuen udalbatzak, kargua uztea erabaki duelako hark. Eguazteneko osoko bilkuran egoterik izan ez bazuen ere Leanizbarrutiak, esker mezuak bidali zizkieten. Alkateak bost urte pasatxoan egindako lana eskertu zion, eta EH Bilduko Ion Albizuk, erakutsitako konpromisoa.

Horren lekua zeinek beteko duen ere iragarri zuten: Javier Marrek. Hauteskunde Batzordean eskatuko dute akreditazioa eta hurrengo osoko bilkuran hartuko du kargua.

Merkatariek eta ostalariek egindako inbertsioei laguntzak

Gastuen %60raino estali ahal izango da, gehienez ere 300 euro; horretarako, 25.689 euro jaso ditu Udalak Aldunditik

M.A. ARETXABALETA

Merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan egindako inbertsioak arintzeko dirulaguntzak bideratu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Udalak kudeatuko du horren banaketa.

Martxoaren 14tik abenduaren 12ra bitartean koronabirusaren aurkako prebentzio eta higiene neurriak betetzeko egokitzapenak egin dituzten dendek, tabernek eta jatetxeek egin dezakete eskaera, eta egindako inbertsioaren %60rainoko laguntza jaso ahal izango dute; gehienez ere, 300 euro negozio bakoitzeko.

Egindako moldaketei laguntza

Foru Aldundiak 25.689 euro eman dizkio Aretxabaletako Udalarri, biztanleria, establezimendu kopurua eta merkataritza eta ostalaritza dentsitatea kontuan hartuta. Hala, dirulaguntza hori eskatu ahal izango dute hamar langile baino gutxiagoko lantaldia duten merkataritza eta ostalaritza establezimenduek.

Zein inbertsio lagunduko dituzten zehaztu dute: espazioen eta lan egiteko moduen egokitzapenak; segurtasun eta osasun irizpideak betetzeko ekipamen-

duetan egindako moldaketak; bezeroarekiko eta enpresa hornitzaileekiko harreman berrietara lan egiteko moduak egokitzeko inbertsioak –manparak, gel-banatzailak...– eta higiene eta babes neurri bereziekin lotutako beste jarduerak batzuk.

Bestalde, ez dute laguntza ekonomikorik jasoko honako hauek: maskarak, eskularruak, gelak, mantalak edo antzekoak erostearekin egindako gastuak, ezta establezimenduak berak salgai jartzeko diren higiene edo babes produktuei dagozkienak ere.

Hilabeteko epea

Deialdira aurkezteko epea hilabetekoa da, azaroaren 12an hasita, orduan argitaratu zirelako oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Eskaera telematikoki egin beharko da, Udalaren webgunearen bidez (www.aretxabaleta.eus).

Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira kontzeptu beragatik diruz laguntzeko erakunde publiko edo pribatuetatik jasoko diren bestelako laguntzekin, betiere horrek gainfinantzaketarik eragiten ez badu.



GOIENA

Gaztainak bezeroen eskura

Aretxarte merkatarien elkarteak gonbidatuta, gaztaina-saltzailea izango da azaroko hiru martitzenetan Aretxabaletako kaleetan, eta herritarrek harrera beroa egin diote lehen egunean. Bezeroek, gainera, debalde eskuratu ahal izango dituzte horiek. Bestetik, Aretxarteko kideak *Bizi, erosi Atxabaltan* poltsak banatzen dabilta azken egunetan.



Joan den zapatuan Iturrigorri pilotalekuan egindako agerraldia. GOIENA

Giza kate bat osatzeko dei egin du Sarek

Azaroaren 21ean, Portasoleko autobus geltokitik hasita, kilometro bateko katea osatu nahi dute Herriko Plazaraino. Horrez gain, Sareren arabera, berri "pozgarria" da Garikoitz Garcia preso aretxabaletarra Picassentetik Zaballara gerturatu izana

Karmele Uribesalgo ARETXABALETA
Presoen aferan konponbide bat lortzeko asmotan egin du giza katerako deialdia Aretxabaletako Sarek. Besteak beste, salbuespen legedia bertan behera uztea eskatuko dute. Datorren asteko zapatuan, hilak 21, egingo dute giza katea. 18:30ean izango da. Portasoleko autobus geltokitik aterako da eta Herriko Plazarainoko bidea egingo du.

Txarli Garcia Aretxabaletako Sareko kideak azpimarratu du osasun neurriak "zorrotz" beteko dituztela. "Herriarrek beldurra izan dezakete horrelako ekitaldi batean parte hartzeko, baina eskatu nahi diegu lasai egoteko". Giza katea hiru zutabetan joango da, eta parte hartzaileen artean bi metroko distantzia mantenduko dute. Dena behar bezala beteko dela bermatzeko, 15-20 boluntario inguru arituko dira lanean.

Herriar ugariarekin jarri dira harremanetan Sarekoak, eta, Garciak adierazi duenez, ikusi

dute Aretxabaletan badela beste espetze politika bat izateko nahia. "Eremu anitzetako jendearekin egon gara, eta oso pozik gaude izandako erantzunarekin", azaldu du Sareko kideak. Dinamika inklusiboa eraiki nahi dute, eta, horretarako, hainbat ideologiatako herriarregana jo dute. "Gizarte zibilaren protagonismoa bilatu nahi dugu", gaineratu du Garciak.

Ekimenak oso erantzun ona izan duela azaldu du Sarekoak: "Jendeak argi dauka hau amaitu behar dela". Garciak gogorazi du lege arrunta aplikatuta euskal presoen ehuneko handi bat kalean egon beharko litzatekeela. Horrez gain, Sarek beharrezkotzat jo du presoen

**IKUSI DUTE
ARETXABALETAN
BADELA BESTE
ESPETXE POLITIKA
BAT IZATEKO NAHIA**

egoera hobetzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea. Garciaren hitzetan, euskal presoek "sekulako trabak" izaten dituzte bigarren gradutik hirugarrenera pasatzeko, lan egiteko baimenak lortzeko eta baldintzapeko askatasuna eskuratzeko.

Pozik, Garcia gerturatzearrekin
Garikoitz Garcia preso aretxabaletarra Picassenteko espetxetik Zaballako kartzelara gerturatu izana albiste "pozgarria" da Sarerentzat. "Presoak etxeratze bidean aurrerapauso ikaragarria dela uste dugu, bereziki, bere senide eta laguntzat, jada ez baitituzte dispertsioaren ondorioak jasan behar", nabarmendu du Sareko kide Garciak.

Hala, oso modu "positiboan" baloratu dute Aretxabaletako presoen lekualdatzea, baina Sareko kideak azpimarratu du beste urrats batzuk egin behar direla Garikoitz Garcia Aretxabaletan izateko.



Juani Fabian, Basotxoko tabernan, joan den ostiralean. MIRARI ALTUBE

Basotxo erretiratuen elkartearen jarduna mugatu du pandemiak

Taberna itxi behar izan zuten joan den egubakoitzean, eta gainerako ekintza gehienak ere etenda daude

K. U. ARETXABALETA

Koronabirusaren pandemiari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak ezarri dituen mugak direla eta, Basotxo erretiratuen elkarteak ere ateak itxi behar izan ditu. Negozio horren arduradun duen Juani Fabianek azaldu du oso urte txarra izaten ari dela aurtengoa: "Animo eta ilusiorik gabe nago jada". Izurritea dela eta, herritarren artean beldurra eta ziurgabetasuna nabari ditu Fabianek, eta bezero kopuruan ere nabari du alde; iazko kopuruarekin alderatuta, %70 inguru jaitsi dela azaldu du. "Lehen, merienda asko izaten genituen, baina, azken boladan, lau kafe besterik ez dut atera", nabarmendu du.

Taberna itxi beharrean egon da Fabian, baina aitortu du bestela ere ez zekiela luzaroan izan ahalko zuen zabalik. Duela bi urte hartu zuen Fabianek Baso-

txoko taberna. Oso oparoa izan dela adierazi du, baina onartu du ez daukala argi zer gertatuko den datozen hilabeteetan: "Ikusiko dugu etorkizunean zer gertatuko den, baina oso itxura txarra dauka".

Elkartearen ekintzak, etenda

Basotxo erretiratuen elkarteak presidente Aitor Alberdik aitortu du tabernak arazo bat daukala: aireztapen falta. Azaldu duenez, harremanetan daude Udalarekin, eta leihoren bat jartzea aztertzen ari dira.

Gainontzean, biltzeko arazoak dituztela azaldu du Alberdik, eta elkartearen ekintzak ere bertan behera gelditu dira; besteak beste, dantza eta kantu taldeak. Elkarteak presidentek adierazi duenez, pentsatzen ari dira zer egin urteroko zozketa-ekin, baita 90 urtekoen omenaldiarekin ere.

Zenbait ikastetxe Garapen Iraunkorreko Helburuen lanketan

Eskolako Agenda 2030 ekimenaren barruan, iraunkortasunaren bidean pausoak emango dituzte Kurtzebarri ikastetxeko, Kurtzebarri institutuko eta Aretxabaletako Lanbide Eskolako ikasleek.

Nazio Batuen Erakundeak 2015ean aurkeztutako Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) izango ditu ardatz ikasturte ho-

netako Aretxabaletako Eskolako Agenda 2030ek. Garapen iraunkorraren kontzeptua landuko dute ikasleek; besteak beste, aztertuko dute herriak zein errealitate bizi duen eta nola bermatu daitekeen Aretxabaletako iraunkorra izatea.

Webgune bat ere jarri du mar txan ARAZIKO taldeak. Modu horretara, programako partaide diren ikasleek zein irakasleek jarduna erraztu nahi dute. Gune horretan aurkituko dituzte beharrezkoak diren baliabide guztiak.

EUSKARALDIA



UDA kirol elkarteko zenbait ordezkari Ibarra kiroldegiaren aurrean. IMANOL BELOKI

Kirol jardueran euskara sustatu nahi du UDAk

UDAK entitate moduan hartuko du parte Euskaraldian, eta bost barne arigune eta hiru kanpo arigune ditu identifikatuta. Euskararen erabilera sendotzeko konpromisoa erakutsiz, elkarteko kideekin batera gurasoen borondatea azpimarratu dute

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaletarrekin bat eginez, UDAk ere eman du izena erakunde moduan Euskaraldian. Izan ere, UDAk bere balioen artean du jasota euskararen lanketa, eta Euskaraldiak proposatzen duen ariketa oso ego-

ki datorkiola adierazi dute kirol elkarteko ordezkariak. Hain zuzen ere, UDARI bere jarduerak aukera ugari ematen dizkio eragile izateko euskararen erabileran, eta Euskaraldiaren bitartez hauek identifikatu ditu; hala, aurrerantzean

horien erabilera sendotzeko konpromisoa hartu du.

UDAREN ARIGUNEAK

Modu horretara, bost barne arigune eta hiru kanpo arigune ditu identifikatuta UDAk. "Arigune hauen bitartez, erakunde

Kantari bat eta piano-jole bat, bat-bateko saio inprobisatuan

Loyola Garmendiak eta Iñaki Salvadorrek 'Real Book Vol.1' izeneko saioa eskainiko dute bihar, Arkupen

I.B. ARETXABALETA

Loyola Garmendiak eta Iñaki Salvadorrek *Real Book Vol.1* izeneko ikuskizuna aurkeztuko dute zapatu honetan, Arkupen, 19:00etan.

Iñaki Salvador piano-jotzaileak eta Golden Apple Quarteteko kide Loyola Garmendia kantariak partitura-liburu bat aurkitu dute, *Real Book* izenekoa, ilegala jatorriz, eta, erruleta errusiar eran, liburu zaharra edozein orritatik ireki eta onik ateratzen saiatzen dira kantatuz eta pianoa joz. Joko horretan, jazzeko,



Loyola Garmendia kantaria. REAL BOOK

souleko, zineko, Broadwayko musikaleko klasikoak... eskainiko dituzte. Besteak beste, *Angel eyes*, *My way*, *Gran Torino*, *Singin'In the rain*, *Bewitched*, *You are the sunshine of my life* eta beste pieza batzuk.

Azaroaren 15ean, berriz, Arkupe aretoko agertokian, Esti Curiel aktorea izango da, *35 huts* antzezlan eskaintzen. 19:00etan izango da, eta sarrerak lau eurotan daude salgai. Familien oinordetza emozionalak, amatasuna, heriotza eta halako gai sakonak umorez landutako bakarrizketa izango da.

Hitzordu horiekin batera, Karmele Igartua Sorkuntza Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia ziren egitekoak azaroaren 14an, zapatu honetan, baina atzeratu egin dute. Oraingoan, ez dauka data beririk.

Azken txanpan sartuta

Eñaut Zubizarreta Aretxabaletak Euskaraldiko koordinatzailea "pozik" dago herritarrek Euskaraldiko bigarren edizio honetara begira hartu duten jarrerarekin, gorabeherak tarteko: "Kalean ez da giro, eta ariketa aurretiko beroketa lanetan, izen-emateak eta antolatutako ekintzak hotzagoak izaten ari dira. Orokorrean, Euskal Herri osoan motelago doa egitasmo guztia. Hala ere, esponenzialki bada ere, ari gara poliki-poliki aurrera egiten, eta aretxabaletarrek gogotsu ikusten ditut. Eguazteneko datuen arabera, 886 norbanakok eman dute izena; 774 *ahobizi-k* eta 112 *belarriprest-ek*. Hala, azaroaren 20ra bitartean, izena emateko azken astean sartuko gara eta egun hauetan gorakada izan nahiko genuke. Ea, bada, horrela den".

moduan egiten den lanketa honek kirolarien eta gurasoen artean eragin zuzena du, haiek ere arigune hauen parte baitira. Horren harira, esan beharra dago txalotzekoa dela bereziki gurasoen aldetik jartzen den borondatea. Izan ere, UDAREkin duten komunikazioaren oinarria euskarazkoa izatearen aldekoa da, bakoitzaren gaitasunak ahalbidetzen duen neurrian. Bestetik, nabarmentzekoa da entrenatzaileek ere agertzen duten jarrera ezin hobea. Gainera, Euskaraldiak dakarren lanke-tarekin batera, UDAk badauka esku artean entrenatzaileak oinarri hartzen dituen proiektu paralelo bat Aretxabaletak Udalarekin batera. Proiektu honetan, Udalaren laguntzaz,

kirol jardueran zehar euskararen erabilera sustatzeko balioko duten dinamika ezberdinen sorrera ari gara jorratzen, entrenatzaileak oinarri hartuta", adierazi du Ainara Mugak, UDA kirol elkarteko kudeatzaileak.

NORBANAKO IZATEKO ESKAERA

Euskaraldiaren ariketa hasiko da azaroaren 20an, eta eguna iritsi aurretik oraindik norbait ez balu izenik eman, animatzeko dei ere egin nahi izan dute UDA elkarteko kideek. "*Belarriprest* zein *ahobizi*, guztien beharra dugu euskara indartzen jarraitzeko. Hori horrela, UDAREN webgunean ere jarri dugu Euskaraldian izena emateko esteka. Beraz, gura duena animatu dadila".

Irantzu Varelaen bakarrizketa, kontsumoa hizpide hartuta

Umore garratza lagun duela, indarkeria matxistaren eta beste hainbat gairen gainean jardungo du hilaren 18an

Mirari Altube ARETXABALETA

Irantzu Varela kazetari eta aktibista feminista ezagunak *No hay matriarcado ni en el supermercado* bakarrizketa eskainiko du hilaren 18an, eguaztena, Arkupen (18:00). Berdintasun Sailak antolatu du, Setem Hego Haizea GKEarekin elkarlanean, eta izena alde aurretik eman beharra dago, Berdintasun Sailean *-berdintasuna@aretxabaleta.eus-* edo Arkupen; azken eguna astelehena da, hilaren 16a.

Kontsumoaren eta indarkeria matxistaren gaineko ikerketa

abiatu zuen Setemek 2016an, bertako koordinatzaile Eburne Gallok azaldu duenez: "Hiru gai landu genituen orduan: kontsumo estetiko, garraioa eta hiri-gintza, eta etxean erabiltzen diren garbitzeko materialak. Ondoren, 2018an, hausnarketarako esparruak zabaldu genituen, eta beste gai batzuk gaineratu: kontsumo energetikoa, telesailena eta telefonoen erabilera. Irantzuk gai horiek guztiak eta gure ikerketa oinarri duen bakarrizketa gertatu du, umore garratza lagun hartuta".

Dorletako zubiko lanak berrartzeko asmoa dute

2021eko aurrekontuak urtea bukatu aurretik onartzeko asmoa duten arren, hala ez bada urtarrilean onartzeko konpromisoa hartu duela adierazi du Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak, Goiena telebistako 'Harira' saioan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Herrian martxoan gogor jo zuen COVID-19ak, eta bigarren olatuan, aldiz, beste leku batzuetan, akaso, okerragoak izan dira datuak, Eskoriatzarekin alderatuta. Hala ere, gaur-gaurkoz, 102 dira positibo metatuak, eta Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak martitzenean mezu baikorra helarazi gura izan zien herritarrei, *Harira* saioan: "Lasaitasunez eta kontzientziaz" hartu behar dela egoera, eta "norbera izan behar dela erantzukizunez jokatu behar duena". Hala, jarrera positiboaren aldeko apustua egin behar dela azpimarratu zuen.



Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea Goiena telebistako platoan. IMANOL BELOKI

Egoerara egokitzen

Zerbitzuetan egin dituzten egokitzapen esanguratsuenak aipatu zituen Zubizarretak. "Lehenengoz, Gizarte Zerbitzuetan, elkartasun mahai bat sortu genuen, itxialdian etxean egon behar zutenei laguntzeko. Kiroldegia, berriz, tarte batean itxita izan genuen, eta orain, Dekretuak eskatzen ziguna bete dugu; ikastaroekin ere izan ditugu gorabeherak, igerilekura joateko edo makinak erabiltzeko ordua hartu behar da... Antzokian ere kopurua murriztu egin da...".

Pailazoen saioa, bertan behera

Euskara eta Gazteria batzordea ere izan dute asteon, eta bertan, azaroaren 21ean Manuel Muñoz kiroldegian egitekoa zen Pirritx Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria bertan behera uztea erabaki dutela adierazi zuen. "Eskerrak eman behar dizkiet bertako teknikariei eta laguntzeko prest zegoen guraso talde bati. Bertan behera utziko dugu, ezin dugulako segurtasuna guztiz bermatu; edozelan ere, egoera lasaitzen denean egingo da ikuskizuna".

Aurrekontuen jaitsiera hizpide

Aurrekontuei dagokienez, jaitsiera handia izan dela adierazi zuen: "Batez ere, bi bloke nagusi daude: foru funtsa, 400.000 euro inguru jasoko dituguna, eta, bestetik, itxialdia izan zen bitartean eragina izan zuten autonomo guztiei zenbait zerga barkatu dizkiegu. Beraz, diru sarrerak ia 900.000 euro gutxiago kontenplatu genituen. Alde batetik, gastu arruntak mordo bat murriztu ditugu. Itxialdian, zenbait zerbitzu moztu behar izan genituen, eta kontratu ete-

naldi batzuk ere izan genituen. Gabonetako argiak egongo dira, baina %70eko gastu murrizketarekin. Kulturarako aurreikusita genituen zenbait ikuskizun murriztu egin ditugu... Handik eta hemendik gauzak orekatzea lortu dugu".

Bonuen kanpaina arrakastatsua

Gizarte Zerbitzuak mantentzea eta potentziatzea garrantzitsua izanda, autonomoentzako laguntzak ere ezarri dituztela adierazi zuen alkateak. "Autonomoentzat, *Eskoriatza bizirik* bonuen kanpaina jarri genuen martxan, ikaragarriko arrakasta izaten ari dena. Txanda honetan, lau egunean 900 bonu saldu ditugu, eta 15.000 euro bideratu ditugu hirugarren fase honetarako. Lehenengoan, 6.000 euro jarri genituen; eta bigarrean, 15.000 euro".

Ostalariei laguntzak, bideratuta

Herritar batek egindako galdera bati erantzunez, zuzeneko dirulaguntzak ez direla bideratu izan "gezurra" dela adierazi zuen Zubizarretak. "Negozioak itxita egon zirenean, zabor eta ur tasa kendu egin zitzaizen taberna eta ostalariei, eta horiek dirulaguntza zuzenak dira, eta, asteburu honetan gertatu den Dekretua dela eta, tabernariei berriz barkatuko diegu bigarren tasaren zatia. Horrekin batera, alde batetik, bonuen kanpaina nahi izan duten ostalariek parte hartu ahal izan dute; bestetik, nahi eta aukera izan duten taberna guztiei terraza jartzea ahalbidetu diegu, eta, gainera, ohikoa baino gehiago, eta ez dute ezer ordainduko. Horrekin batera, 200.000 euroko dirulaguntza bat bideratuko dugu 20 langile

baino gutxiago dituzten negozio guztientzat. Eskoriatzak dituen errekursoekin uste dut ahalegin handia egiten diharduela".

2021era begirako aurrekontua

"Pandemiari aurre egiteko eta aurrezteko beste modu bat inbertsioak ez egitea" izan dela adierazi zuen Zubizarretak. Hain zuzen ere, Eskoriatzako Udalak 200.000 euro inguruko partida bat zuen ezarrita, irisgarritasunera eta energia kontsumoa aurreztera bideratuta. "2021ean horiek berreskuratu nahiko genituzke, eta uste dut aukera izango dugula. Lehen-tasuna emango diogu irisgarritasun planari. Egokitzapena egitea erabaki genuenean, ez genekien, baina badirudi foru funtsa ez dela uste genuen beste jaitsiko, eta, beste aldetik, zorpetzeko aukera ere izango dugu udalok. Beraz, aurreikusita genituen Dorleta auzoan zubi bat oinezkoentzat jartzea, San Pedro auzoan parke bat egokitzea... egingo ditugu. Gero, nahiko genuke kanpoko igerileku bat jarri, eta frontoiaren egokitzapena egitea, baina azken hau ia 400.000 euro dira, eta itxaron egin beharko du".

Hori horrela, normalean abenduan onartzen dituzten aurrekontuak ez badituzte ordurako onartzen, asko jota urtarrilean onartzeko konpromisoa hartu dutela adierazi zuen Joserra Zubizarretak.

ESKORIATZAN GABONETAKO ARGIAK EGONGO DIRA, BAINA %70EKO GASTU MURRIZKETAREKIN

Landagunean argiteria jartzeko 2020ko dirulaguntzak

Udalak eraikin isolatuen fatxadetan edo inguruan argi puntu bat jartzeko obrak egin eta finantzatu ditu

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak landaguneetako bizi kalitatea hobetzeko martxan jarri nahi duen programaren barruan, hainbat jarduera aurreikusten ditu landaguneetako gune nagusitiko isola-

latuta dauden eraikinen kanpoaldean argiak jartzeko.

Eskoriatzako Udalak isolatutako eraikinen fatxadan edo horien inguruan argi puntu bat jartzeko obrak egin eta finantzatu ditu. Baina argi puntu

horien argi-elikatzea auzotar bakoitzak bere kabuz egin behar duenez, argi puntu horiek kontsumitutako energia finantzazten laguntzeko dirulaguntzak emango dira. Eskatzeko azkeneko eguna azaroaren 27a izango da, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, berriz, honako hau: eskaera orria, informazio gehigarriaren inprimakia, bankuaren ziurtagiria eta argi puntu pizteko sistemak funtzionatzeko duen Eskoriatzako Udalaren egiaztapena.

Gabonetako apaingarrien lehiaketa martxan da

Material birziklatuaren aldeko apustua eginda, Gabonetako apaingarrien lehiaketa antolatuta du Eskoriatzako Udalak, eta, hain zuzen, horrekin, jendea gonbidatu nahi du Gabon jaiez modu arduratsuan, parte-hartzailean eta ingurumena errespetatuz gozatzen.

Lehiaketaren helburua da botatzeko diren hondakinei

beste erabilpen bat ematea eta Gabonetako apaingarriak egitea. Hain zuzen, leihoetarako, balkoietarako eta erakusleioetarako edo espazio publikoetarako. Baldintza bakarria ezarri da: apaindutako espazioa kale-tik ikusi ahal izatea, eta espazioak abenduko zubian apaintzen hastea proposatu du Udalak. Hala, bost sari emango dira; guztiak, bonutan emango dira, Eskoriatza Bizirik kanpainari atxikitako establezimenduetan gatzatzeko.



Ahobizi eta belarriprest txapak, banatzeko prest. ESKORIATZAKO EUSKARALDIA

Datuak datu, "txalotzekoa" da herritarren jarrera

Azaroaren 20ra bitartean, 09:00etatik 13:00etara txapak jasotzeko aukera izango dute Euskaraldian izena eman duten herritarrek, kultura etxean. Horrekin batera, azaroaren 20rako, Onintza Enbeitaren online bidezko hitzaldia antolatu dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Izena emateko azken astean sartuta, Eskoriatzan 429 pertsonak eman dute izena Euskaraldian, eguen eguerdiko datuen arabera. 324 herritarrek *ahobizi* rola aukeratu dute eta *belarriprest* rola, berriz, 105 eskoriatzarrek. Horrekin batera, 31 entitate batu dira Eskoriatzan, 74 barne arigune eta 31 kanpo arigune izanda.

Mari Karmen Arrieta Euskaraldiko Eskoriatzako koordinatzailearen esanetan, "datuak datu, egoera honetan, ahal dena egiten ari dira herritarrek, eta hori txalotzekoa da. 2018ko ariketarako 800 pertsonak eman zuten izena Euskaraldian; aurtan, oraingoaz 429 pertsonak eman dute. Hala ere, esperantzaz gaudu, eta oraindik emango dute izena zenbait herritarrek. Hala ere, azpimarratu beharra dago euskarak normalizatzen jarraitu behar duela, eta, horren erai-kuntzan, herritarrek egin ari diren esfortzua ikaragarria dela".

Txapa banaketa, kultura etxean
Herritar ugari pasa dira egunotan kultura etxetik *ahobizi* eta *belarriprest* txapak jasotzera, eta aste honetan ere bertan jasotzeko aukera izango dute Euskaraldian izena eman duten eskoriatzarrek.

Txapa banaketa kultura etxeko bigarren solairuan ari dira egiten, eta azaroaren 20ra bitartean ere egunero izango dute norbanakoek txapa jasotzeko aukera, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Horrekin batera, ariguneetan ere identifikagarriak banatuko dituzte egunotan Eskoriatzako Euskaraldiko batzordeko kideek. Hala, azaroaren 20an komertzioen erakusleihoeetan jarri ditzaten.

AZAROAREN 20AN JARTZEKO IDENTIFIKAGARRIAK BANATUKO DIZKIETE ARIGUNEEI ASTEON

Onintza Enbeitaren hitzaldia

Ariketari hasiera emateko, Onintza Enbeita bertsolariak hitzaldia eskainiko du, online formatuan. Azaroaren 20an, 19:00etan, hasiko da, eta euskalgintzari, feminismoari eta pandemia egoerari buruzko hausnarketak eskainiko ditu.

Telematikoki izango den arren, hitzaldian parte hartzeko aldeztatik izena eman beharko da. Horretarako bideak hauek izango dira: euskara@eskoriatza.eus helbidera idatzita edo 636 78 59 71 telefono zenbakira deituta edo *whatsapp*-a bidalita. Sarre-ra hau egin du hitzaldia eskainiko duen protagonistak, herritarrek animatzeko: "Mundua bere buruari begira gelditu den honetan, gure borroka txikiek zail daukate euren burua erakusten. Helmuga betikoa da orain ere: Euskal Herria euskalduna eta feminista. Zein izango dira, ordea, estrategia berriak? Egoeraren irakurketa kolektiboarekin hastea onena".



Eskoriatzako Richard Hidalgo jokalaria aurkaria driblatzen. IMANOL SORIANO

Hirugarren jardunaldia bertan behera, Kirol Elkartearen erabakiz

Eskoriatza Kirol Elkartearen areto futbol taldearen hirugarren jardunaldia bertan behera uztea erabaki du

I.B. ESKORIATZA

2020/21 denboraldia ez da samurra izaten ari kirol ezberdinetako bailarako talde federatutako federatuak ez diren guztientzat, baina, neurri gogorrek tarteko egon arren, Eskoriatzako areto futbol taldeak abiatze aparta izan du. Izan ere, denboraldiko bi jardunaldi jokatu eta biak irabazita, liderra da nazionalerako hirugarren mailan.

Zapatu honetan, Durango taldearen aurka jokatzekoa zen Eskoriatza areto futbol taldea, eta hirugarren garaipenaren bila joateko gogoz zeuden esko-

riatzarrek, baina, partidua bertan behera uztea erabaki dute.

Horrekin batera, etxean jokatzen dituzten partiduak zuzenean jarraitzeko aukera ere ahalbidetu dute aurtan elkartearen kideek, *Eskoriatza KE* orrialdean, Youtube plataformaren bitartez.

Logotipo berria

Bestalde, elkartearen jokalaria, entrenatzaile eta ordezkari 25 urtean egindako lanaren aitortza gisa, Eskoriatzako areto futbolaren 25. urteurrena ospatzeko logotipoa aurkeztu du areto futbol sailak asteon.



I.B.

Odol-ematea astelehenean

Astelehen honetan, odola emateko autobusa izan da Fernando Eskoriatza plazan, eta datorren astelehenean ere izango da, 16:30etik 20:15era bitartean. Odolak beharrezko izaten jarraitzen duela azpimarratuz, adierazi dute COVID-19aren alarma egoera honetan segurtasun neurri guztiak hartuko dituztela langile nahiz odol-emateen osasuna zaintzeko.

Bi auzoren batura, ofizialki izendatuta

Zoruan margotuta dagoen partxis-jolasaren irudia ezaugarri berezi gisa, 'Partxis plaza' izenez izendatzen dute herritarrek Intxaurtxueta eta San Pedro auzoen arteko parkea. Hala, ofizialki erabiltzeko, plaka ezarri zuen Eskoriatzako Udalak iraillean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Haurren jolas-parke berezia dago Eskoriatzan, Manuel Muñoz kiroldegiaren aurrean, hain zuzen ere. Bertan dauden txirrista eta bestelako jolas guneez gain, plaza horrek duen berezitasun nagusia zoruan margotuta duen partxis-jolasaren irudia da. San Pedro eta Intxaurtxueta auzoen arteko zoruan dago hamar metro kararutuko irudia, eskoriatzarren artean Partxis Plaza izenez ezaguna dena.

San Pedro eta Intxaurtxueta auzoen arteko batasunaren ikurra da lau koloretako irudia, eta Nerea Zugasti bertako bizilagunak partxisaren sorreraren bueltan honako hau adierazi gura izan du: "San Pedro auzoaren alboan, Intxaurtxueta futbol zelaia zegoen, eta izen bereko urbanizazioa eraikitzen hasi zirenean, bien artean plaza txiki bat geratu zen, hutsik. Hala, 1998an, bi auzoetako -San Pedro eta Intxaurtxueta- bizilagunen ideiatik sortu zen partxisa margotzeko asmoa, eta hala egin zuten. Hala, bi auzoak lotu zituzten, baina, margoaren kalitatea ez zenez kalitate onekoa, eguraldi txarrarekin ezabatzen joan zen. Hortaz, Udalarekin hitz eginda, pintura iraunkorragoarekin margotu zuten".

Jaiak bueltatzeko zain

San Pedroko eta Intxaurtxueta jaiak ezin izan dira ospatu aurrean, iraillean. Zenbait urtez egin barik egon dira herrian San Pedro txiki moduan ezagutzen diren jaiak, baina

1998AN, BI AUZOETAKO BIZILAGUNEN IDEIATIK SORTU ZEN PARTXISA EGITEAREN IDEIA



San Pedro eta Intxaurtxueta auzoen artean dagoen Partxis plaza. IMANOL BELOKI

iaz berreskuratu eta arrakatsuak izan ostean, aurrean soilik plazaren plaka jarri dute. "Auzotarren artean datorren urteko jaietan Partxis plazaren izendapen ofiziala dela-eta inaugurazio bat egitea nahiko ge-

nuke, eta partxis erraldoian jolastea ere gurako genuke, aspaldi auzotarrek jolasten zuten modura. Izan ere, ondo legoke berriro jolas horiek berreskuratzea...", adierazi du Nerea Zugastik.

Partxis plaza, ofizialki izendatuta

Auzotarrek Udalari eskatuta, plaka jarri zuten irailaren 11n, ofizialki, *Partxis plaza* izena izan dezan. Horrela baita ezaguna eskoriatzarren artean. Inaugurazio ofizialik egin ez egin arren, hiru plaka ezarri zituzten han: parkeari izena ematen diona, Sevillako Triana auzotik ekarritako partxis-jolasa eta bi auzoen batura adierazten duen Udalaren honako idatzi hau ere bai: *Plaza honek bere izena San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako bizilagunek margotu zuten partxis jokoagatik hartzen du. Plaza hau, antzina futbol zelaia zegoen toki berean kokatuta, bi auzoen arteko batasunaren ikurra da.*



Partxis plazako plaka. I.B.



Mar Torrijos bisitaria Leintz Gatzagako alde zaharrean. 'PASAPORTE A WONDERLAND'

Herriaren eta Gatz Museoaren izen ona mundura zabalduz

Bisitari batzuek 'Pasaporte a Wonderland' izeneko webgunean Gatzagan bitakoa argitaratu dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Liluratuta geratu diren bisitariak izan dituzte Leintz Gatzagan. Ez bakarrik herriak duen arkitektura egituragatik, bertatik ikusten den paisaiagatik edo herriaren historiagatik. Gatz Museoak dituen ezaugarri eta berezitasunak eta Dorletako Ama txirindularien patroien historiaren jakin-minak bultzatuta, Aitor Casado legazpiarrak eta Mar Torrijos murtziarrak Gatzagako irudiak, historia eta iritziak partekatu dituzte, eurek egindako *Pasaporte a Wonderland* izeneko webgunean.

Munduan zehar egiten dituzten bidaien kontakizunak egiten dituzte webgunean, eta Gatzagako bisitaren argitalpenak ere izan ditu interesdunen iruzkinak. Hala, jendea herrira erakartzeko aletxoak jarritz.

Lan bikaina, eskertzekoa

Gatz Museotik adierazi dutenez, bisitari horiek egindako argitalpena "oso osatua" da. "Eskertu beharrean gaude egin duten lanagatik. Munduan zehar egiten duguna zabaltzeko eta bisitari berriak erakartzeko modu bikaina da".

EUSKARALDIA

60 herritarrek izena emanda, txapa banaketa datorren astean

Izena emateko azken astean zerrenda handituko dutela aurreikusten dute Euskaraldia batzordeko kideek

I.B. LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagan, egueneko datuen arabera, 60 herritarrek eman dute izena Euskaraldian. 40 lagunek *ahobizi* moduan eta 20 gatzagarrek *belarriprest* bezala.

Ariketa egunetarako txapak, berriz, datorren astean banatuko dituztela adierazi du Jon Zuazabeitiak, Gatzagako batzordeko koordinatzaileak: "Herri txikia izanda, herritar guztien artean harreman zuzena izatea-

ren abantailari helduko diogu. Hau da: Euskaraldia batzordeko kideok -Nerea, Ibon, Dorleta eta Jon- jarriko gara *ahobizi* eta *belarriprest* bakoitzarekin harremanetan bakoitzari dagokion txapa eskura emateko. Horretaz gain, behar izanez gero, udal-txeaz eta Labidea herriko taberna-dendaz ere baliatuko gara, eta banderak ere datorren astean banatuko ditugu. Batzordean uste dugu zerrenda handituko dela datozen egunotan...".



Eguazten iluntzeko agerraldia: Ainhoa Lete, Juan Luis Gonzalez, Gorka Artola, Nagore Iñurrategi eta Ekaitz Aranberri. JOKIN BEREZIARTUA

Birusak bi milioi eurotik gorako faktura eragin du

Martxotik gaur egunera arteko neurriez eta aurrera begirakoez osatutako plana aurkeztu du Gobernuak, 2.188.000 euroko gastu-aurreikuspenarekin; bonu berrietarako 120.000 euro baliatuko dira eta Arrizuriaga eta Miguel Altuna zena martxan jartzeko, 300.000 euro

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiak eragindako larrialdi egoeran sortutako premietatik eta oinarritzko beharretatik hasi eta testuinguru berrira, kudeaketa goitik behera egokitu behar izan du Udalak. Udal Gobernu maiztza ezker ari da COVID-19ari aurre egiteko plan integrala garatzen, eta eguazten iluntzean egin zuten aurkezpena. Hiru

ardatz nagusi ditu: COVID-19ak eragindako larrialdi egoeraren eragina txikitzea, sektore zaurgarrienak lehenestea eta ekonomia suspertzen laguntzea.

Martxotik gaur egunera hartutako neurrietarako eta aurrera begirakoetarako 2.188.000 euroko inbertsioa egin du Udalak, Udal Gobernuaren arabera. Aurrera begirako ekimenetarako

eta lanetarako 1.095.352 euro bideratuko dira. Adibidez, zaurgarrienei oinarritzko elikadura bermatzeko laguntzetan 60.680 euro gastatuko dira; herriko merkataritza biziberritzera 54.000 euro bideratuko dituzte –bonuen kanpainaz harago–; turismo plana idazteko 30.000 euro; eta kaleko zein eraikinen desinfekzio-rako 65.729 euro inbertituko dira.

Bonu berrien baldintzak, gaur

Askotariko neurriak iragarri dituzte, neurri sozioekonomikoei, kultura eta aisialdikoei eta eremu publikoaren erabilgarritasunari dagozkienak. Besteak beste, merkatarientako bonu berriak aterako dituzte eta gaur egingo dituzte publiko baldintza guztiak. "Dena gertu" dute bonu berrietarako, baina eguaztenean ez zituzten xehetasunak eman nahi izan, besteak beste, merkataritza guztiak lehenago plataformarekin bat egitea nahi dutelako. Bonuen kanpaina berrirako 120.000 euro bideratuko dira.

Ostalariei laguntzeko borondatea

Beste sektore kaltetuenetako bat da ostalaritzarena. Udal Gobernua "oso kezkatuta" dago sektore horren egoerarekin, eta, oraindik neurririk zehaztu ez badute ere, "borondate irmoa" erakutsi dute ostalariei laguntza gehigarriren bat emateko. Martitzenean bildu ziren eratu berri den ostalarien elkartearekin, Sustapen Ekonomikorako zinegotzi Ainhoa Letek azaldu zenez: "Lehen itxialdian tasetan hobari nabarmenak izan zituzten herriko ostalariek eta logikak diosku jarduera etetera derrihortuta dauden bitartean tasok ez kobratzea. Hala ere, laguntza gehigarriren eman nahiko genieke epe motz edo ertainean".

Leteren arabera, Bergararentzat ere "oso sektore garrantzitsua" delako ostalariena: "Lehen itxialdia gogorra izan zen, uda nola edo hala igaro dute, baina bigarrenex itxera behartuta egoteak asko konplikatzen die egoera; martitzenean egindako bileran, feedback oso kezagarria jaso genuen euren partetik". Datorren astean berriro batzartuko dira.

Arrizuriaga eta Miguel Altuna

Bestalde, eremu publikoek behar berriei erantzuteko erabilgarri jarri ahal izateko behar diren egokitzapenak egiteko 300.000 euro bideratzea aurreikusten dute. "Ikusi da pandemia sasoian aire libreko eremu publikoak modu egokian erabili ahal izateak nolako onurak ekarri ditzakeen, eta ikusten genuen behar-beharrezkoa zela uneotan erabilgarri ez ditugun eremu batzuk erabiltzeko moduan jartzeari; adibidez, Arrizuriagako parkea edo Miguel Altuna zaharra martxan jarri nahi ditugu lehenbailehen. Ikusiko dugu 300.000 euroko partida horrek noraino ematen digun", zehaztu zuen Gorka Artola alkateak.

Kultura eskaintza, "beharrezkoa"

Horrez gain, kultura arloari bultzada ematea ezinbesteko ikusten dute, betiere neurri guztiak zorrotz beteta: "Kultura kontsumitu ahal izateko aukera ematea beharrezko ikusten dugu herria bizirik mantentzeko". Eta Agorrosingo kirol eskaintza asko murriztu bada ere azken asteotan, herritarrendako alternatiba batzuk eskaintzea badute lehen-tasunen artean. Kultura eta kirola pandemiara egokitzeko 150.000 euro bideratuko dituzte.

Plana dokumentu "dinamiko" dela azpimarratu dute, egungo testuinguru ezegonkorak eskatzen duen erakoa, eta beharrak sortu ahala haiei erantzuteko moldatuko dena.

ERAGINA TXIKITZEA ETA ZAURGARRIENAK BABESTEA DIRA PLAN INTEGRALAREN ILDO GARRANTZITSUENAK



Lasa Jatetxea

Koldo Lasa gure sukaldariaren
Artisau Turroiak

Salgai gure jatetxean
edo restaurantelasa.es webgunean

Zubiaurre Kalea, 35 · Bergara

943 761 055



Indarkeria matxistaren izurriak txertoa behar du

Martitzenean abiatu zituzten azaroaren 25aren bueltako ekitaldiak, emakume helduen kontrako indarkeria mahai gaineratzeko saio batekin; COVID-19ak egitaraua baldintzatu dezakeen arren, ikastaroak, hitzaldiak eta Martxanteren performancea antolatu dituzte

Jokin Bereziartua BERGARA

Patriarkatuak eragindako matxismoak eta indarkeria matxistak aspalditik kutsatu zituen gizartearen erroak, eta, gaur-gaurkoz, ez da ezagutzen izurri horren aurkako txertorik. Hori bai, Bergaran hainbat eragile batu dira aurten ere azaroaren 25aren bueltako kanpaina antolatzeko, argi dutelako indarkeria matxista desagerraraztea gizarte osoaren ardura dela. Hala, COVID-19aren pandemiak eragindako egoera zailean izanda ere, egitaraua antolatu dute. Hain zuzen, martitzenean abiatu zuten egitaraua, Oneka eta Duintasuna elkarteek antolatutako hitzaldi batekin, emakume helduen kontrako eguneroko indarkeria mahai gaineratzeko asmoz. "Jende gutxi hurbildu arren, oso interesgarria izan zen", azaldu du Duintasuna elkarteeko Itziar Usandizagak.

Ikastaroak, antzerkia eta zinema

Abenduaren 9ra bitartean askotariko ekintzak antolatu dituzte; betiere, pandemiaren bilakaeraren menpe. Astelehenean, hilak 16, autodefentsa digitalaren gaineko ikastaroa egingo dute, Irizar jauregian (18:00). Eta hilaren 17an, ordu eta leku berean, *Arrakala orgasmikoa: nola patriar-*



Martxantereak 25eko azaroaren 25erako antolatu zuten ekitaldia. JOKIN BEREZIARTUA

katuak ohean ere jarraitzen gaituen hitzaldia eskainiko dute. Azaroaren 28an, *Birritan bortxatua* antzezlanaz gozatu ahal da, Seminarixoan (19:00). Eta abenduaren 9ko zineklubak (20:00) *Florencia* pelikula eskainiko du.

Martxantereak bi helburu dituzte

Ez dago azaroaren 25a ulertzerik Martxanteren parte-hartze barik, eta "ekitaldi berezi bat" antolatu nahi dute, San Martin plazan (19:00): "Azken urteotako ildoari eutsiz, baina testuingurura egokituta, entzute, irakurketa

eta salaketa ekintza bat egingo dugu, herritarrek ere parte hartzeko. Askotariko ahotsak ekarriko ditugu, eta performance txiki bat egingo dugu. Neurrien zain gaude, ea ze punturaino egin ahal den". Azaroaren 20rako hitzaldi bat ere antolatu dute, kartzela zaharrean (18:30), mugak eta migrazio politikak hizpide izango dituena.

Bestalde, azaldu dute bi helburu finkatu dituztela ikasturte honetarako: "Mundu martxaren ekintzaren hariari heltzea eta justizia feministan sakontzea".



NIRE USTEZ

AINHOA NARBAIZA IRIZAR

Ondoezak

En el ring del malestar: terapia versus política artikulua azkenaldian irakurri dudak interesgarria da (*El Salto* egunkaria, Maria Zapata egilea). Militantzia espazioen eta beste harreman askoren psikologizazioak dihardu, terapiak indibidualizazioa eta espazio askoren komunitate zentzua galarazi duela azaltzen du. Norbere osasuna besteenaren gainetik jartzen ari dela sumatzen dut nik ere eremu ezberdinetan, *ni-a* erdigunean jarriz etengabe. Esanguratsua iruditzen zait terapia askotarikoetara jotzeko sortu diren premia berriak. Zenbait min eta sufrimendu arintzeko prozesu terapeutikoak ezinbestekoak dira, baina egunerokoan bizi ditugun ezinegon gehienak soluzio indibidualekin estaltzen ari garela uste dut, merkatuaren interesak tartean daudela. Muskulatura soziala oso ahul dugulako izan daiteke? *Gure ondoezak politizatzen hasi ezean, jai dugu*, dio testuak. Arazo horiei buelta emateko ez dago makilatxo magikorik, ez dago eguzkitan erretako opilik. Zarata ateratzeaz gain, kolektibo eta mugimenduetara arrimatu eta heldu diezaiozun horri, negu gogorra dator eta.



ARANZADI

Gonak jantzi, generoa erantzeko

Bolo-bolo ibili da asteon Bilboko mutil bati ikastetxera gonarekin joateagatik gertatutakoa. "Mikelen lagunek, alua edo zakila izan, gona jantzi eta kanpaina izugarria abiatu dute sare sozialetan. Gurera ere heldu da; LHko 6. mailako ikasleok generorik gabeko arropa eta gure gustu zein aukerak errespetatzea eskatu nahi dugul!", adierazi dute Aranzadi ikastolakoek.

Batzen gaituen
esentziak
izan dezala
presentzia

DANOBTGROUP



HARTU PARTE DANOBATGROUPen
EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi **Errigora** ekimenak sortutako bi saski beltz!

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2020.html>
*Parte hartzeko azken eguna: 2020ko azaroak 30, 00:00



Goienagusiren ekarpena areagotu du pandemiak

Ikasturte hasieratik gaur arte aurreikusita zituzten bederlatzi saioekin aurrera egin dute Goienagusikoek eta hitzaldiok modu telematikoan jarraitzen dituzten bazkideen zein herritarren kopurua gorantz doa; asteen jazza izan dute hizpide, zuzeneko eta guzti

Jokin Bereziartua BERGARA

Urriaren 7an ekin zion Goienagusik 2020-2021 ikasturteari, eta lehen hiruhilekorako antolatutako dituzten hemeretzi ekitaldietatik erdira iritsita, bat bera ere ez dute bertan behera utzi. "Oso zorrotzak ari gara izaten COVID-19ari aurre egiteko neurriekin, eta bazkideek ere oso serio hartu dute. Adineko pertsonak gara, arrisku taldekoak, baina garapen interesgarri baterako aukera eskaini nahi dugu, betiere osasun baldintza guztiak beteta; egin behar den guztia egiten dugu kutsatzeak ekiditeko", dio Goienagusiko presidente Lydia Fernandez de Lucok.

Txipa aldatu, eta aurrera

Bazkide askok txipa aldatu behar izan dutela gaineratu du, hala ere: "Pandemia aurretik bazkide askok baliatzen zituzten saioak elkarrekin egoteko. Gure helburu nagusia ikastea eta hausnarketa eragitea dira, baina saioak beti baliatu izan ditugu sozializatzeko ere. Horregatik, lehen saioan talderen bat sortzea logikoa da. Baina orain, hori ezin da egin, eta ez dugu egiten. Bazkideek berehala barneratu dute, fin-fin". Gainera, herri batetik bestera mugitzeko ziurtagiriak banatu zaizkie bazkideei, mugimendu akademiko gisa justifikatuta.

Ekitaldi guztiak aurrera egin dute, baina, bereziki, urriko azken asteburuaren ostean, "zalanza asko" izan zituzten aurrera egin edo ez erabakitzeke. "Urriaren 28an, eguaztena, Juanjo Alvarezekin genuen saioa eta zuzenean deitu egin genion, dagoeneko harremana badugu eta. Komentatu genion ez genekiela zer egin, guk jarraitu nahi genuela, baina bazirudiela dena itxiko zutela. Alvarezek berak, dekretua osorik irakurri ostean, esan zigun baldintzak betetzen genituela gure jarduerarekin



Jon Garcia del Val, Aitor Moreno eta Iñigo Zubizarreta, eguazteneko saioan. GOIENAGUSI

ORAIN ARTEKO SAIOAK NAHIERAN IKUSTEKO AUKERA DAGO YOUTUBEKO EUREN KANALEAN

jarraitzeko", zehaztu du Fernandez de Lucok. Orduan, zuzendaritza batzordea elkartu eta erabaki zuten aurrera egitea: "Arrasateko edo Bergarako udalek baimena ematen diguten artean, programarekin jarraitu dugu".

Hitzaldia eta kontzertua asteen

Eguaztenean bertan hitzaldi bat eta zuzeneko kontzertu berezi bat izan zuten Seminarixoan, Jon Garcia del Val Arrasate Musikaleko irakaslearen eskutik. 1930eko eta 1940eko hamarkadetakoz jazza izan zituen hizpide arrasatearrak, New Yorken sortutako swing estiloan zentratuta. Hitzaldiaren ondoren, gainera, kontzertu labur bat eskaini zuten Arrasateko bi lagunekin batera: Aitor Moreno –kontrabaxua– eta Iñigo Zubizarreta –gitarra–. Hain zuzen, hilaren 25ean beste saio bat gidatuko du

Garcia del Valek, 1940ko hamarkadako jazzaren barruko bebop estiloaz aritzeko; orduan ere ez da zuzeneko faltako, eta, Morenorekin eta Zubizarretarekin batera, Zigor Martinez bergararrak klarineta joko du.

'Streaming'-aren garrantzia

Goienagusiko presidente Lydia Fernandez de Lucok dio pandemia betean ere antolatzen ari diren saioak oso arrakastatsuak izaten ari direla: "Gaurkoa [eguaztena] 60 lagunek jarraitu dute modu presentzialean eta 40 lagunek streaming-etik; guztira, 100 lagun. Egungo egoera ikusita, oso zenbaki onak dira".

Arrasateko eta Bergarako saioak aintzat hartuta, urriko asistentziaren batez bestekoa da 80 lagunek bertatik bertara jarraitu dituztela saioak eta 20 lagunek, berriz, online: "Gero eta bazkide gehiago dira streaming-aren aukera baliatzen dutenak, eta asko ikasten ari dira. Uste dugu garrantzitsua dela aukera hori eskaintzea; are gehiago, kanal bat sortu dugu Youtuben, orain arteko saioak nahieran ikusteko, eta dagoeneko bisita askotxo dituzte".

EAJk Bizikidetzeta Mahaia berrartzeko eskatu dio EH Bilduri

Memoria Egunaren bueltan kaleratutako oharrean diote, besteak beste, gazteria hezea "oso garrantzitsua" dela

J.B. BERGARA

Azaroaren 10ean ospatu zen Memoria Egunaren bueltan kaleratutako prentsa ohar bidez, EAJk EH Bilduri eskatu dio aurreko agintaldian sortutako Bizikidetzeta Mahaia berrituzko: "Aurrerapausoak emateko nahiarekin sortu genuen. Bergararren eta gure herriaren erronka baita etorkizunean giza eskubideen urraketa saihestea eta bizikidetzan oinarritutako herria eraikitzea eta, nola ez, itxirik beharko luketen orbainak berriz ez irekitzea".

Belaunaldi berrientzat bereziki

Jeltzaleen arabera, belaunaldi berriei begira egin beharreko ariketa da: "Azken ikerketen arabera, belaunaldi berrien artean ezjakintasun handia dago gaiaren inguruan. Gazteria hezea oso garrantzitsua da, iragana oroimen ariketa batetik ezagutu eta ahaztu ez dezan. Argi dugu gure herria bizikidetzan oinarrituta eraikitzen jarraitu ahal izateko, aurrera egiteko, iragana ezagutu behar dela. Ezin dugu gertatu zena ahaztu, ezin da berriz gertatu".

Euskararen Eguna: lehiaketa abiatu du Danobatgroup taldeak

'Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia' lelo hartuta antolatu dute; hilaren 30era arte har daiteke parte

J.B. BERGARA

Danobatgroup taldeak lehiaketa antolatu du aurten ere abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Egunaren harira. *Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia* lelopean antolatu dute: "Enpresaren ingurune soziolinguistikoa begiratu eta kooperatiben izateko era eta konpromisoari jarraituz, leloak dioen moduan, euskara da batzen gaituen esentzia hori eta euskararak arlo guztietan presentzia izateari ematen ari zaio garrantzia azken urteetan. Presentzia

eguneroko lanean, teknologia berrietan, harremanetan, ikerketan eta garapenean... Herritar guztiengana iritsi nahiko gure lehiaketa honekin", diote.

Lehiaketan parte hartzeko argibide guztiak honako lotura honetan jarriko dituzte: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2020.html>. Azaroaren 30era arteko epea izango da lehiaketan parte hartzeko, abenduaren 3an irtengo da irabazlearen izena eta parte hartzaile guztien artean Errigorako hainbat saski zozkatuko dira.

OHARRAK

ZTB jardunaldiak: hitzaldiak nahieran

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldiak pandemiara egokitu behar izan dira eta online bidezko zerbitzu osatua ari dira eskaintzen. Hitzaldiak zuzenean jarraitzeko aukera dago, eta baita egin direnak nahieran ikusteko ere; Javier Tejadak, Bittor Rodriguezek, Susana Perezek eta Eneritz Zubizarretak gidatutako saioak ikus daitezke: www.ztbergara.eus.

'Egia bat' dokumentalaren estreinaldia

Gaur, hilak 13, estreinatuko dute *Egia bat. Bergara ezkertiar eta abertzalearen historia* dokumentala, Seminarixoan. Emanaldi bi izango dira, edukiera mugatuarekin: 18:00etan eta 19:45ean. 17:00etan hasiko dira sarrerak saltzen, txarteldegian.

"Kopa jokatzeko aukerak ditugula uste dut"

UR BERRAONDO METROPOLITANO HOCKEY TALDEKO LEHEN MAILAKO JOKALARIA

Lehen mailan jokatzeko du 17 urteko bergararrak, baita bere adinari dagokion zilarrezko kategorian ere; bietan Bilboko Metropolitano taldearekin aritzen da

Jone Olabarria BERGARA

Bigarren denboraldia du Ur Berraondo (Bergara, 2003) patin gaineko hockey jokalaria lehen mailan lehiatzen. Bergarako Burdinola taldean lehen pausoak eman ostean, hainbat denboraldi daramatza Bilboko Metropolitano taldearekin; azken biak, gorengo mailan. Era berean, bere adinagatik dagokion zilarrezko mailan ere lehiatzen da Berraondo, Metropolitano taldearekin hor ere.

Lehen mailan aritzen zara; zer moduz zabilta?

Hemen inguruan lehen mailan aritzen den talde bakarra da Metropolitano taldea. Bilbokoa da, eta, hortaz, han entrenatzen gara. Astean hirutan joaten gara, gurasoek eramanda. Taldean bada Bergarako beste jokalaria bat ere [Josu Otadui atezaina], eta txandakatuz joaten gara autoa eramateko. Partidak, baina, kanpoan izaten dira; asteburu honetan, esaterako, Kanariar uharteetan dugu partidua, eta joan den asteburuan, adibidez, Oropesan (Castello) izan genuen. Eskola egunik ez dugu galtzen, baina maila honek apur bat zailtzen ditu eskola kontuak.

Zilarrezko mailan ez duzue denboraldia hasi, baina nola doa lehen mailakoa, orainoz?

Une honetan, nik bi kategoriatan jokatzeko dut, zilarrezko kategorian ere banabil, nahiz eta oraindik ez dugun partidurik jokatu. Lehen mailan, baina, partiden erdiak jokatu ditugu dagoeneko; bi talde daude eta bi talde horietako lehen hiru sailkatuek Kopa jokatzeko dute, eta ostean, *play-off*-a. Uste dut Kopa jokatzeko aukerak baditugula, eta gerorako *play-off*-a ere ikusteko dago. Gaur-gaurkoz, gure taldeetik hirugarren sailkatuak gara; asteburuan taldeko lehen sailkatuaren aurka lehiatuko gara. Iaz Kopa irabazi zuen taldea da, etxean jokatu genuenean irabazi egin genien; hortaz, ikusteko dago.

Espainiako Federazioak antolatutako teknifikazio campusetarako deia jaso zenuen...

Autonomia erkidego bakoitzetik bi edo hiru jokalaria aukeratu dira, autonomia bakoitzak duen jokalaria kopuruaren arabera izaten da. Nire kasuan, bi urtez joan naiz Espainiako selekzioak antolatzen dituen teknifikazio saio horietara. Teknifikazioa lantzen da, gehienbat, hautatzailearekin harremanetan jarri eta apur bat elkar ezagutzeko oso lagungarriak dira. Euskadiko Federazioarekin ere izan nintzen aurretik, baina, kasu

horretan, infantil mailara arte dago aukera hori.

Etorikizuna nola ikusten duzu?

Entrenatzaile izateko kurtsoa ateratzen nabil eta epaile izateko formakuntza ere justu orain aterata berri dut. Datorren ikasturtera begira, Bilbon ikasten badut, Metropolitanoarekin jarraitu nahiko nuke. Bestela ere,



Ur Berraondo bergararrak bi denboraldi daramatza lehen mailan lehiatzen. U.B.

Burdinola taldean entrenatzaile jardun edo taldeari lagundu nahiko nioke.

Nolako harrobia dago Bergaran? Laguntzen egoten naiz, eta ha-

rrituta geratu nintzen dagoen haur kopuruarekin. Hala ere, baliabideak falta dira; orain, kiroldegia obretan dago eta desabantaila izugarria da.

Saray Pacchiano

Merka Gustu Express supermerkatuko dendaria

Egunero zabalik, kalitatezko eta bertako produkturik onenak auzotarrei gerturatzeko lanean

Preziorik onenak eskainita, etxez etxe zerbizua ematen du Merka Gustu Express supermerkatua. Gainera, egunero zabaltzen dute.

Irail hasieran berrikeri zuten Mintegi kalean dagoen Merka Gustu Express supermerkatua. Auzotarrei "zerbitzu garrantzitsua" ematen die, urteko 365 egunetan.

Zer ordutegi duzue? Astelehenerdik larunbatera 09:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:30era dugu zabalik. Domeketan ere goizez zabaltzen dugu, 13:30ak arte. **Etxeko zerbitzua ere bada?** Bai; auzotarren batek beharra badu, etxeraino eramaten diogu erosketa, gainkosturik gabe.



Merka Gustu Express-ko Saray Pacchiano supermerkatuan.

“ Kalitate goreneko produktuak eskaintzen ditugu, beti gertuko ekoizle eta banatzaileekin lan eginda ”

Zer produktu dituzue?

Kalitate goreneko produktuak, beti gertuko ekoizleen alde eginda. Herriko banatzaile eta ekoizleekin egiten dugu lan. Harategiaren kasuan ere, aurretik

hemen zegoen harakinak ekartzen zituen produktuekin lan egiten dugu, bezeroei betiko eta kalitatezko produktuak eskaintzeko. Ogia ere badugu egunero, guk laboratutakoa.

Binakako txapelketa malgutik kanpo da Arrate Bergara

Lau eta Erdiko Laboral Kutxa Emakume Master Cup Txapelketa bertan behera utzi behar izan zuen antolakuntzak, Nafarroako eta Errioxako pilotariak euren herrialdeetatik irten ezinda egonagatik. Horren ordez, baina, binakako txapelketa malgua abiarazi zuten azaroaren 4an. Bi multzotan banatutako zortzi bikotek hasi zuten txapel-

keta; tartean, Arrate Bergara pilotari bergararrak ere bai.

Zapatuan Guardian jokatu zuen Bergarak partida, Iera Agirrearekin. Bikoteak ezin izan zuen partida irabazi, eta, lehia estuaren ostean, 22-15 galdu zuten Gentzane Aldairen eta Olatz Arrizabalagaren aurka. Hala, txapelketatik kanpo geratu da bergararra. Konfinatuta zegoen Nora Mendizabalen ordez ere jokatu zuen, domekan, Larrarterekin, Aldai-Orbegozoren aurka; 22-20 galdu zuten.



ZABALDU BERRIA

PREZIORIK ONENAK! • EGUNERO IREKITA • ETXEZ ETXEO ZERBITZUA

Mintegi 3 Bergara • 943 53 30 17



Galtzerdik eta Leotardok abentura ugari biziko dituzte igerilekuan, soroslearen begiradapean. LANKU KULTUR ZERBITZUAK

Igerilekuko abenturak, hausnarketarako tresna

Lanku Kultur Zerbitzuak-ek haurrentzako 'Urpekakaria' lana ekarriko du bihar Seminarixora. Aissa Intxaustik eta Eneko Arratek antzetzutako piezak ikuslerik txikienen sentsazioak azaleratuko ditu, eta gai askoren gainean hausnartzera animatu

Jone Olabarria BERGARA

Bihar, azaroak 14, iritsiko da Seminarixora *Urpekakaria* haurrentzako antzerkia, 18:00etan. Lanku Kultur Zerbitzuak-en eskutik, Galtzerdi eta Leotardo protagonista dituen antzezlanak igerilekuan topo egin duten lagun abenturak kontatzen ditu.

Ur azpiko kontuak, azalera

Ane Labakak eta Miren Amurizak idatzitako gidoia jarraituz, bihurrikeria ugari taularatuko dituzte Aissa Intxaustik eta Eneko Arratek bizitza ematen dieten protagonistek: "Ur bazterrean erdi gogaituta daudela, bihurrikeria bat otuko zaie: zergatik ez hondoko tapoia aurkitu eta igerilekua hustu?".

Hala, eskura dauzkaten gauzakin urperatzeko jantzia prestatu eta isurbidearen bila abiatuko direla azaltzen du Lankuk. Dena den, igerilekuan oztopo bat aurkituko dute bi umeek euren ur azpiko abenturan: denbora guztian eurak zelatzen

ari den sorosle petrala saihestu beharko dute.

Hausnarketarako pieza

Protagonistek askotariko sentsazioekin egingo dute topo igerilekuan daudela – arintasuna, itomena, plazera, hozkirria...–, eta, hain zuzen ere, "gogoeta txiki bat egiteko aukera" emango die sentitu eta ikusten ari diren guztiak: "Murgilaldian zehar etengabe egingo dute topo beren gorputzekin; bakoitzak berearekin, hala nola lagunarekin edo igerilekuko gainontzeko erabiltzaileenekin: umeak, helduak, adinduak, aniztasun funtzionala duten igerilariak...". Igerilekuan protagonismo berezia izango dute, Galtzerdi eta

"IKUSLE TXIKIEK ANIZTASUNAZ EDOTA GENERO-ROLEZ HAUSNARTZEA DA PIEZAREN HELBURUA"

Leotardorekin batera, aulki gurgildunean dabilen Urepel igerilari abilak eta adineko emakume batek.

Azaldu dutenez, hain justu, horixe da proiektuaren xedea: "Modu sotil eta umoretsuan, ikuslerik txikiak beren gorputzei begira jarri eta aniztasunaz, sexualitatez, genero-rolaz... hausnar dezaten zirikatzeara".

Neurri zorrotzak beteta

Udalak ezarritakoaren arabera, antolatutako ekitaldi eta jarduerak guztiak babes eta higieneturri zorrotzekin egingo dira; maskara nahitaez erabili beharko da, eta ezin izango da kendu ikuskizunak irauten duen bitartean. Seminarixoran zehar pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatu behar da, baita langileen seinaleak eta jarraibideak.

Orubete iraungo duen ikuskizunerako sarrerak eskuragarri daude Ticket.kutxabank.es webgunean, lau euroren truke.



Seminarixoko harmailak, pandemia egoeran. GOIENA

Kultura ordutegiak aldatuta eta lau emanaldi bertan behera

COVID-19ari aurre egiteko neurri berrietara moldatzeko, Kultura Sailak berregokitu egin ditu emanaldiak

Jone Olabarria BERGARA

Azaroaren 7tik aurrera jarri ziren indarrean ordutegi berriak, eta, horien baitan, kultur jarduerak 21:00etarako bukatuta egon beharra jasotzen da.

Zinemari dagokionenez, domeketako emanaldiak 16:00etara –haurren kasuan– eta 18:30era aurreratu dituzte. Astelehene-tako saioa eta egubakoitzetako 18:30ean hasiko dira. Eguaztetenan egin ohi den zinekluba ere 18:30era aurreratu dute.

Azaro eta abenduko eskaintza

Hilaren 20rako aurreikusita zegoen Xabi Solanoren *Bi* kontzertuak bere horretan jarraitzen duen arren, 19:00etara aurreratu dute.

Abendurako ere bi emanaldi daude antolatuta: hilaren 3an Hezurbeltzak taldearen kontzertua izango da, 19:00etan; eta hilaren 11n, *Euskal kondairak*

musikarekin, Toti Martinez De Lezearen eta Bergarako lau musikariren eskutik, 19:00etan.

Bertan behera

Azaroaren 15ean 12:00etan Seminarixoran egitea aurreikusita zegoen Bergarako Musika Bandaren Santa Zeziliako kontzertua bertan behera geratu da. Egun bererako aurreikusitako gazte-txoeren dantza askatuko txapelketa ere suspenditzeko erabakia hartu dute.

Era berean, azaroaren 27an 20:30ean Seminarixoran egitea aurreikusita zegoen Bergarako Orfeoien eta Orfeo Gaztearen kontzertua bertan behera geratu da. Eta hilaren 29an osoko bilkuren aretoan egitea aurreikusita zegoen Bergarako Txistulari Bandaren Santa Zeziliako kontzertua eta euskal emakume konpositoreei omenaldi txikia ere suspenditu dituzte.

Zineklubaren barruan, Lander Garro izango da Seminarixoran

Datorren eguaztenean, hilak 18, *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* pieza iritsiko da zineklubera. Dokumentalak derrigorrezko soldadutzaren aurka borrokatu ziren sei intsumisoren istorioa kontatzen du. Emanaldiaren ostean, Lander Garro zuzendariarekin berba egiteko aukera izango da. Era berean, azaroaren 25ean, *Papicha* film aljeriarra

ikusteko aukera egongo da; 90eko hamarkadan Aljeriako hiri unibertsitario batean bizi den emakume gazte baten istorioa kontatzen da bertan. Estilista izateko ametsa du hark.

Neurri murriztaile berriek 18:30era aurreratu dituzte film proiektzioak. Eta gogoratu behar da zineklubaren baitako proiektzioak jatorrizko bertsioan direla, azpitoluekin. Sarrerak emanaldia hasi baino orubete lehenago eskura daitezke, Seminarixoko txarteldegian.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO
PROGRAMAZIOA



ORAIN ERE,
%100 EMATEN

HITZALDI SORTA

ZAPATUETAN 18:00ETAN

DOMEKETAN, 12:00ETAN ETA 20:00ETAN (ERREPIKAPENA)

'ZERU URDINA, OSKORRIA ETA GAUAREN ILUNTASUNA'

AZAROAK 14

JESUS ARREGI, ASTROFISIKAN DOKTOREA

'KORONABIRUSAK: PANDEMIEN ERAGILEAK'

AZAROAK 21

MIREN BASARAS, MIKROBIOLOGOA

ANTOLATZAILEA: GOIENAGUSI

'MUNDUA WASHINGTONERA BEGIRA'

AZAROAK 28

MIKEL REPARAZ, KAZETARIA

ANTOLATZAILEA: GOIENAGUSI

'ARLO SOZIOEKONOMIKOA ETA HEZKUNTZA'

ABENDUAK 5

ENERITZ GARRO, LEIRE OKARANTZA ETA KIKE AMONARRIZ

ANTOLATZAILEA: AED, EKIN ETA TXATXILIPURDI

'XABIER LETE'

ABENDUAK 12

ALEX GURRUTXAGA, LITERATURAN DOKTOREA

ANTOLATZAILEA: GOIENAGUSI

'MAGIA PARRASTAN'

ABENDUAK 19

IMANOL ITUIÑO, MAGOA

ANTOLATZAILEA: GOIENAGUSI


'IKT-AK ETA AISIALDI BIRTUALA'

ABENDUAK 26

IGOR LETURIA, OLATZ ARTOLA, MAITANE

JUNGUITU ETA AIORA MUJIKA

ANTOLATZAILEA: AED, EKIN ETA TXATXILIPURDI



Jesus Arregi, Astrofisikan doktorea.

"Ziurgabetasun honekin ezin da erabakirik hartu"

SERGIO SANCHEZ MOX TABERNAKO UGAZABA

Eusko Jaurlaritzak iragarritako dirulaguntzaren berria pozik hartu duen arren, ostalariek zalantza asko dituztela eta "egoera oso ezegonkorra" dela aitortu du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Gipuzkoako Ostalaritza Elkar-terko kide da Mox tabernako ugazaba Sergio Sanchez. 20 urte daramatza ostalaritzan lanean, eta orain, aurrera egin ahal izateko bide berriak aztertzen dabilela adierazi dio GOIENARI Sanchezek.

Zapatuko manifestazioan herritarrek babesa erakutsi zizueten.

Bai; antzuolar ugari bat egiten du gure aldarrikapenekin. Lagunak eta familiakoak ere bertan izan ziren. Baina orain, inoiz baino gehiago, aurrera egin dezagun beharrezkoa dugu gure bezeroen babesa edukitzea.

Negozioa aurrera eramateko bestelako bideak aztertzen diharduzu?

Konfinamendu sasoiaren, elikagaiak etxera eramateko zerbitzua jarri nuen abian. Oso gogorra izan zen, neuk hartu bainuen nire gain etxeetara, banan-banan, banaketa egitearen ardura. Egia da berriro etxera eramateko zerbitzua aztertzen ibili naizela, baina Mutuak ohartarazi nau esanez 450 euroko laguntza galduko dudala eramateko janari zerbitzua jarriz gero. Inpotentzia eta ziurgabetasun handia daukagu. Ez dakigu zenbat denborarako izango dugun negozioa itxita, eta erabakiren bat hartzea oso zaila da.



Sergio Sanchez ostalaria Mox taberna aurrean. MAIDER ARREGI

"UDALAREKIN HARREMANETAN IZAN GARA OSTALARIK; HAIMA BAT JARTZEKO ASMOA ERE BANUEN"

Laguntzak bideratuko dituzte.

Bai, eta berri ona da; dirulaguntza emango dutela esan duten arren, ezegonkortasun handiaz bizi dugu egoera, eta ez dakigu noiz arte egongo diren tabernak itxita. Niri dagokidan laguntza

hiru mila euro lirateke, eta horrekin 2-3 hilabetez egin dezaket aurrera; eta gainontzeko hila-beteetan zer? Inork ez daki zein egoeratan egongo garen, eta zalantza asko ditugu argitzeke.

Udalarekin harremanetan zaudete.

Hasieratik. Orain, ordea, dena geldi dago. Nire asmoa zen haima estiloko aterpea jartzea terrazan neguari aurre egiteko. Baina ez dakit taberna noiz zabalduko dudana eta ezin dut inbertsiorik egin, gero dena bertan behera gera dadin.

EUSKARALDIA

Izena emateko mahaia egongo da Kalebarrenen gaur eta bihar

Euskararen Egunean, Euskaraldiaren gainean hausnarketa egiten duen saio umoretsua izango da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Euskaraldia abian izango den egunetarako hainbat ekintza antolatzen dihardu Antzuolako Euskaraldiaren batzordeak. Hala, azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo dira kultura ekintzak horiek. "Gure asmoa da iazko irailean Aiherran egin genuen Kabalkadaren emanaldia eskaintzea. Hainbat egunetan eskaini gura dugu Torresoroan, baina oraindik dena lotzeke dugu. Euskararen Egunerako, aben-

duaren 3rako, aldiz, *Txor txor* bakarriketa umoretsua lotua dugu jada". Kultur eskaintza honen helburu nagusiak *ahobizi* eta *belarriprest* rolak eta hauek adierazten dituzten portaerak gizarteratzea eta ohiturei buruzko gogoeta egitea dira.

Gainera, izena emateko mahaia bi egunetan jarriko dute Kalebarrenen: gaur, egubakoitza, 19:15etik 20:30era bitartean, eta bihar, zapatua, eguerdiko hamabietan.

Beñardo Kortabarria alkatea 'Harira' saioan martitzenean

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarria Goiena telebistako *Harira* saioan izango da azaroaren 17an, datorren martitzenean.

Saioa 21:30ean hasita eskainiko da; bigarren aukera bat, ordea, ere izango du ikus-entzuleak, 23:30ean hasita; www.goiena.eus webgunean ere zintzilikatuko dute ondoren. Eneko Azkarate kazetariak elkarrizketatuko du,

eta, herriko kontuez batera, gaurkotatunari lotutako gaiak izango dituzte berbetarako gai *Harira* saioan.

Antzuolarrek ere izango dute galderak egiteko aukera. Hainbat bide erabili dezakete galderak alkateari helarazteko: Whatsapp edo Telegram bidez (688 69 00 07) edo posta elektronikoz (berriak@goiena.eus).

Astelehena, azaroak 16, izango da azken eguna Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateari herritarrek galderak bidaltzeko.

GORA ETA BEHERA



Burdinazko atea, kolpatuta eta apurtuta

Antzuolako Udalak Landatxopek atzealdean duen terrazarako sarrera-atea dagoeneko konpondu duen arren, herritarrek dituzten horrelako jarrerak salatu gura ditu antzuolar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Herritarrek ostalariekin bat eginda

Zapatuan, hilaren 7an, egindako manifestazioan herritar ugari parte hartu zuen Beheko auzotik abiatu zen manifestazioan. Antzuolako ostalaritza eraila zioen pankartak.

Bezeroen beharra eta babesa orain, inoiz baino gehiago, dela beharrezkoa azpimarratu dute herriko ostalariek. "Aurrera begira ekimen gehiago egin edo ez aztertzen gabilta".



Beheko auzotik abiatutako manifestazioa. ANTZUOLAKO OSTALARIK



Antzuolako Movember taldearen aurkezpen argazkia. MIKEL LARRAÑAGA

Mezua duten maskarak, katea eten ez dadin

Antzuolako Movember taldeak egoerara egokitu behar izan du, eta domekako ekimena bertan behera utzi du. Hala, maskarak oparitzeko kanpaina jarri du orain taldeak abian. "Mezua daramaten maskara oparitzeko katea abian jarri dugu jada"

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Movember taldeak egoerara egokitu behar izan du, eta domekarako antolatuta zuen kalejira eta maskara salmenta bertan behera utzi du. "Bizi dugun egoera zein den ikusita, bestelako ekimen bat gauzatzea erabaki dugu. Hala, azaroan zehar aukerarik suertatzen bada egingo dugu kalejira", kontatu

du Gotzon Madinak, Movember taldeko kideak. "Asteburuan iritsiko dira maskarak eta gura duguna da norbanako bakoitzak mezu bat idatzi eta lagun bati maskara oparitzea. Era berean, maskara jasotzen duenak, kateari jarraikiz, beste lagun bati oparitu beharko dio. Helburua horren garrantzitsua den prebentziorako dei egitea da".

Prebentzioa da gakoa

Juan Pablo Sanz Jaka urologoa-ren hitzaldia atzeratu egin dute. "Iaz, harrera oso ona izan zuen; berriro egingo dugu, nahiz eta azaroa pasata egon. Izan ere, 50 urtetik gorakoendako prebentzioa egitea garrantzitsua da. Prostat eta barrabiletako minbiziak ez du abisatzen, eta sentsibilizazio kanpina sustatuko dugu".

Kalean edatea debekatuta dagoela gogorarazi du Udalak

Bizi den egoeraren aurrean, Antzuolako Udalak, beste behin, elkartasunez jokatzeko dei egin die antzuolarrei. "Udaletik gogorarazi nahi dugu kalean alkohola edatea erabat debekatuta dagoela. Azken dekretuak berriaz aipatzen du debekua, baina, aipatuko ez balu ere, elkartasunez jokatu eta horrelako jarrera berekoak baztertzeko momentua da", ohartarazi du.

Era berean, azpimarratu du harreman zuzena duela Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren Sailarekin. "Baheketa egitearen erabakia datuetan oinarrituta hartzen dute, intzidentzia-mailan, fokuen tipologia... Lakurekin harremanetan gaude".

Bertan behera drogen eta menpekotasunen gaineko tailerra

Gazte Txokoak antolatuta ondorengo bi asteburuetan egitekoak ziren nerabentzako droga eta menpekotasunen gaineko tailerra bertan behera geratu dela jakinarazi du Idolaz elkarteak, izena ematera inor animatu ez delako. "Pena da, baina gazte txoek ez dute tailerrarekiko interesik azaldu. Babes neurri guztiak hartuta bi asteburutan ginen egitekoak, baina ezin izango dugu egin", azaldu du Gazte Txokoko koordinatzaile Zumaia Elkorok. Hala ere, Gazte Txokoak aurrera segitzen du eta herriko gazteekin aztertzen dihardute egin daitezkeen ekintza posibleak. "Entzun egingo ditugu ekintzak antolatu aurretik", aitortu du.



NIRE USTEZ

AITZOL ITURBE

Denona da erantzukizuna

Larunbatean ostalarien protestan egon nintzen. Bai beraien ahotik eta baita ere ezkerreko alderdien aldetik eman beharreko dirulaguntzen inguruko aldarrikapenak egin dira. Ez da gehiegi aipatu ordainketak bertan behera uztea. Alegia, ordaindu ezin duenak ez dezala izan ez alokairurik, ez hipotekarik, ez argindarrik, ez Internetik, ez urrik, ez jatekorik, ez ezinbesteko beste ezer ordaindu beharrik. Zergatik ez da horrelako ezer planteatzen? Zati handiengan enpresa handiek kontrolatzen duten hornikuntza horretan negozio galanta dagoelako. Niri –eta pentsatzen dut langile gehienoi– ez lidake axolako denbora batez nire lanarengatik ez kobratzeak, oinarritzko beharrak aseta izanez gero. Zergatik ez da egiten, beraz? Orain egiteak aurrerantzean iraunkorki gauzak beste modu batera egin daitezkeela erakusten duelako. Eta ez, sistema ez da ukitzen. Aurretik ere jende asko zegoen egoera eskasean, orain jende gehiago eta gertukoagoak. Erakunde publikoei eskaria egitea ondo dago, baina ez badute ezer egiten –eta ez dute egingo–, geu antolatu beharko gara baliabideak eta aberastasuna banatu eta ezberdintasunak gutxitu eta deuseztatzeko. Erantzukizunez jokatzeko garaia da.

Maskarak oparitzeko kanpaina

Oraingoan, 50 maskara iritsiko dira herriko hainbat gunetara –Amaia, Xinkona eta Ogiberri, 6 euro–. "Hasierako gure erronka 50 saltzea da; gehiago beharko bagenu, ekarriko genituzke".

Mezuen katea

"Maskara lagun bati oparitu eta hark beste bati oparitu beharko dio, katea eten ez dadin; eta mezu pertsonala eroango dute".



Movember maskara. MIKEL LARRAÑAGA

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EUSKARALDIA



Euskaraldia batzordearen informazio-mahaia, eguaztenean, plazan. U.S.Z.



Euskaraldiaren banderaxo bat Elgetan. L.Z.L.

Euskaraldiaren banderaxoak salgai

5 eurotan daude salgai, eta Euskaraldia girotu eta etxeetako leihoak eta balkoiak kolorez janzteko dira. Topaguneak esan du salmentatik jasotako dirua elkartasun kutxa bat sortzeko izango dela, Euskaraldia eta halako egitasmo estrategikoak bultzatzeko.

Jaso daitezke 'ahobizi' eta 'belarriprest' txapak

Elgetako Euskaraldia batzordea hasita dago txapak banatzen. Aste bukaera honetan egunero izango da mahaia kalean eta hurrengo asteko lanegunetan udal liburutegia izango da banaketa puntua. Eskatzen dute ez uzteko zeregin hori azken egunera arte

Goiena komunitatea

Euskaraldia batzordea / ELGETA

Zazpi egun barru, azaroaren 20an, emango diogu hasiera Euskaraldiaren bigarren edizioari. Euskal Herriko punta batetik bestera ehunka batzorde antolatu dira. Zalantzarik gabe, egoerak baldintzatutako Euskaraldia izango da, eta prestaketa hilabeteotan ez dugu aurreko

edizioan besteko presentziarik izan kalean. Ez zen egokiena. Baina ariguneen identifikazioa, *ahobizi*-en eta *belarriprest*-en izen-ematea eta, orain, txapen banaketa aurrera doaz.

Azken datuen arabera, 149 elgetarrek eman dugu izena Euskaraldian: 130 *ahobizi* eta 19 *belarriprest*. Izen-emateak zabalik jarraituko du hilaren 19ra

arte. Konpromisoa da azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean txapa soinean eramatea, eta euskarazko hartu-emanak lehenestea: lehen hitza euskaraz beti, *belarriprest* direnei ere euskaraz egin, nahiz eta haiek, tarteka, erdaraz erantzun, hizkuntza ikasten ari direlako...

Gogoratu aurreko edizioan parte hartu izandakoek ere be-

rriz eman behar dutela izena aurten. Azkar eta erraz egin daiteke, *Euskaraldia.eus* atarian, *Euskaraldia* aplikazioarekin edo Euskaraldiaren QR kodearen bidez. Batzordean ere laguntzeko gaude, *elgeta@euskaraldia.eus* helbidean.

Txapak, bestalde, azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean eraman behar dira soinean, ari-keta egunekin lotzeko zuzenean.

Ikerketa soziolinguistikoa

Aurten ere ikerketa bat egingo da Euskaraldiaren eragina neurtzeko. Soziolinguistika Klusterrak egingo du, *ahobizi*-ei eta *belarriprest*-ei posta elektronikoko bidalitako hiru inkestaren erantzunak aztertuta. Neurtuko dira parte hartzaileen hizkuntza ohiturak Euskaraldiari hasiera eman aurretik, bitartean eta amaitu ostean.

Txapak noiz eta non jaso

Barikua, hilak 13

- 15:30 Plazan egongo da mahaia, bi orduz.

Zapatua, hilak 14

- 11:00 Plazan egongo da mahaia, bi orduz.

Domeka, hilak 15

- 11:00 Plazan egongo da mahaia, bi orduz.

Astean, hilak 16-20

- Udal Liburutegian eska daitezke txapak, zerbitzuaren ohiko ordutegian. Euskaraldian izena eman behar da txapa jaso ahal izateko.

Ez da urtero moduko jaia izan, baina gaztainak ederrak zeuden

Astelehenean egin zuten gaztaina-erre jana eskolan, gurasorik gabe eta burbuila taldeak errespetatuz

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Urtero egiten dute gaztaina-erre jana Elgetako Herri Eskolan. Berezia izan da aurtengoa; izan ere, COVID-19 neurriak zainduta egin behar izan dute ospakizuna. Hau da, burbuila taldeak

mantenduz eta, pilaketak saihesteko, gurasorik gonbidatu gabe.

Baina ospatu dute oso antzinatek datorren usadio zaharra, eta pozik dira ikastetxean. Kantuan egin zuten neska-mutikoen, bertsoak abestu zizkioten urte-

ro gaztainak erretzen dizkien eta urtebetetze eguna zuen Enrike Perez *Txikiturri*-ri, eta gustura jan zituzten hark prestatutako gaztaina gozoak.

Maala guraso elkartearekin elkarlanean egin ohi dute ospakizuna Elgetako Herri Eskolan. Aurten, ez dute gurasorik gonbidatu, jende pilaketak saihesteko prebentzio neurri gisa. Gauzak ondo bidean, hurrengo ikasturtean elkartuko dira elgetarrak danbolinaren bueltan, berriz ere.



Ikasle talde bat danbolinaren inguruan kantuan, astelehenean. ELGETAKO HERRI ESKOLA

Munduko sagardo berezi onenen artean

Maite Retolaza elgetarrak eta Haritz Eguren zeraindarrak daramaten Oiharte sagardotegiak urrea eta zilarra lortu ditu, lehen aldiz, Asturiasen jokatu den nazioarteko SISGA lehiaketan, apardun eta izotzezko sagardoaren modalitatean, hurrenez hurren

Hasier Larrea ELGETA

Txotx garai bete-betean harra-patu zituen pandemiak Euskal Herriko sagardotegi guztiak. Ordutik, nola edo hala moldatu dira galera ekonomikoetara buelta emateko, baina, zoritxarrez, albiste pozgarri gutxi izan dituzte. Hala ere, egon dira salbuespenak, Zeraingo Oiharte sagardotegiaren kasuan bezala.

Berau gidatzeaz arduratzen da, senarrarekin batera, Maite Retolaza elgetarra. Sagardo bereziak egiten bikote eskarmen-tuduna izaki, Gijonen jokatzeko den SISGA mundu-mailako sagardo berezien lehiaketak apardun sagardorik onena eta izotzezko bigarren sagardorik onena egiten dutela erabaki du aurretik. "Bertako sagarraren aldeko aitormena dira bi sariak; ohiko sagardoa ez ezik, mota askotako edariak egiteko aukera ematen du", adierazi du ekoizle elgetarrak.

Errezil sagarrari buruz mintzo da Retolaza. Fruta bizia, azido askokoa eta goxoa dela irizten du sagardogileak: "Jateko erabiltzen da, normalean; sagar erretearako edo menbrilloak egiteko, batik bat". Euskal Herriaren sagar ugaria da errezil motakoa, Goierrin bertan dezentente ateratzen dena. "Tokiko sagarraren aldeko apustua egiten duten nekazarien eta elkarrekin lana balioan jartzen du sari honek", aipatu du.

Elaboratzeko orduan, sagardo garbia ateratzen dela nabarmendu du Retolazak: "Gustu eta usaimenez emaitza atsegina uzten du edariak, apardun sagardoa egiteko aproposa". Estilo horretako zukua lortzeko, sei hilabeteko prozesua egin behar da; izan ere, bigarren fermentazio bat egin behar da botilan. Hortik ateratzen den emaitzari AMA izena jarri zioten duela bost urte, eta, dirudienez, hobetzen doa urtetik urtera.



Maite Retolaza eta Haritz Eguren, sagardo sarituekin eskuetan. MAITE RETOLAZA

OHIKO SAGARDOA EZ EZIK, SALGAI DUTE APARDUNA, LATAKOA, IZOTZEZKOA ETA MUZTIO EKOLOGIKOA

Izotzezko sagardoak ere badu bere "grazia", Oiharte sagardotegiko jabearen esanetan: "Urre koloreko sagardo distiratsua da izotzezkoa, ahoan gozoa, sagar zapore handikoa eta gustu iraunkorra uzten duena".

Urteetako eskarmen-tua

Bi sagardo mota berezi horiek ez dira egun batetik bestera ateratzen, urte askoan esperimendatu ostean baizik. "Sagarrarekin ohikoak ez diren proba asko egin daitezke. Uzta bakoitzeko fruituek norabide batera edo bestera orientatzen gaituzte: honekin kopako sagardoa egin dezakegu, beste hau birritan fermentatuz gero... Horrela ibiltzen gara, desberdintasunak antzeman eta ideiak garatzen", azaldu du Retolazak.

Sagardotegia ireki zutenetik bezeroei zerbait berezia eskain-

tzeko bilaketan jardun du bikoteak. 2010eko uztan hasi ziren sagardoa komertzializatzen, eta gaur arte barrietatea hazi besterik ez dute egin: "Ohiko sagardoa ez ezik, aparduna, izotzezkoa, muztio ekologikoa eta latakoa egiten ditugu. Euskal Herriaren bakarrak gara azken hau saltzen dugunak". Argi dago probatzea eta dastatzea gogoko dutela Zeraingo sagardotegikoek.

Ogi gogorrari, hagin zorrotza

Martxoko itxialdiak ezustean harrapatu zituela onartu arren, egoera makurra iraultzeko ahalginak ez dira antzuak izan Egurenen eta Retolazaren aldetik: "Kamera bete-betea geneukan guztiok etxera bidali gintuztenean. Momentu hartan, txuletak, bakailao-xerrak eta sagardoak etxez etxe banatzen hasi ginen, eta jendeak ondo erantzun zuen; stocka hustea lortu genuen, ez dela gutxi!".

Nekazaritza-etxea ere badaukate Zerainen, eta, sagardoarekin gertatzen den bezala, "probatzen duenak errepikatu egiten du". Sagardo bereziak dastatu nahi dituenak 690 79 35 07 telefonora deitu besterik ez dauka.

"Familia osoak barre egiteko obra eskainiko dugu Espaloian"

AINHOA JUANIZ ZIRIKA ZIRKUS-EKO ANTZEZLEA

Doako sarrerak Udalaren webgunean eskura daitezke

H.L. ELGETA

Antzerkia eta zirkua uztartzen dituen *Eolo68* ikuskizuna taularatu du domeka honetan Zirikak Zirkus konpainia txantrearrak, Elgetako Udalak azaroan zehar antolatutako *Domeka kulturalak 2020* emankizun sortaren baitan. Emanaldia 18:30ean hasiko da, eta aurrez hartu behar da tokia, Udalaren webgunearen bitartez. Konpainiako kide Ainhoa Juanizek eman du obraren berri.

Zer da *Eolo68*, antzerkia ala zirkua?

Lehenbizi, aktore bakar batek [Luis Lainez] egiten duen hitz eta hots gutxiko ikuskizun bat da; beraz, obra ez da monologo bat, eta aktorea ez da mimo bat, clown bat baizik. Kontaketan zehar zirkuko oreka eta malabar ariketak egiten ditu eta mugimenduak berebiziko garrantzia hartzen du. Haurrek gozatzeko pertsonaia fantastiko bat da Eolo, Charles Chaplinen antza daukana, baina sudur gorriarekin.

Zein da *Eoloren* helburua?

Bere helikopteroa gidatzen dabilen istripua izan du Eolok, eta kutxa beltz batera -antzokia- erori da. Bertan, heliozko puxika baten lagun bilakatuko da,



Eolo68 obraren une bat. ZIRIKA ZIRKUS

zulo horretan bizirik irauten lagunduko diona. Inguruan aurkitzen dituen objektuekin jolas-tuko da, eta ikusleak fantasiazko mundu batean murgilaraziko ditu.

Zerk egiten du erakargarri?

Fisikoki oso interesgarria da obra; aktoreak keinu bidez haurrekin zein helduekin daukan komunikatzeko ahalmena sekulakoa da. Interpretatzeak berak sortu du antzezlan, eta musika ere berak erantsi dio. Duela bi urtetik ari gara obrarekin; adin guztien irriak piztu ditu beti.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Saihesbideko seinalea, arriskutsu oraindik

Kanpazarrerako noranzkoan, Elgetako sarbidea iragartzen duen karteletako bi xafla zintzilik daude duela aste batzuetatik. Haizeteek arriskuak eragin ditzakete gune horretan.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Zuazola-Larraña institutuko hainbat ikasle gonak jantzita joan den martitzen goizean. T.M.

Gonak jantzita eskolara, elkartasuna adierazteko

Bilboko mutil bati eskolara gona jantzita joanagatik gertatutakoa salatu eta hari elkartasuna adierazi gura izan diote Zuazola-Larraña institutuko ikasleek, eurak ere gonak jantzita, arropak generorik ez duela aldarrikatzeko

Oihana Elortza OÑATI

Zuazola-Larraña institutuko neska-mutiko asko gona jantzita joan ziren eskolara martitzenean. Bilbon gauza bera egiteagatik mutil bati bere ikastetxean gertatu zitzaiona salatzen gertatu zuten hori. "Mutil hori gona janzteagatik eskolako psikologoarengana bi-

dali zuten irakasleek. Horrek hautsak harrotu ditu ikasleen artean, eta pentsatu dugu gu ere gonarekin etortzea", azaldu du Naroa Moiuia ikasleak. 15 urteko gazte bilbotarrak salatu zuenez, psikologoak, bere burua neska edo mutiltzat zuen eta gonarekin hotzik ez ote zuen galdetu ostean, gona kentzera

animatu zuen. Hori horrela, arropak generorik ez duela aldarrikatu gura izan dute ikasleek: "Mutilena edo neskena zer den esateko erabiltzen dugun elementuetako bat da arropa. Edozelan ere, ez dago neska edo mutilena den arroparik. Izan ere, tela zati batek ez du generorik, eta Bilbokoa salatu

dugu", gaineratu du Jokin Zubillaga ikasleak.

Martitzen goizean egin zuten elkartasun ekintza hau eta sekulako oihartzuna izan du bailaratik kanpo ere; komunikabide askotan jaso dute Oñatiko ekintzaren berri. Egunkari batzuetako azaleko argazki nagusian ere, *El Diario Vasco*-n eta *Berria*-n kasu, Zuazola-Larraña institutuko neska-mutikoak agertu dira gonak jantzita. *Argia*-k ere jaso du eta Euskal Telebistak *prime time* ordutegian emititzen duen *Eztabaida* saioan ere hartu zituen minutuak oñatiarren burutazioak.

Gelatik, ikastetxe osora

Ikasle talde baten proposamena izan zen hasieran. "Gelakook egitea pentsatu genuen hasieran, baina zuzendaritzan ideia komentatu genuen eta eskola osora hedatu zen, azkenean, gona janzteko ideia", azaldu du Moiuak.

Filosofia eta Balio Etikoen irakasle Susana Cenerak azaldu zuenez, ikasleek izandako ideia oso ona iruditu zitzaion: "Proposatu ziguten guztiok, neska zein mutil, gona soinean dugu eta etortzea eskolara. Proposamen interesgarria iruditu zitzaigun, neska-mutikoak esna, aktibo, daudela erakusten duen keinu bat da eta. Bizitzan daudela esan gura du horrek, gertakariez konturatzen direla, salatzen dituztela eta parte hartu gura

dutela etorkizun berdinagoa sortzen eta garatzen".

Salaketa eta elkartasuna

Bilboko 15 urteko ikasle horri gertatutakoa salatu eta elkartasuna adierazteko egin dute ekintza Zuazola-Larraña DBH mailako ikasleek.

Egoera bera Oñatin gertatuz gero, baina, institutuko ikasleek uste dute ez lituzkeela ondorio berberak izango. "Uste dut gonarekin etorri gero, agian, norbaitek begiradaren bat botako lidakeela. Baina bai institutuak eta bai nire ingurukoek, orokorrean, onartuko luketela ere uste dut, ez lidakete oztoporik edo trabarik jarriko gona jantzita etortzearen", deritzo Jokin Zubillaga ikasleak.

Gazteek horrenbeste erabiltzen dituzten sare sozialak erabili zituen ikasle bilbotarrak bera gertatutakoa kontatzeko eta zabaltzeko, eta txoko askotaraino iritsi zen salaketa hori. Gertaeraren berri jakin eta elkartasuna adierazteko beharra argi ikusi zuten Oñatiko gazteek, eta eurek egindako elkartasun eta salaketa ekintza ere asko hedatu da.

EKINTZAK OIHARTZUN HANDIA IZAN DU ETA HAINBAT KOMUNIKABIDETAN AGERTU DA

GORA ETA BEHERA



Aspaldiko pintaketa, oraindik kendu gabe

Pintaketa horren antzinatasuna urtebetetik gorakoa dela dio auzotar batek, eta alkatearen balorazioa ezagutu gura duela dio, "agian artistikoa?" galdetuz.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Anbulatorioko ordua

Oñatiko osasun zentroan, ambulatorioan, 17:00ak arte dihardute lanean; horixe da oraingo ordutegia. 20:00ak arte izan da ohiko ordutegia, baina urtarrilaren 8ra arte 17:00ak arte izango da: "Egoeragatik aldatu dugu ordua, ahalik eta zerbitzu onena emateko".

Parrokian katurik ez

Parrokiako abesbatzako kide batzuegana ere iritsi da birusa, eta ikusita, gainera, datuak goraka doazela, datozen asteetan ez du abesbatzak abestuko. Bestalde, unean egin ezin diren hileta elizkizunak aurrerago egingo dituzte.

NIRE USTEZ



LUKENE IGARTUA

Ulertzea

Accesibilidad cognitiva gaiaren gainean aritu ginen bilera batean; euskaraz *irisgarritasun kognitiboa* izan daiteke, euskarazko itzultzaile neuronalak *eskuragarritasun kognitiboa* terminoa erabiltzen badu ere. Hitz horien atzean dagoen kontzeptua da gure munduan: hizkuntza, jarrerak, arkitektura, eta abar ulergarri egitea, bereziki ulertzeko arazo gehien dituzten horientzat. Adimen urritasuna duten pertsonak askotan gure hizkuntza haiek ulertu dezaten moldatu beharra daukagu: gauzak argi eta zuzen esan beharra daukagu. Hori egin beharrean askotan gure jarrera aldatzen dugu eta heldu bati 5 urteko bati bezala hitz egiten diogu. Arkitekturaren irisgarritasun fisikoaren gainean askotan aritu gara, baina kognitiboa, zer da? Ba, hauxe: eraikuntza batera sartzen garenean jarraritu beharreko bidea ez jakin arren, eraikuntzak berak bidea erakutsi eta gure helburura heltzen laguntzen gaituenean. Argi dago hau lagungarria dela guztiontzat, ez bakarrik adimen urritasuna duten pertsonentzat.

Ulertzen ez dudana da: ulergarritasuna defendatzen duen terminoa bera hain ulergaitza izatea.

Diru publikoa eskatzeko, protestara batzeko deia

'Diru publikoa herriarentzat' leloarekin protesta egingo dute hainbat eragilek bihar, zapatua. 13:00etan plazan hasiko dute manifestazioa, eta aurrera egin ahala joango dira protestara batzen. Herritarrei laguntzeko inbertsio publikoak eskatuko dituzte

Maialen Santos OÑATI

Oñatiko ostalariek, sindikatuak, eragile politikoeak, pentsiodunek, gazte mugimenduak, mugimendu feministak, musika taldeak, kultura eragileak eta teknikariek deitu dute mobilizazioa, eta hori deitzeko egindako agerraldian azaldu dute egoera honetara iritsi izanaren "ardura osoa" jendearen gain botatzeko "interesa" dagoen arren, euren iritziz "ardura nagusia" etxeko-lanak egin ez dituen gobernuena dela.

Inbertsio publikoen "beharra"

Salatu dutenez, ez dituzte "beharrezko inbertsio publikoak" egin osasungintzan, hezkuntzan eta laguntza sozialetan. "Berriz ere halako ahalegin bat eskatuko badigute, oraingoan bai, egin beharreko inbertsio guztiak egin behar dira. Ezin gara balizko hirugarren olatu batera egoera honetan iritsi", azaldu du Xabier Elorza ostalariak. Are gehiago, osasunean inbertsio publikoak haztearekin batera, sektore sozial eta ekonomiko kaltetuenak babesteko "laguntza ekonomikoak" biderkatu behar direla nabarmendu du: besteak beste, ostalari, kulturgile zein hezkuntzara bideratzeko. Osasun krisiaren ondorioak "betikoak" pairatzen ari direla argi dute.



Protestara batu diren eragileetako ordezkariak, eguazteneko agerraldian. M.S.

13:00etan, plazan hasita

Arratsaldeko ordu batean hasiko da manifestazioa, plazan, eta horrek aurrera egin ahala joango dira zutabe ezberdinak batzen. Gaztelekuan batuko dira kultura eragileak, osasun zentroan osasungintzako langileak, Bidebarrietan ostalariak, Herrerako biribilgunean sindikatuak, San Martinen zainzaileak, gaztetxean gazteak, plazan udal ordezkariak eta institutuan hezkuntza eragileak. Kuartelean kontrol sozialik egin ez dezatela eskatuko dute, gainera. "Oñatiar guztiei

dei egin gura diegu protestan parte hartzera", zehaztu du Jose Anjel Palacin ostalariak.

Horretaz gain, aste gogorrek datozela gogora ekarri, "eta berriz "elkar zaintzeko dei egiteko" ere baliatu dute hitzordua. Borrokan jarraitzeko eskaera egin zuen Palacinek: "Herri honek duen sen komunitarioa, gure baliorik onenak aktibatzeke garaia da berriz: elkartasuna, auzolana eta interes indibidualen ginetik, interes kolektiboen alde dena ematea. Hori da esperantzaren atea zabaltzeko giltza".

EUSKARALDIA



Euskaraldiaren banderola jartzen balkoi batean. O.E.

Bi antzezlan ekarriko ditu Euskaraldiak Santa Anara

Azaroaren 28an 'Ttak' bakarrizketa umoretsua eskainiko dute eta abenduaren 3an, 'Ez dok ero'

Goiena komunitatea

Euskaraldia taldea / OÑATI

Oñatiko Euskaraldiaren batzordeak bi ikuskizun prestatu ditu Euskaraldia egingo den egunetan eskaintzeko. Beatriz Egizabalek egingo duen *Ttak* bakarrizketa azaroaren 28an izango da, eta Euskaraldia zer den gizarteratu, bere baitan dauden dinamika eta jokabide proposamenak azaldu, eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean gertatuko denaren berri eman nahi du. Hau da, hizkuntza-ohiturei buruzko hausnarketa eragitea da emanaldiaren helburu nagusia. Abenduaren 3an berriz, euskal antzerkiaren *road movie* eroa ekarriko dute Patxo Telleriak eta Eneko Oregik, *Ez dok ero* antzezlanarekin. Bi hitzordua Santa Anan izango dira, 19:00etan. Bigarrenek 12:30ean egingo dute beste saio bat, herriko gaztetxoedako.

Kale Barrian ere bai

Eta ikuskizunak prestatzearekin batera, txapak banatzen, materiala saltzen eta behar den informazioa ematen jarraitzen du Euskaraldiko taldeak. Orain, gainera, Kale Barrian Gure Eskuk eta Hotz Oñatik erabili izan duten lokalean ere bagaude; hor egoten gara martitzen eta eguenean, eta Euskaldun Berri gelan astelehenean eta eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara.

Asteleheneko datuen arabera, ia 1.200 herritarrek eman dute izena Euskaraldiarekin bat egiteko. %90ek *ahobizi* izango direla esan dute, eta %60 emakumezkoak dira. 40 entitatetan 120 arigune sortu dira, 560 lagun pasak hartuko dute parte horietan. Baina norbanako gisan ere eman behar dute izena horiek, ez bakarrik arigunean, eta horixe gogorazi gurako genuke. Oraindik eman daiteke izena.



ZERGA, KONTABILITATE ETA LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com



Oñatiko EAJ-ko udal taldea pandemia hasi aurretik ateratako argazki batean. OÑATIKO EAJ

Aurrekontuetarako lanketa eginda du EAJK

Datorren urteko aurrekontuetarako proposamenak landu eta bildu ditu Euzko Alderdi Jeltzaleko udal taldeak, eta Udal Gobernuak dituenekin partekatu eta "aurrekontuak elkarlanean lantzea eta adostea" gurako luke. Abenduan onartzea da asmoa

Oihana Elortza OÑATI

"Ezohiko egoeran" egon arren, "herria eraikitzen" jarraitu behar dutela uste dute jeltzaleek, eta 2021korako proposamenak landu eta bilduta ditu EAJKo udal taldeak. "Proposamenak dira, ez dugu diru kopururik jarri, beharrezkoak ikusten ditugun proiektu edo lanak dira. Udal Gobernuak dituen asmoekin partekatu gurako genituzke, datorren urteko aurrekontuak elkarrekin lantzeko eta adosteko", azaldu du Udaleko bozeramaile jeltzaleak, Ainhoa Galdosek.

Lehenagoak eta berriak

Galdosen esanetan, bospasei ardatz nagusitan bildu dituzte proposamen horiek: tokiko ekonomia, kultura eta hezkuntza, oñatiarren beharretara egokitutako herri jasagarria eta kirola eta osasuna. "Uste dugu egingarriak diren proposamenak direla denak, inbertsio handirik ere ez dute eskatzen batzuek.

Datorren urteko aurrekontuetan txertatzea borondate politiko kontua da".

Pandemiak merkataritzan eta ostalaritzan eragindako ondorioak "handiak" direla ikusita, laguntzetarako diru lerro bat proposatu dute jeltzaleek Sozioekonomia Sailean: "Udalak eman eta Jaurlaritzak ere iragarri ditu, baina badute laguntzen beharra". Sektore horretako langileendako digitalizazio formakuntza eta baserriarren produktuak banatzeko kanala sortzea dira beste ideietako bi.

Oñati Lagunkoia programan sartzea, kultura sariak antolatzea eta Urrutxu kirolgune bihurtzea, atletismo pista bat eginez, adibidez, berriz jaso dituzte propo-

BOSPASEI ARDATZ NAGUSITAN BATU DITUZTE EUREN USTEZ "EGINGARRIAK" DIREN PROPOSAMENAK

samenen artean. Horiekin batera, liburutegia hornitzeko beharra ere ikusten dute, eta musika eskolaren beharrak betetzeko proiektua martxan jartzeko bidea hastea ere gurako lukete jeltzaleek. Bestalde, irisgarritasun lanen faseak aurreratzea, Murgian eta Berezaon argiteria hobetzea, Azkoagaini irtenbidea ematea eta "aurrekontu parte-hartzailetan herritarrek eskatutako" adinekoendako jolas parkea egitea ere jaso dituzte. Baita Arantzazuko komunak konpontzea ere.

Bizikidetzaren ordenantza bat

Bizikidetzaren ordenantzaren beharra ere ikusten dute jeltzaleek Oñatin. "Pintaketak eta patinetearen erabilera, adibidez, arautuko duen bizikidetzaren ordenantza. Beste herri batzuetan badago horrelako ordenantza bat", gaineratu du Galdosek. Ordenantza parte-hartze prozesu bidez egitea ikusten dute ondo, ekarpenak jasotzeko.

"Perretxikotan aritzeko ezagutza izan behar da"

JOXE ANJEL URKIA PERRETXIKO-ZALEA

Umetatik jarraitu du perretxikoen mundua Urkiak

O.E. OÑATI

Joxe Anjel Urkia (Oñati, 1953) umea zela hasi zen perretxikoen munduan murgiltzen. Egun, senideekin eta lagunekin aritzen da perretxikotan.

Nolako urtea ari da izaten perretxikotarako?

Egia esan, aurten ez naiz normalean beste aritu perretxikotan, anaia gehiago aritu da. Aurten goa ez da urterik onena izan, ez da sasoi indartsurik egon, baina noizean behin jateko beste perretxiko ekarri ditu berak. Saskia beteta ez, baina batutakoa ez dago gaizki.

Orain da sasoi, ezta?

Hala da, bai. Esango nuke orain dela horretarako garaia, udazkena, sasoi dagoeneko amaitzen ari den arren. Baina batu gura dituen garaiz dabil oraindik, zerbait aurkitu dezake.

Denak dira perretxikoak?

Onddoek dute azpian esponja antzeko bat eta gainontzeko perretxikoez laminak dituzte. Esponjak edo orratzak dituztenak ez dira arriskutsuak; laminak dituztenak, aldiz, bai. Hori gutxi balitz, azpitik zakutxo bat duten perretxikoak are arriskutsuagoak izan daitezke.



Joxe Anjel Urkia. MAIALEN SANTOS

Ezagutza ezinbestekoa dela diozu.

Guztiz. Perretxikotan aritzeko ezagutza behar da; ezagutu barik ezin da ibili, arriskutsua izan daiteke. Ezinbestekoa da, lehenengo, jan ezin direnak zeintzuk diren ezagutzea, hortik hasi behar da. Behin hori jakinda, hasiberria denak hobe du esponja edota orratza dutenak bilatzen hasi, eta gainontzekoak gero. Laminak dituztenak –arriskutsuagoak–, azkenerako utzi.

Topatzea izaten da zaila.

Batzuetan, bai. Ez direlako irriten guk gura dugunean.



OLATZ AZKARATE

Ziklismo egokituan, estreinakoz

Joseba Azkarate asteburuan Cartagenan (Murtzia) jokatu den Espainiako Txapelketan lehiatu da, txirridularitza egokituan. Lasterketa batean parte hartu duen lehen aldia izan da asteburukoa eta aitortu du "gustura" aritu dela eta "esperientzia polita" izan dela berarentzat. Hain zuzen, zapatuan lasterketa orokorrean eta domekan erlojupekoan aritu zen oñatiarra.



Xabier Yaniz, taldeko abeslaria, martitzenean, estudioan lanean. AITZIBER ARANBURUZABALA

Egindako lana herritarrei erakusteko txanda gaur

Gaur arratsaldean kultura etxean aurkeztuko du 'Absurdoaren paradisia' lan berria Mila Modu talde oñatiarrak. Bi saio egingo dituzte, eta sarrerak agortuta daude bietarako. Power pop doinuak ditu oinarri joan den astean argitara ateratako lanak

Maialen Santos OÑATI

Musikagintzan ibilbide luzea duten Oñatiko musikariek iaz sortutako proiektua da Mila Modu. Garai bateko Hor Konpon taldeko Xabier Yanizek abiatu duen proiektu pertsonala da, baina hasieratik bidelagun ditu taldekide zituen Andoni Campos eta Oskar Arlanzon; eta orain, Malenkonia taldeko Rober Freire gitarrak-jolea batu dute taldera. "Aspaldi utzi genuen Hor Konpon, eta, gerora, denborarekin hasi nintzen kanta pila sortzen. Abesti horiei irtenbidea emateko asmoz sortu dugu proiektu berri hau". Proiektuari berari buruz galdetuta, aurreko musika egitasmoekin alderatuta "anitza" dela azaldu du Yanizek: "Orain, planteamendua ezberdina da: lan gehiena etxean egiten dugu; gero, konponketak egiten ditugu lokalean. Beste baliabide batzuk ditugu gaur egun, eta idazleekin ere lanean ari gara. Finean, sistematika aldatu egin da".

Azaroaren 6tik eskuragarri

Uztailean grabatu zuten disko berria eta joan den astean, azaroaren 6an, argitaratu zuten, Elkar argitaletxearen eskutik. "Demoak neuzkan grabatuta, eta asko nituen une batean erakutsi nizkien argitaletxekoei", adierazi du. Gaineratu duenez, Hor Konpon taldean ere Elkarrekin elkarlanean aritu izan ziren, eta, beraz, "harremana mantendu" egiten dute oraindik ere. Diskoa ez ezik, *Hau da ene ondasun guztia* kantuaren bideoak ere ikusgai dago jada. Gaztea irratiko maketa lehia-keratara aurkeztu ziren, "feedback" jaso guran. Eta horren ostean erabaki zuten diskoarekin aurrera egitea.

OÑATIKO HAINBAT IDAZLEK ETA JOSEBA SARRIONANDIAK SORTU DITUZTE DISKOKO LETRAK

Lanaren ezaugarriak dagokienez, power pop estiloko doinuak ditu oinarrian *Absurdoaren paradisia*-k, eta hausnarketarako gonbidapena egiten du. "Momentu batzuetan indar askorekin, eta, betiere, emozioak bilatuz eta hausnarketarako gonbidapena eginda: gaiarengatik edo musikarekin lortzen den dinamika-rengatik", zehaztu du abeslariak.

Sei kantuz osatuta

Bost idazleren hitzekin osatutako sei kantu jasotzen ditu bildumak: Joseba Sarrionandiak eta Oñatiko hainbat idazlek sortutakoak. Orokorrean, gai sozialak jasotzen dituzte; horien artean, etorkinen egoera, teknologiaren arriskuak eta drogak.

Gaur arratsaldean kultura etxean egingo dute aurkezpena. Bi saio egingo dituzte –18:00etan eta 19:45ean– eta sarrerak agortuta daude. Diskoa eskuragarri dago Oñatiko Txokolateixan, Elkar dendetan eta baita taldearen sare sozialetan ere.

Oztopoei aurre eginda eraman dute aurrera Beratu jaialdia

Jaialdiaren antolatzaileak gustura azaldu dira asteburuak emandakoarekin; musikariak eta ikusleak ere bai

M.S. OÑATI

Azaroaren 4tik 8ra bitartean ospatzekoa zen Beratu musika jaialdia, baina lehen egunean Aitor Etxebarria musikari gerturak ezin izan zuen *Markak* dokumentalerako konposatutako soinu banda aurkeztu. Gauzak horrela, hilaren 6an, egubakoitza, hasi zuten Beraturen hirugarren edizioa, eta Los Sara Fontan, Sua, Gaizka Insunza, Hakima Flissi eta Joseba Irazoki aritu ziren oholtza gainean.



Hakima Flissi. IMANOL SORIANO

Antolatzaileak, "gustura"

Jaialdiaren antolatzaileak gustura azaldu dira asteburuak emandakoarekin. "Saiatu behar dugu gauzak aurrera ateratzen, egoera berrira moldatzen, eta, era horretan, kultura alde batera ez uzten". Gaineratu du ekin-tzak egin daitezkeela, eta ez hori bakarrik: egin behar direla.

Ikusleak eta musikariek ere jaialdiaren balorazio positiboa egin dute. Azaldu dute, hala ere, neurrien eraginez kontzertuak "hotzagoak" direla orain, eta, batez ere, emanaldien amaieran oihuen eta txistuen falta igartzen dute zenbaitek.

Intsumisioari buruzko dokumentala ikusgai martitzenean

Antixeneko gaztetxeak azarora begira prestatutako egitarauaren barruan eskainiko dute *Bi urte lau hilabete eta egun bat* izena daraman dokumentala, Oñatiko Ernaik antolatu badu ere. Lander Garrok intsumisioari buruz egindako ikusentzunezkoa da hori, eta datoren martitzenean egongo da ikusteko aukera, zinema aretoan.

Bi txandatan eskainiko dute dokumentala: 17:00etan eta 19:00etan hasita. Sarrerak dagoeneko eskuragarri daude Udalaren webgunearen bitartez, eta salneurria hiru euro da.

Bestetik, eguaztenean, hilak 18, Pablo Salgado idazlearen *Dut* liburua aurkeztuko dute gaztetxean, 18:30ean. Hain zuzen, liburuaren izen bera duen Hondarribiko rock musika taldeari buruz idatzitako liburua da hori. Taldearen historia eta ibilbidea aztertzen ditu.

20 taldek eman dute izena biharko film laburren rallyrako

Bihar, zapatua, egingo dute Oñatiko XI. film laburren rallya. Hogei taldek hartuko dute parte; talde bakoitzean, halere, ezingo dira sei pertsona baino gehiago aritu. Gaueko emanaldirik ez dute egingo, bestalde, eta saioa streaming bidez eskainiko dute hurrengo egunean, domekan, 17:30ean, OLRren Youtubeko kanalean.

PIAZZOLLAberdik kontzertua eskainiko du domekan

Musikegunak-en barruan eskainiko dute kontzertua Iñaki Alberdik, Enekoitz Martinezek, Alex Garrobek eta Gonzalo Tejadak osatutako taldeak. Santa Anan izango da, 19:00etan, eta sarrerak Txokolateixan edo udalaren webgunean daude, 8 eurotan. Musikegunak-eko kontzertu guztietarako bonuak ere eskuragarri daude, 25 eurotan.

Xabi Gorostidi ARRASATE

Pandemiaren eraginez, bertan beheren uholdea egon da aurtengo goi-mailako mendi lasterketen egutegian, eta urte zaila izan da lehiaketa gosez zeuden korrikalariarentzat.

Zailtasunak zailtasun, 15 lasterketa egin dituzu uztailetik hona...

Zuzenago esanda, 15 egunez aritu naiz lehiatzen. Egin ditudan azken bi lasterketak hiru eta lau eguneko probak izan dira, eta gainontzekoak egun bakarrekoak.

Konfinamendua, pandemia ... urte ezohikoa izan da goi-mailako kirolariarentzat. Zure kasuan, nola moldatu zara konfinamendutik denboraldi hasierara sasoi onean heltzeko?

Konfinamenduan ez nuen korrikarik egin. Horretarako modu bakarra etxean korrika egiteko zinta edukitzea zen, eta ez da nire kasua. Beraz, bizikleta eliptikoarekin eta indarra lantzeko zirkuituak egiten moldatu nintzen. Kalera irtetea baimendu zutenean, ordea, nahiko ondo egokitu nintzen entrenamenduen erritmora. Etxean egindako lanak ezer gutxirako balio zuen sentazioa nuen, baina gero, asko eskertu dut.

Proba asko bertan behera geratu ostean, zaila izango zen urte hasierako helburuak betetzea...

Urte hasieran egin nahi nituen proba guztiak bertan behera geratu dira; beraz, bai. Hori ikusita, nire kabuz aritu behar izan dut lasterketak bilatzen, baita harrien azpian ere. Pasatu izan zait, begira eta begira aritu ostean: "Aiba! Nafarroan lasterketa bat zegoen eta ez naiz enteratu". Egutegia nahiko egin da etortzen zait, eta aurten planifikazio lan handia egin behar izan dut, ganorazko entrenamenduak bilatzen.

Zein lasterketak lagundu dizute denboraldi amaierarako ondo presatzen?

Udan, autokarabana hartu eta familiarekin batera aritu nintzen Europako mendietan eta Piriñoietan zehar fundamentuzko lan-saioak egiten. Ostean, Reventon Trail eta halako probak egin ditut, non maila oneko lasterkariekin nire benetako maila ikusteko aukera izan nuen. Eta aipatzekoa ere Canfranceko maratoia. Azken horretan, gorputza muturrera eraman behar izan nuen; 45 kilometro dira, 8.000 metroko desnibelarekin.

"Harrien azpian aritu behar izan dut ganorazko lasterketen bila"

MEMDI LASTERKETA OIHANA KORTAZAR MENDI LASTERKARIA

Denboraldi "arraroa eta laburra" izan da elgetarrantzat; uztailetik hona hamabost lasterketa egin ditu eta Azoreetan jokatu den Golden Series proba izan da azkena



Oihana Kortazar, Azoreetan jokatu den Golden Trail Series proban. JAN NYKA

Ez du zerikusirik Zegama-Aizkorri batekin, adibidez; teknikoagoa da, une askotan oinez egin beharrekoa...

Irabaztea lortu zenuen, eta handik Cap de Creus-era. Helburu garbi batekin, gainera...

Urte xeble haur nola joan den ikusita, Azoreetan egin den Golden Trail Series lasterketara heldu nahi nuen. Aurten, eliteko txapelketako proba gehienak bertan behera geratu direnez, antolatzaileek lau eguneko proba horretan kontzentratu dute dena. Bertarako txartela lortzeko, Cap de Creus Traileko lehen lau sailkatuen geratu behar nuen, eta kosta egin zitzaidan sasoi onean heltzea. Baina bigarren geratu nintzen, Ainhoa Sanzen atzetik, eta Azoreetara joateko helburua bete nuen. Canfranceko maratoia kolpe handia izan zen gorputzarentzat, eta horren ostean egin nituen lan-saioak tortura modukoak ziren; asko kostatu zitzaidan ondo erreku-peratzea. Denboraldi osoan zehar justu samar aritu naiz. Lesio baten eraginez ziatika puntua oso hartuta eduki dut eskumako hankan, eta karrerak libratzen

"AZOREETAN MUNDUKO ONENEN ALBOAN LEHIATZEN AMAITZEA OPARIA IZAN DA NIRETZAT"

joan gara masajista eta biok, asteburuz asteburu. Inflamazioen aurkako pastilla bat poltsikoan nuela egin dut denboraldi osoa.

Eta nola joan zen Azoreetakoa?

Bertan egote hutsa oparia izan da niretzat. Batez ere, mundu mailako onenen artean egoteagatik eta emakume pila bat girela ikusteagatik. Ez dakit zenbat ginen zehazki: 100, 150 edo 80... Ez nago ohituta halako mailako hainbeste emakume batera ikustera. 126 kilometro ziren, lau etapatan banatuta. Lehen eguna ondo joan zen; punturik altuenera seigarren edo zazpigarren heldu nintzen, baina jaisten aurkari pila batek aurreratu ninduten. Baina helmugara iritsi aurretik horietako zortzi aurreratzea lortu nuen. Orokorrean, 20. kilometroa igarota hasten naiz mailarik onena ematen, eta zapore gozoarekin amaitu nuen. Bigarrenean, askoz hobeto aritu nintzen, eta seigarren amaitu nuen. Hirugarren egunean 10. izan nintzen, eta azken etapa hasi aurretik 10. nintzen sailkapen orokorrean.

Eta orduan agertu zen zorte txarra...

Zazpigarrena, zortzigarrena, bederatzigarrena eta hamargarrena elkarrekin gindoazen, eta 14 kilometroren faltan jausi egin nintzen. Orkatila bihurritu nuen, baina horrek baino min gehiago eman zidaten arroka bolkanikoek eragindako zauriek. Ez nuen lasterketa amaitu, baina sekulako esperientzia izan zen Azoreetako proba; denboraldia amaitzeko, modu paregabea.

Lasterketetan jarraitu beharreko protokoloekin, anekdota xebleberik?

Sekulako meritua izan dute antolatzaileek, eta eskertzekoa da izan dute ausardia. Anekdotarik? Bada, Espainiako Txapelketan, norberak prestatu behar zuen anoa posturako motxila, dortsal zenbakiarekin. Nik 46 zenbakia nuen, eta nire poltsari 36a jarri zioten, nahigabe, eta denboratxoa galdu nuen. Anoa postura heldu orduko lehena nintzen sailkapenean, eta, azkenean, beste faktore batzuegatik ere, bigarren amaitu nuen.

Denboraldia amaitu berritan, eskertuko duzu atsedean pixka bat...

Korritzea asko gustatu arren, sana eta beharrezkoa da des-konektatzea. Behar izaten dut, denboraldi berri bat ganoraz hasi aurretik: mendira oinez joan, bizikletan ibili, familiarekin denbora gehiago egon...

Ugarte: "Ea Simeone Azkoitian ikusten dugun"

FUTBOLA Eguaztenean lortu zuen Anaitasunak Errege Kopako lehen kanporaketa partidurako txartela. Axi Ugarte oñatiarrak eta Markel Ilzarbe bergararrak jokatzen dute Azkoitiko taldean. Astelehenean egingo dute zozketa, Sevillan

Xabier Urzelai ARRASATE

Axi Ugarte oñatiarraren eta Markel Ilzarbe bergararraren Anaitasunak Errege Kopako lehen kanporaketa jokatze txartela eskuratu zuen eguazten iluntzean Asturiasen (0-2), eta Azkoitiko taldearekin batera beste bederatzik klub txikik izango dute Kopako hurrengo kanporaketan Espainiako Ligako maila goreneko taldeekin jokatze eskubidea.

Ugartek dagoeneko hirugarren denboraldia darama Azkoitian. 2012an ere izan zen Aloña Menditik joanda, baina orduan peronea hautsita ez zuen Hirugarren Mailaz nahi moduan goza-



Azkoitiko taldea –tarte, Ugarte eta Ilzarbe–, kanporaketa gaituta. ANAITASUNA

tu. Markel Ilzarbe, berriz, Bergarako harrobikoa da, baina UDArekin ere jokatu izan du. Aurten fitxatu du Anaitasunak.

Hala, astelehenean Sevillan egingo duten zozketan ikusiko da Anaitasunak loteria horretan ze zorte duen: "Taldeen komentzen da Simeone Azkoitian ikustea ederra izango litzatekeela, edota Joaquin Betis –Reala, Athletic, Bartzelona eta Real Madril ez dira zozketan egongo–. Beno, tokatzen dena tokatzen dela, atzoko [eguztena] eguna ez digu inork kenduko", dio Ugartek.

Izan ere, Anaitasunak eguaztenean jokatu zuen Asturiasen kanporaketa partidua, Real Titanicoren kontra, eta asturiarrei 0-2 irabazi zieten gorriek –0-1ekoa penaltiz egin zuen Anaitasunak, eta, hain zuzen, oñatiarrari egin zioten penalti hori–. Lasaitasunaren gola (0-2), berriz, luzapean egin zuten azkoitiarrek. Modu horretara, iaz ezarritako Kopako formatu berri honek interesa piztu du zaleen artean, talde txikiei handien kontra jokatze txartela lehen baino aukera handiagoa ematen dielako.

FUTBOLA Federazioko hauteskundeak atzeratu egin dituzte

Indarrean dauden neurri murriztaileak aintzat hartuta. Gipuzkoako Futbol Federazioko hauteskundeak atzeratu egin dituzte. Bereziki, batzarrak egiteko edukiera mugatua hartu dute kontuan. Hortaz, ez dira azaroaren 23an egingo. Eta, oraingoz, ez dute zehaztu zein egunetan egingo diren hauteskundeak.

FUTBOLA Zigorra egon daiteke Leintz Arizmendirendako

Leintz Arizmendi futbol taldeak zigorra izan dezake Euskadiko Futbol Federazioaren partetik. Izan ere, pandemia egoeratik taldeko jokalariek erabaki zuten partidurik ez jokatzea, nahiz eta Euskadiko Federazioak erabaki zuen maila goreneko ligek aurrera jarraitu behar zutela. Erabaki horrek ondorioak izan ditzake ibarreko taldearendako.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armainuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiens.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABAETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak

- Berokuntza eta gasa

- Aire girotua eta haizeztatzea

Besabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABAETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza

- Ureztatze sistemak

- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Besabe poligonca D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

"Kezkatzen nauen gaia da aldaketa klimatikoa"

MARIAN PORCEL 'NEVERMORE' LIBURUAREN IDAZLEA

Klima aldaketaren aurka borrokan ari diren bi gazteri buruzko istorio bizia kontatu du arrasatearrak bere bigarren eleberrian; euskaraz eta gazteendako idatzitakoa da

Aitziber Aranburuzabala ELGETA

Eusko Jaurlaritzaren beka bat jaso zuen epe zehatz batean liburua idazteko. Hala egin zuen, eta Elkar argitaletxearekin argitaratu berri du.

Pozik emaitzarekin?

Egia esan, bai; nire helburua gazteendako liburu erakargarria egitea zen, eta esango nuke nahi-ko lortuta dagoela. Irakurtzeko arina izaten saiatu naiz, elkar-riketa eta istorio biziekin. Izan ditudan lanbideen eta zaletasunen eragina du liburuak: kazetaritza testuak daude; poesiak; gidoietako elkarriketa azkar-arak... Whatsapp mezuak ere sartu ditut. *Pot-pourri* bat da.

Aldaketa klimatikoaren aurka dauden gazteak azaldu gura izan dituzu eleberrian. Zergatik?

